# Sagastiberri




URRUZUNO literatura-lehiaketa

2006

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

# literatura-lehiaketa 2006

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

**Urruzuno Literatura-Lehiaketa (21.a. 2006)**
Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatura-Lehiaketa 2006 : lan sarituen bilduma. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006
or. ; cm. — (Sagastiberri)
ISBN 84-457-2444-4
1. Euskal literatura-XX. mendea - Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma.
891.69"19"(064.3)

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2006eko abuztua |
| Ale-kopurua: | 2.600 |
| | |
|---|---|
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| | |
|---|---|
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Iturain, Iñaki Artola,<br>Miren Jule Azurza eta Santos Izagirre |
| Azala: | Jesus Iturriza |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta inprimategia: | R.G.M., S.A.<br>Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao |
| ISBN: | 84-457-2444-4 |
| Lege-gordailua: | BI - 1.811-06 |

# AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Arriskuaren poetika.** *Castillo Suarez* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Amorioen bazca . . . . . . . . . . . . . . | *Asier Artola San Miguel* . . . . . . | 17 |
| Espejismoak bigarren mailako errepideetan . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Ander Ceña Setien* . . . . . . . . . . | 31 |
| Defuntu bat betikoz da . . . . . . . . . | *Miren Estibaliz Vivanco Ramirez* | 45 |
| Nik bainila dut gustuko . . . . . . . . | *Cristian Bedoya Valencia* . . . . . | 55 |
| Zorte txarreko habil Martintxo! . . | *Amaia Quintana Ordorika* . . . . | 65 |
| Mugaz bestalde . . . . . . . . . . . . . . . | *Joseba Badiola Prieto* . . . . . . . | 83 |
| Agirre Asteasukoa . . . . . . . . . . . . . | *Itxaso Amaia Paia Ruiz* . . . . . . | 93 |

**Prosa: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Hegaz . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Iera Uriona Perez de San Roman* | 103 |
| Lur azpian . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Jon Cadierno Gutierrez* . . . . . . | 111 |
| Ezabatu ezin den iragana . . . . . . . | *Mikel Mancisidor Iztueta* . . . . . | 119 |
| Zenbaikaitzaren mugagabetasuna . . | *Amaia Agirre Gonzalez* . . . . . . | 135 |
| Neure txokotik . . . . . . . . . . . . . . . | *Haitz Lekue Arriola* . . . . . . . . . | 145 |

**Poesia: A maila**


| | | |
|---|---|---|
| Ordulariaren orratzak eskirolak dira | *Ander Ceña Setien* | 155 |
| Poltsikoan aurkitutako poemak | *Jon Iraola Goiburu* | 163 |
| Azken geltokiaren zain | *Ander Ceña Setien* | 173 |
| Nire lehen egunerokoa… | *Olatz Mitxelena Larreta* | 181 |
| Mugarriaren mugak zazpi zapi ditu | *Ane Badiola Ostolaiz* | 187 |
| Egon ezinaren menpe | *Julene Mendiola Olazar* | 197 |


**Poesia: B maila**


| | | |
|---|---|---|
| Urte zahar / Urte berri | *Maddi Murua Sarriegi* | 207 |
| Amets zapuztuen mundua | *Itziar Leturia Delfrade* | 213 |
| Poema bat momentuari | *Izar Azpiroz Iragorri* | 219 |
| Pausoak | *Alaine Agirre Garmendia* | 225 |
| Zenbat min | *Izar Azpiroz Iragorri* | 231 |

**Urruzunotarrak 1986-2006** . . . . . . . . 237

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketak hogeita bat urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Laurehundik gora dira dagoeneko horrelako «titulua» lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu

zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea «saiatu berriro», eta topiko erdiarekin nahikoa da «saiatu» besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Castillo Suarez
Xabier Etxaniz
Yolanda Arrieta
Miren Agur Meabe
Josu Lartategi

Gogoeta moduan aipatu nahi dugu epaimahi honen osaeran emakumezkoak gehiago direla gizonezkoak baino. Horrek, dudarik gabe, zer esan nabaria du. Parte-hartzaileen artean ere neskak nabarmen dira mutilen aldean (272 neskak eta 138 mutilak). Euskal letretan eta oro har euskal gizartean emakumeak azken urte hauetan egiten ari diren ibilbidearen seinale garbiak, dudarik gabe.

Parte-hartzeari dagokionez, 2006. urte honetan 440 lan jaso dira: A mailan 127 prosan eta 70 poesian; B mailan, berriz, 178 hitz lauz eta 65 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin

ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

– Irailean 10 egun inguruko bidaia (Lituania, Estonia, Letoniara).
– Bidaia-poltsa norbere gastuetarako: 250 €.
– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.
  Liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Bermeoko Arozena-Barrueta institutuari eta Pasaiako Pasaia-Lezoko lizeoari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2006ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Castillo Suarezi.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna

zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# ARRISKUAREN POETIKA

Castillo Suarez

Nik uste dut harrotasun puntu bat daukagula idazten dugunok.

Akordatzen naiz zirkua gure amaren herrira iritsi zenekoa. Udako goiz hartan bizikletak hartu eta kalera irten genuenerako, kaleak afixaz beteta zeuden: *5 Kontinenteetako Zirkua* heldu zen. *Esclavas de María* ikastetxeko sarreran jarri zuten karpa borobila —mojei grazia handia egin ez ziena, bestalde—. Abisua pasa ziguten arratsaldean desfilea egingo zutela zirkukoek kaleetan barrena, baina eguerdian euria hasi zuen, eta hiru egunetan egin zuen euria jarraian.

Eta luzea egin zitzaigun ostegunetik iganderako tartea. Azkenik, igandean, eguzkia atera zen, eta gure izeba Sagrariok eraman gintuen zirkura. Egun hartatik, ez naiz akordatzen emakume bizardunik ote zen, pailazoak barregarriak ziren ala ez, zein animalia atera zituzten pistara… Ni trapezistarekin akordatzen naiz bakarrik: Dimitri Prokolev, alegia, Asia kontinenteko trapezistarik onena. Mundu osoan famatua.

Prokolevek trapezio batetik bestera egiten zuen jauzi, serio eta aldi berean ziur. Hala ere, tarteka bazirudien oreka galduko zuela —nik uste hori ere entseatzen zuela—, eta sa-

rera eroriko zela. Baina ez zen erortzen. Oreka berreskuratzen zuen, eta, guk, orduan, isiltasuna urratu eta *oh!* esaten genuen, denek batera. Karpan geunden guztiok hari begira egon ginen, arreta handiz, saioa bukatu zuen arte.

Etxera bueltatu ginenean esan nion amari trapezista izan nahi nuela handitzen nintzenean. Eta gure amak, harrituta begira, zergatia galdetu zidan. *Trapezistak dena ikus dezakeelako trapeziotik*, esan nion nik, munduko gauzarik inozoena galdetu izan balidate bezala. Galdera txatxua iruditu zitzaidan, ezbairik gabe. Baina ez, nik nahi nuena zen jendeak niri begiratzea, nik egiten nuenari —noski, besteek ikusten ez zituzten gauzak ikusteak ere ilusio ikaragarria egiten zidan, zertarako ukatu.

Nik uste dut harrotasun izpi bat daukagula idazten dugunok, trapezistek bezala, jendearen arreta piztu nahi dugulako, alegia gustuko dugulako arreta puntuan egotea. Ikuskizunaren erdian. Izan ere, literatura, trapezioa bezala, arriskuaren artea da. Eta arriskua beti da erakargarria: bai arriskuan jartzen denarentzat, bai eta ikusle-irakurlearentzat ere. Bientzat ere arriskutsua da. Eta merezi du arriskuan jartzea.

Arriskua beti da erakargarria, baina ez arrisku fisikoa, jauzi hirukoitz mortala egin baino lehen zirkuko aurkezleak *are zailagoa!* esaten zutenean sentitzen genuena, eta isilik egotera behartzen gintuena. Misteriotsuena eta, alde horretatik, txundigarriena zen, nola liteke, bi trapezio xumerekin bakarrik, halako ikuskizun zoragarria egitea. Eta hitzekin berdin pasatzen da. Misterio bat da nola idatz ditzakegun hitzekin, lehengai ez-kaltegarri honekin, horren gauza sarkorrak. Nola balio dezaketen hitz berberek, kokatuta dauden moduaren arabera, oinazerik handiena edota irri murrikarik goxoena sortzeko.

Castillo Suárez
(2006ko martxoan)

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Amorioen bazca

Asier Artola San Miguel
Usabalgo Laskorain ikastola
Tolosa

Ene iaun eta maisu Agosti d'Etcheverry Sarako erretorra, Jincoaren gracia bedi zurequin:

Frango urthe azkenecotz icusi guinela, menditto galdu haien hegaletan, eta biziqui estimatua içanen duzu carta hunen jasotzia. Arraro ediren duzu aguian, baina badut cer erraiteco eta cer condatzeco. Enseatuco naiz hitz egoquienac erabiltzerat, sosegua dizut escatzen gutunari equin aurretic. Maisu-icasle relacione harren baitarik jaiotaco laguntasuna gibelerat erranen ditudanequin eztedila ordea perilos eta puskacor bilacatu, eztedila cirioaren su epela bezin fite iraunguitu. Desencusatzen naiz ez egintza malicios edo cruelik eguin ala eguinen dudalacotz, zure baithan eritasunic sor leçaqueelaco baicen. Eta deliberatu dut aithortu beharrean nagoela zuri ene eguintza hau, besteren ahotic ene bekhatoretza acheman baino lehen. Oracione bat escatcen dizut ene animaren alde.

Aitzitic, oroithu nahi nituzque duela frango urthe haietaric ditudan pentsu goxo hec. Guiristinotasunaren bidean ukhan cintudan maisu; bistaratu cenidan Jincoaren hitza, Jesuschristen bicipenac, Spiritu Sainduaren loria; contseillatu ninduzun Trinidade Sainduaren ulerpenean; orenetan

eta orenetan trabaillatu ninduzun guiristinotasunaren içaqueran, moralean eta ontasunean, anaitasunean eta urcoaren laguntzan, eta mezu bacar bat nuen aterea hunetatic guztitic. Mezua sinple eta bacun iritziko duzu hogoi urthe seminarioan icasle egonarentzaco soilegui eta ttipiegui, baina menditto galdu haien hegaletan erraiten cenidan moldean, hitzic ttipienac, ñimiñoetan ñimiñoenac ere, içanen du bere lecua parabisuan, Jincoaren errana conplitu duen nehorc izanen duen beçala. Eta hitz hori da amorioa.

Lehen leitzerat deliberatuco duzu gaixqui, eta itsutuco çaitu hitzac berac soilic; berriro ere escatzen dizut erabil deçazun arrazoina eta misericordios içan citecen ene juzcuan. Jaunac da errana maitatu behar dugula oro eta içan onbera eta amoltsu, eta Saint Agustinec erraiten moduan Jaunarengan behar dugu amorioric handiena, manamenduec escatzen diguten moldean. Bide hortaric equin nion giristinotasunari eta zu içan cintudan bidaide, aldapa latzetan sorbalda, mendi picoetan soinadar, eta garaitu genuen igo beharreco mendiaren magala, icerdi eta negar artian. Icusi nuelaic Jincoaren gracia lore ttipietan, errecaxto bihurrien hunat-haratetan, cattagorrien lasterca naturaletan, conturatu nintzen benetan handia içan behar duela Ceruetaco Erregeac eta bere escutic (ez dut ulertzen nondic bestela) iritsi citzaigula berac sortua den oro maitatzeco eta adoratzeco poderioa, bere obra eta artelan izanqui.

Içaiten duzunean Renato Des Cartesen *Discours de la mèthode pour bien conduire sa raison, et chercher la vèrite dan les sciences. Plus la Dioptrique, les Mètèoros et la Gèometrie, qui sont des essais de cettre mèthode* leitzeco parada, escritoreac garbi eta apropos erraiten duen moldean ulertuco duzu nola den nahitaezco Jincoak guregan bere idea paratu ukhana eta ateratzen dut conclusionea amorioa

ere, besteren artian, berac içan beharco zuela bertan ipini. Berac egin gintu bertze basatien gainetic eta amorioa eçarri cigun orotatic berizgarri, gauça jaquina baita ez catuec eta ez ximinoek ere ian eta edatetic at guchi dutela eguiten.

Castidadea, xirotasuna eta obedentzia nituen bototzat hartuac egun saindu hartan eta damuric ez badut ere, niri çait irudico castidadea eta amorioa direla bateragarri, ura eta olioa salda beroan becinbat, eta amorioaren concepcionea ez dela haragiqueriaren maliziosqueriarequin nahastu behar. Are guehiago, erranen nuque behar-beharrezco dugula amorioa haraguitic banantzea, ecin litequeelaco içan horren gauz noble eta jincotiarra, Jincoac gure barrenaren erro betean paratua, haraguiaren lagunurco eta quide. Menditto galdu haien hegaletan erraiten cenidan moldean berretsico nuque haraguiaren eta animaren separacionea, ecin bait leçaque horren gauça puru eta garbiak lujuria gaxtoaren eta maliciosaren senitarteco ukhan.

Eta honela bada, deliberatu dut maitetasuna eta amorioa dugunean Jincoaren creacionearengatic sentitzen ecin duela içan creacio lurtiar eta finituarengatic, beren barnean gordetzen duten *cera* jincotiar horregaitic baicen, ecen Jinco ahalguztidunac sorturico badira (eta ez dut çalantza izpietan izpiena ere eguiten) içanen baitute bere ahalmenaren hondarren bat, aurrerat-atzerat dabilen itsasoak area cikuan errestoa uzten duen beçala. Hontatic guztitic atera nuen conclusionea maite dugunean cerbait ez dugula materialzqui maitatzen, animaren edertasuna dugu gure beguien aurrean.

Erranen duzu cergatic hainbesteco hitz eta solas hutsal ene eguintza condatzeco, eta ideia xaloren bat içanen duzu buruan, inozoqueria banandu cen egunean urrun baitzenbil-

tzan. Condaquizunera achiquiz erranen dizut onar deçazula ene eguintza, gaztearen inozotasun (edo inozokeria?)ren fruitu beçala, eta barca naçazula sabelean mugimendu bat edo guehiago eraguiten badizquizu.

Ene condaquizuna Bescoitzen hasten da, ungi daquizun beçala ene erretoretzari equin nion lecuan bertan. Ez citzaidan costa guehiegui herriaren egoquitzerat; alboan içan nituen herritarren laguntza eta Jaunaren bedencacionea. Lehen meça egunean ere ez cen halaco descalabru eta anabasik sortu, eta lasaitasun osoz eguin nuen sermoiaren botatzia. Joben istorioa nien condatu eta açaldu, behin eta behin, nola guiristino cintzoac, charretic charrena eta oquer eta trascailenetik malurosoena jasotzen badu ere behar duela onartu, eta nola behar duen Jincoaren Hitza obeditu eta hala eguinaz guero lortuco duela harengatico laguntza eta salbacione eternoa. Gustuco nunbait, hanca honarequin hasi nuen ene eguinquizuna. Lasaitasuna beharco nuela eta erran cidaten utz ahal nezaqueela euren bekhatuen confesionea beste bateraco, lasai eta buruargui, Jincoaren barcacioa eman nieçaien, nire sosegatzeco; hala içan balitz hobe içanen nuqueen, buruhauste frango besteric ez baicidan ecarria berequin.

Asteco lehenarenarequin baterat hurbildu ciren ardiac, confesio lecutic igaro gabeco egun harc halaco urduritasun eta beldur bat ecarri içan balie beçala. “Ene onerako” han nitu baserritar eta bestelaco cerrendak eta cerrendak, inguruco behi gaixoen bazca lecuak inbadituz, pixtia gaixoen harriduraracotz. Eta beticoa: pentsu gaxtoac eta lizunac, echeconecoari lapurquetac, auzoaren lurretan, tranpa gaxtoa eguinez, mugarria pare bat ezquer ala escuin alderat muguitu eta sorguin cruelei eguintza achiqui…Ave Maria sorta batequin erraz conpontzecoac.

Bainan ene egunen nahasteraco han açaldu cen dama bat, Jincoaren graciak auqueratua irudi, eta hurbildu citzaidan confesionean, bestec eguin beçala. Trascabilatzea ez zuen bere bekhatuaren aithortzeac ecarri ordea; ecinen nizuque erran ere cein içan cen bere eguintza gaxtoa, halaco creacione ederrac gaxtaqueriaric eguin balezaque behinik-behin, ecen ene belarriec jasan zuten halaco gorreria bat, ene centzuek halaco lausotze apal bat, ecin içan nuelaic cer erran eta cer condatu cidan ulertzeric; begiac nituen soilic beretzat. Eta pensatuco duzu aitzinetic erran dizudan oro amorioari eta maitasunari buruzcoa ez nuela conplitu momentu hunetan eta erranen dizut arrazoina duzula eta aguian, hainbertze confesione entzun ondoren, Deabruac zuela icusico ahuldade punttuan nintzela aurquitzen eta ni herritic botatzeco molderic hobena içango zuela ni dama haren içate materialeaz enamoratzerat. Halaber, conturatu nintzen guchirat hunela ez cela.

Menditto galdu haien hegaletan erran cenidan behin sagar bat hartuta: "Icusten duc sagar hau? Bada, ichuraz edderra eta sabrosoa irudico zaic aguian, eta herrico inozoenac ere auqueratuco liquek bere bazcaraco, baina horretan bertanche datza haren inozotasunac,gauçak diren becelaco ez icusteac." Eta maquila hartuta apurtu cenuen haitz baten gainean jarriric eta icustaraci cenidan sagar hura cegoela har-joa eta hitsa eta conprenituaraci cenidan ichuraren maliciosqueria eta Deabruaren gaixtaqueria. "Oroit eçac, Parabisuco sagarric edderrenac eta sabrosoenac ere cein gaixtaqueria zuen ezcutatzen eta cein gaztigu cion ecarri humanidadeari". Amen.

Oracionez beterico gauac nituen igaro, bekhatu eta gaixtaqueritic ahalbeste urrun nendin, eta Jincoari galdetu eta galdetu içan nuen pensua saindu ez gutti içan cirela

mezu baten jasotzaile eta hec halabeharrez liburuqui sainduco pasarte hura aurquitu beçala nic ere behar nuela hura eguin, eta barcamena escatzen badizut ere sacrileguio hura burutzeagaitic, eguin nuen Bibliaren hartzea eta airerat bota, ea lurrerat jaustean nundic irequia agertuco ete cen. Eta zure eritziraco aguian pasarte calamidadea citzaidan agertua baina Jincoaren nahia ez du nehorc aldatu mundua mundu denetic eta orduan ere Jincoaren nahia bete ote cen sentipena dut. Conduak condu, irequi cen bada liburu "gaxtoa", zure barcamenarekin, ene calteraco (haseran behintzat) hala içan baicen eta, Pauloren gutun saindu hartan.

Hala cioen Pauloc erromatarrei igorritaco gutunean:

*Maitasuna legearen muina.*

*Ez eduqui zorric inorequin, elcar maitatzecoa baicen, ceren lagun hurcoa maite duenac betea baitu legea. Içan ere, harako* Ez eguin adulterioric, ez hil nehor, ez ostu, ez guticiatu *eta bertze edocein manamendu, esaldi hunetan biltzen da:* Maitatu lagun hurcoa ceure burua beçala. *Lagun hurcoa maite duenac ez dio gaitzik eguiten. Maite duenac, beraz, erabat betetzen du legea.*

Lehendic dama hargatic urrunerat joaiteco gogoa nuelaic, ez cidan guehiegui lagundu pasarteac. Honela ba, içan nuen pensua egun hartaric gibelerat cio ala aitzequiaren bat behar nuela pensatu dama harren confesionea alde baterat utzteco eta luçamendutan ibiltzeari equiteco. Bururatu citzaidan osasun caxcalecoa nintzela erraitea eta herrico lecaime bati escatzerat ea lagunduco cidan ba ene lanean eta berac confesa citzala nexcak eta nic muticoac. Hala hitzarturic deliberatu nuen arazoarequin nuela amaitu

eta behin beticotz lujuriaren sugue cruelari burua çanpatu niola, bainan sugueak ere içaten du horzcada ezpada eztena, eta aurretic emaiten nion bitartian enintzen conduratu isatsarequin içan nintzela ciztatua.

Diote, eta erranak erran legendatik ere aphurren bat içanen du, Polo'tar Marco italianoa jin cenean Chinarat bortzehun bat marinelequin joana içanqui itzuli cela haien erdiequin. Içan ere, marinelei citzaien ophioa guxtatu alajaina eta etcheraco bueltan, bizpahiru egunetara edo hasi cirela erotzen eta ecinegon handian eta bota cirela itsasorat Chinarat itzultzeco, ophioaren dastatzerat eta behin itzuliric erre zutela gehiegui eta cerebroa lehertu. Eta ikhus deçakezun moldean istoriotic baldin badu ere historiatic baino guehiago uler deçakezu erran nahi dudana. Enetzat, amoros egoitea eta ene "ophioa ez dastatzea" bilacatu citzaidan inpernu eta hasi nintcen erotzen eta itsasoric ukhan banu botaco nintzelaic itsasorat ene damearen icusteco. Norbitec da errana amorioa dela droga, falta denian calte eta gehiegui denean baitare. Halaco cehocer, beldurra nu ene damea galtzeco bainan baitare gehieguiqueria gaxtoan erorita ene cerebroa, marinel "enamoratu" hei beçala chiquimila pusqueta eguiteco.

Halaxe ba, erran nion ba lecaimeari jada sendo nintcela trabailluari equiteco eta berac segui ceçala bere laboreetan eta orazinoetan eta berac esquer oneco eta alai gustura alde eguin zu etorritaco bidetic. Erremedioa gaitza bainon caxcarrago eritziric berriro ere itzuli nintcen aintzineco situacionera, sugueak coxca eguinaz isatsari infinitasunaren adierazgarri, lehendic ciztatu ninduen sugue madaricatua, eta pozoina barne-barneraino sartu cidan gainera, Bescoitzeco damaric edderrenac, bere urrupatarequin ere ez ateratzeco moduraino, baicic eta

barnerago bultza. Eta deliberatu nuen suguea ez ote cen içango ene bihotzetaco dama bera; Bescoitzeco merinoaren emaztequi xarmanta.

* * *

Menditto galdu haien hegaletan eguinac guenituen hainbat eta hainbat gogoeta eta pensu filosofico eta besteren artean deliberatu guenuen enseatu behar guinela escuararen idazterat. Oroitcen dut nolan hasi guinen Liburu Sainduco çatiren baten idazterat eta gueratuac guinela egun batian bioc elcartzeco eta ea cein diferentcia eta antcecotasun aurquituco. Hala ba elcartu guinen eta aurquitu guinen cirudiela bacochac eguina zuela bertze hizcuntza baten idaztea, içan ere, erraça bacen ere hitz eguiterat çailago eta buruco min ascoren sorle escuararen interpretacionea eta transcripcionea. Etchea, etxea edota echea idatzi guenituen hitz berarendaco, edota ez cion, etzion eta etcion, amaieric gabeco cirimolan sarturic. Conduratuco cinen beçala ez cit niri ere erraça eguin gutun hunen idaztia erabili baititut hitz berac idazteco molde eta erizpide ezberdinac, edota momentuan ocurritcen citzaidana legue orocorren falta cela eta.

Bada gauça bera gertatcen çaio personari mundua beguiratcean. Aguian condatu berri dizudanac zuri sortu dizu malura eta pesadumbrea bainan eni poça eta aleguerratasuna erein cidan bihotzaren barne-barrenean. Interpretacionearen relatibotasuna içanen da beraz; guiristinotasunaren manamenduen interpretacionearen relatibotasuna, eguin baititut Bibliarendaco gaixtaqueri eta alprojaqueritzat diren gauça frango, bainan ecer charric eguin dudalaic etzait irudico eta guiristino sentitcen bitut ene burua. Hi-

tzaurrecho hau, batez ere, acaso guibelerat datocen eguintzec eguinen dizutelaco min handien eta saconen.

*   *   *

Luçamendutan ez ibiltceco eta muinera lehenbaitlehen jiteco erranen dizut laburqui eta arinqui confesionetic confesionera piztu cela gure artian confidantza bat eta conduratu nintcelaic nescacha harc cituela gogoco Platon eta Aristotele eta beste hinbat eta hinbat filosof clasico hasi guinela eleiçatic canpo topatcen eta aintzina aipatu dizudan aciendaren bazcalecu inbadituan, eguzquiaren izpien goxotasunean, conbersacione ez gutti içan guenituela. Debatitu guenuen arimaz eta giçarteaz eta jaquintzaz eta frango gaietaz eta iritsi guinen amorioarena uquitzerat ere. Eta berac erran cidan hobe zuela confesionean erran erran beharrecoa eta nic erran nion Jincoa lecu guztietan içanic han ere bacela eta erraiteco bere bekhatua eta emango niola barcacionea eta condatu cidan bere istorioa eta nola Bescoitzeco merinoak zuen jotzen eta jotzen pensua galdu arte arrazoinic gabe eta nic erran nion hala bacen enseatuco nintcela merinoarequin hitz eguiterat eta besarcada handi bat eman cidan esquer ona eta Jincoaren gracia opatuz. Aguian icusi guintu nehorc, guehienerat behien batec bere bazcaren hausnarrean, binan enetzat denbora cen gelditua, Jaunac emana cidan auquera behin içango eta hartaxez disfrutatceco eta nic ere gogor heldu nion eta ungui ukhan nuen dastatua, geldiro eta tranquiltasun osoaz, eni beguira cegoen behiak beçala, ene amorioaren bazca.

Merinoarequin luce eta zabal hitz eguin un, eta laburtceco erran cidana (bestela gutun hunen eramatia ecinen

du Errusiaco Çarraren sequitoac ere burutu) idea nagusia içan cen bazuela sospecha eta mesprezua norbait gogoco zuela bere esposatuac eta jaquiten banu erranen niola lehentbaitlehen erranez irten nintcen etchealderat.

Baserritar bati nion entzuna eta buruan ederqui dut paratua mereci ez duen urdeac doble pensu içaiten omen duela eta nic, ene xalotasunean hala jasoac nituen egun madaricatu hartan. Merinoac, inozotasun gutchirequin, bidalia zuen espiaren bat edo ene gibeletic eta conduratu cen nolan ni nintcen damearen amorantea (ezen jada amorante baiquinen) eta merinoa bera etorri citzaidan eleiçara, eta harridura cidan sortua, ez baitcen ohico, eta erran cidan nirequin hitz naizuela eguin eta irten nendin canporat.

Canpoan icusten nuen urduri eta escua bildu eta asca cebilquiela ezpataren heldulecuan eta conduratu nintcelaic cein ciren bere asmo gaixtoac eta anquerrac apurcho bat nintcen urrundua beragatic. Eta hasi citzaidan condatcen bere bici conpletoa eta nonbait ari cen hortan bere buruaren sosegatzeco eta ezpatari geroz eta lasaiquiago eusten eta erran nion itcharon ceçala apur bat, erremusinaren esquerat cirela etortcecoac cenbit xiro eta prestatu behar nuela eta sartu nintcen sacristirat.

Ulert ecinezco çait nundic açaldu citzaidan halaco balorea eta ausardia, baina eguinac eguinic daude. Atzo ihesa naiz Bescoitzetic ene damea lagun dudalaic eta han egongo da, eliçaren aurrean etzanda, Bescoitceco merinoa, buruan duelaic metraila, aurreco erretorrac sacristian utzirico escupetaz burua zulatua, bicia iraunguituric bertzeren bicia iraunguitu nahi zuelacotz. Tamalgarri deritzot amaierari bainan amorioa da halaco, eta amorioaz açalduricotic ez dut uste irten nicenic ene eguintzetan.

Irudico duzu ene bekhatuaren zuritzeko bidaltcen dizudala gutun hau bainan anima trankil dut. Jincoac sorturico anima edder baten maitasuna defendatzea ez al da bada guiristinoaren beharra? Halan utzi behar nuen merinoarenean arima usteltcen eta agortcen, sufricarioz betetcen bere anima? Cruçadetan apecek hilac cituzten gaxto asco, Jincoaren condraco cirelaic. Ez al dut halan eguin ba? Maitasunaren eta amorioaren defensa ez al da ba, ene iaun eta maisu Agosti, Jincoaren defensa?

Gibeletic içanen ditugu jada Inquisicione Saindua eta ez badia ungi daquit zuk abixtuac içanen direla, horregaitic gutun hunetan ez duzu ez lecu eta ez egunic aurquituco. Bidaliac içango cizquigu çaldunac eta Erregueren guizonac binan badugu haicea gure alde eta amorioaren hegoec gituzte bultzatuco eta corrica eta trastabilaca iritsiren gara menditto galduren baten hegalera, gure amorioaren tenplu bat eraiquitceco.

Oracione bat ene alde,
Jincoac bedeinca çaitzala,

Joannes Eguileor, *Lau-Urdico amorostua*

# Espejismoak bigarren mailako errepideetan

Ander Ceña Setien
Larramendi ikastola
Andoain

*"How many roads must a man walk down*
*before you call him a man?*
*How many seas must a white dove sail*
*before she sleeps in the sand?"*

*Blowing in the wind*, Bob DYLAN

Zomorro bat gehiago kiskali da piztu berria den farolaren bonbillan. Hasperen garratz batek bere hegaldi iragankorra errauts bilakatu du, eta jada euli bat gutxiago ari da hegaka aire epelak kiribiltzen duen erretenean, haizerik gabeko eguratsean esekita. Biraka jarduten dute minutuek, heriotzaren kondenatik hanka egin nahian, baina ez dira ohartzen ihes egitea itzultzeko modu bat besterik ez dela, eta hala amaitzen dute beren existentzia, ezereza argitzeko jaioak diren farola bakanetan, eguzkia ikusmugaren atzean ezkutatzear dagoelarik ilargia azaldu zaiela uste dutelako. Zeinen inozoak diren zomorroak bere distiraren zuritasunaren tranpan jausten direnean, bere esentziarekin horditu nahian utopiaren izpi inausleek akabatzen dituztenean. Bakarra agertzen da gauero zeruaren urdintasuna amatatuz, gaurkoan igitai itxura desagertzen zaiolarik nire ametsen kontzientzia hutsa errotik ebakitzearen tregoa baten guraz.

Farolak lurrerantz jaurtitzen duen argiaz kanpo, inguruak ez dit ezer berezirik erregalatzen, antzuak bihurtzen dira lurrak udarak bere baitan hartzen dituenean. Urrunean, jada ilundua dagoen mendilerroaren siluetak eguzki goritua ezkutatu nahi du bere gibelean, eta sasiek han-hemenka zipriztintzen dute tindu laranjekin jantzi den lantzarra. Argindar posteek marrazkilari batek trazaturiko parabola baten itxura berberaz zeharkatzen dute eremua, inguruetako herrixketara bideratuz. Metro batzuetara, neoizko argien intermitentziaren bidez argitua, lurretik lore zimel baten antzera hazia dirudien gasolindegia dago, ahanzturaren gatibu bilakatua. Isurkin pare batek gasolinaz zikindu dute bertako zorua, eta auto bakar bat ageri da eraikinaren aurrealdean, negozioa daramanarena ziur asko. Amaraunez betetako errotuluak *Austin Oil Company* dio letra urdinetan, inguru idor haietatik iragan eta automobila erregaiz hornitzea beharrezko zaion norbaiti harrera egin nahian. Haatik, diosal gutxi agortu ditu bere bakardadean, eta hitzak errai herdoiletan trabatzen zaizkio, gasolindegiko pareta zartatuak jasotzen dituelarik bere kortesiak. *Welcome to Texas*, *drive friendly*. Azkar asko ohartzen dira gidariak mezuaren hipokresiaz, ongi etorriaren hutsalaz, eta azeleragailuari sakonki eragiten diote, bakartasunetik ospa eginez norabait iristeko. Norton motozikleta zaharrak, ordea, errepide bazterrean botata utzi nau, eta ameskeria hutsa bilakatu naiz, abandonaturik lautada ihartuaren mugagabetasunean. Koiote batek egin du ulu bat-batean, jaustear dagoen gauari agurra egin nahian.

Harri txintxarretan eserita, ezker-eskuin so egiten diot nire aurrean zabaltzen den errepideari, urruntasunean lausotuz. Pneumatiko arrastoz zikindutako asfaltoa milaka kilometrotan luzatuko da nire bidaia aurrera egiten dudan heinean, lurrari orbainak irekitzen dizkiolarik eta suge

iheskor batean bilakatzen delarik amerikar orografiaren bihurguneetan. Amaierarik gabe, infinitua. Errepideek ez dutelako ez jaiotzerik ez erailketarik, ez direlako itsasora amiltzen itsaslabarretan behera, behe-lainoak ez dituelako bere belztasunak betirako zirriborratzen. Nire imajinazioan bere adarkadurak arakatzen ditut, eskaintzen dizkidan posibilitate anitzetan galduz, azken finean eraikitzen duen munduaren parte bilakatuz. Infinitua, amaierarik ez duelako, nire barneko bidaiari autostopisten antzera.

Asfaltozko bideen begitaziotik esnatu nahian-edo, bi begi agertu dira nire begirada bistaratzera heltzen den mutur batean. Auto bat, gau horretan bertatik igaroko den bakarretakoa, ziurrenik. Bizkar-zorrotik errotulagailuz izkiriatuta "Houston" jartzen duen kartoi zati bat atera dut, nire patua lehenagotik jakingo banu bezala Oklahomatik irtetean egindakoa. Kale kantoietan noraezean aukera baten bila dabilen zakur bat sentitu naizelarik, nire helmuga magalean jarri eta ukabila gorputzaren erdi parean kokatu ondoren, hatz lodia nabarmendu da nire soslai ospelaren artetik. Balaztatzen hasi da astiro, aurreko argiak bistararazi nauten bitartean. Begi-niniak bat-bateko argitasunera ohitzen doazen heinean, zeharo gelditu da Rover zuria nire parean. Ziurgabetasun sentsazio batek barrenak mugiarazi dizkit, adrenalina askatzen ari da nire arterietan. Leihoa jaisten hasi da pixkanaka, ilunabarraren isiluneak betetzen dituen ezaguna zaidan melodia bati alde egiten lagaz, eta bisaia belun bat utzi du agerian zirrikituak. Ile kizkurreko gizon bat, heldua, ezpainen artean zigarro bat sostengatuz.

"Houstonera hoa?"

"Ez, Dallasen zeukaat egitekoa, eramango haut haraino. Gero handik zeozer aurkituko duk bertara joateko.

Gauak luzeak dituk, eta hire hitzak beharko ditiat esna mantentzeko. Igo hadi.” Bere ahotsaren lakartasunak dardara egiten du bion arteko distantzian, zigarroari gora eta behera eragiten dion bitartean. Ez diot susmo txarra hartzen tipoari, beste irtenbiderik ez dut, arriskatzea da autostopiston gakoa. *Drive friendly*.

“Ongi zegok, estimatzen diat hire eskaintza.”

Atea ireki eta gidakidearen eserlekuan jarri naiz. Autoaren barrenean egurats lauso bat da nagusi, eta Bob Dylanen kalezakur ahotsa kanporatzen du irrati zaharkituak, akorde bakoitzaren esentzian galduz. Tony omen da bere izena, eta gertutasunean ikusi ahal izan ditut masailezurra estaltzen dion bizarra eta aurpegian gailentzen zaion sudurra. Gizon zuhurra dirudi, beharrezkoak diren hitzak soilik erabiliz era patxadatsuan egiten du berba, musikaren melodia bolanteari ematen dizkion kolpe leunekin jarraituz. Dallaseko taberna-zulo batera doa gitarra jotzeko asmotan, sos batzuk lortzearren, kaleetan musika musu-truk emateaz gogaitua. *With no direction home*. Malenkonia kutsu bat gordetzen dute bere hitzek, iraganak bere erraietan kateatu izan balitu bezala, bere sustraietan erail. Winston pakete batek hartzen du atseden aurreko aldean, kaseteen artean ostendua. Bat hartzeko baimena eskatu diot, bere begi ñimiñoekin baiezkoa erantzun didalarik. Banuen nikotina pixka baten premia, aspaldi agortu baitzitzaidan azkeneko tabako kutxatila. Poltsikoan gordetzen nituen pospoloetako baten sugarrarekin iziotu, eta zigarroak lehendabizi okatutako ke kiribilen artean irazi da errepidea, bere amaigabetasunarekin horditzen dituelarik nire sentipenak asfaltoaren aurka igurtziz. Irrati uhinek, beren gaueroko exodoan aurrera jarraitzen dute, edozein begitazio, oihartzunik txikiena ere, bide bazterrean utziz. *Like a rolling stone*.

Irratiak etengabe musika ekoizten jarraitu du gau osoan, errepidearen asfaltoan hazten ziren lore beltzak jaso eta beren izaerari galdezka hostokatzen nituen bitartean. Izan ere, gurpilaren bira bakoitzean ilusioen haziak ereiten dira, eta segundoak ordu eta orduak segundo bilakatzen dira autoaren barnean. Hortaz, ez dakit noiz amatatu dudan azken zigarroa, noiz esnatu naizen nire lozorrotik, noiz eten den Bob Dylanen ahotsa interferentzietan, baina egunak asaldatu digu bere izpi berrituekin gure ibilaldi etereoan. Dallasera iritsi baino lehen bide bazterrean gelditu gara, atsedenleku deslai batean. Errepidearen periferietan, bere linealtasunaren aldirietan arima erratuen gordeleku, LSDaren bidaia igaro eta lur hartu nahi dutenena, ametsen bazka bilakatu eta ameslari ustel bilakatu direnena, homosexualena, beren amek antisorgailu ilegalak hartzeagatik desitxuratuta jaio direnena, bere hilondoko mezuak komunen ateetan aizto kamutsekin zizelkatzen dituztenena. Gizartearen borrero bilakatuak gainbeheraren edenean, mundutik urrun. Zaldia gure zainetan lauhazkarazi dugu goizeko gosea itzaltzeko, eta berriz ere errepidera atera gara, gure atmosferan sarturik, gure utopian, bere irrealtasunaren jabe garelako. Agian, noizbait gurearen jabe izango gara.

Tonyk utzi nau jada, bere ermitau eitea Dallaseko kaleetan zehar galdu da eta, berriz ere, bakarrik nago bide bazterrean, burdelak eta motelak nagusi diren horietako batean. Itsusia da egunez Dallas, eguzkiak bere lotsak agerian uzten ditu eta izaera estoldetan behera jausten zaio. Gauez ordea, neoizko argia nagusitzen da kantoi guztietan eta jendea grinen erakargarritasunean erortzen da, sexuaz eta drogaz kirastutako tranpa bat izango balitz bezala. Hala eta guztiz ere, ezinegonaren sareak gizartea harrapatu du eraso trebe batez, Luther Kingen hitzak isildu egin direlako, Viet-

namen napalmak ura ordezkatu duelako euri zaparradetan, azalaren tonuek giza eskubideak erabakitzen dituztelako. Oro har, kirats ustela edonon zabaltzen ari delako. Horregatik nahiago ditut errepideak erditzen dituen loreengatik, abandonaturik uzten dituen xiringengatik, bere faroletan erailtzen dituen euliengatik. Kimera hutsa delako, eta ni bertako partaide. Emagaldu bati eskatutako zigarro bat labaindu da ezpainen artean. Ez da Winston, baina zeharrargitasun berberaz eskainiko dizkit nire inguruko kimeren irudiak, arrastiri berri batean bere lorategi debekatuaren usainekin txolintzen nauen bitartean.

Gauak berriz ere estali nau mantu itsuarekin, nire kontzientziaren bazterrak itaundu nahian bere eguneroko anbiguotasunarekin elkar egiteko. Zenitean, ilargiaren soin biribilak argitasunez janzten du guztia eguzkiari lapurtutako errainuak boteaz. Marfilezko distira, deskriba ezinezko fantasien distira nire barrenak argiztatuz. Bere zirkunferentziaren perfektutasuna zedarrituz, gauaren zurrumurruaren kadentziaz kartografiatu ditut gorabeherak erretinaren sakontasunean. Gurpil zuri bat nire konortearen motorrarekin bat eginez. Janis. Orduan oroitu naiz zure bisaiaren zurbiltasunaz, zure begien dirdiraz eta ezpainen umeltasunaz, zure ezkutuko aldetik ihes egiten duten doinuetaz, jada oxidatu diren trangadun ariman preso egoteaz nazkaturik. Liluratu nauzu zure ezkutapenekin, erein ditut desiraren haziak zure gainazal idorretan, asmatu dut zure zuritasunaren gama kromatikoa, eta hondoratu naiz eskaintzen dizkidazun zurrunbilo psikotropikoetan zure begietarako autoa hartu nahian. *A fool man in a full moon*. Betiereko luzaraziz gure sinbiosia, ezerk ez dezan zapuztu gure berezko mundua. Houstonen topatuko zaitut, agian, kale kantoietako zuloetan eztarria larrutuz, edota San Franciscon ma-

rihuana-kearen burbuilan barneratuz, amesten duzun munduaren nirvana atzeman nahian nire eguneroko odisean Itaka bihurtzen zaren bitartean. Telebistan hurbila dirudizu, ahotsa pantailako koloreen psikodeliarekin nahasten zaizunean, baina gaur gure arteko bertikaltasuna eskalatzera behartua ikusi naiz. Janis Joplin, hamaika sentipen zure hizkien osotasunean, zure ziztada mikatzen gerizpean, limoi-urez blaiturik.

"Hi! Zer ari haiz? Aingeru Guardakoaren zain ala?" Emakume ahots zakar batek iratzarri nau murgilduta nenbilen imajinazioetatik. Makillaje eta unadura maskara baten atzean karminez zikindutako irria eskaini dit, auto zaharkitu baterantz bideratzen dituelarik bere pausuak. Takoidun zapatek zehazki doitutako hotsak egiten dituzte kaleko axuleiuen aurka, eta oszilazio berberaz mugiarazten ditu aldakak, adats beltzaran nahasia bizkarretik behera ur-jauzi baten antzera amiltzen zaion bitartean. Aurpegiera exotikoa badu ere, bizierak edertasuna uneoro lapurtzen diola dirudi. Ondoko burdeleko emagaldu bat izango da ziur aski, zenbait gizon lizunen premiak ase eta handik joateko gogoz.

"Gaur zerua polita zegok. Nahiago diat ilargiari so egin, inguruko ustelkeriaren artean nahastu baino." Buruari gora eta behera egin dio, ulerkortasun keinu bat egin nahian.

"Arrazoi duk, nahiko gaizki zebiltzak gauzak azkenaldian. Kennedy hemen hil zutenetik ezer ez dik hobetu, baina biziraun besterik ezin diagu egin, ze erremedio!" Berriz egin du barre, zigarro bat iziotu duelarik bisaia argiaraziz. "Hor egon behar al duk gau guztia? Kontuz hemendik dabilen jendailarekin gero!"

“Ez zeukaat ezer egiteko, Houstonera joan nahi nian baina bide bazterrean botata gelditu nauk, noraezean.” Erruki keinu ironiko bat nabaritu zaio bat-batean begiradan, nire moduko gizabanakoekin aurkitzeaz ohituta egongo balitz bezala.

“Houstonera? Nik New Orleans-en zita bat zeukaat bihar gauean. Etorri hadi nirekin eta utziko haut nahi duan lekuan, ez haiz beti hemen geratuko.” Autoan sartu da mugimendu pinpirin batez, eta eserlekuan gelditu da zain, zigarroa amaitzen doan heinean zupadak ematen dizkion bitartean. Begirakune goibela hauteman diot nahiz eta aurpegia marratzen dioten zimur bakanek irribarrea oparitu, negozioa hanken artean edukitzeak sortzen duena, ziur aski. Bere eskaintza ezin diezaioket ukatu, nork daki zertan bilaka daitekeen etorkizuna hemen geratuko banintz. Baliteke nik neuk jakitea, errepidearen aldirietatik ihes egitea itzultzeko modu bat besterik ez delako, eta behin bizitakoa berriz ere errepika daitekeelako, akorde galkorrak etengabe gure kontzientzien hormen aurka suizidatzen dituzten biniloen antzera. Horregatik sartu nahiz auto zahar hartan, horregatik ekin diot berriz ere bidaiari, Dallasetik ihes egiteaz gainera, itzultzeko.

Ezin uka dezaket Julia gidari ona denik. Trebetasunez mugiarazten ditu soinekoaren azpitik nabaritzen zaizkion hanka ederrak azeleragailua zapaltzeko, eta bihurgune bakoitzean leunki eragiten dio bolanteari, errepideari zauririk ireki gabe aurrera egin nahiko balu bezala. Auto barruan, nahaspilaturik dago dena. Edari alkoholdunen botila hutsak, erabilitako koilarak eta eztainu-papera, antisorgailuak, barbiturikoak eta makillajea bistaratu ahal izan ditut kaosaren artean, baina ez dirudi Julia horregatik deseroso dagoenik. Zintasunez adierazten dit ideia bakoitza, eta su-

frimendua ezkutatzen saiatzen da tabakoak higatutako ahotsaren artean, bere errealitateaz jabetzea ekidin nahian beharbada. Motorearen zarata monotonoak irauten duen heinean, eraikin hitsak, lur eremu idorrak eta gizarteak ahaztu dituen herrixkak hausten dira autoko leihoan eltxoen antzera. Irratian Neil Young ari da kantatzen, bere gitarrarekin bidean gidatuz errepidearen utopian sartzen gaituelarik. *Harvest moon*, ilargiaren ugalkortasuna berriz ere beiran zehar iraziz, bere fantasiak barneratzen zaizkidalarik garunaren sakontasuneraino.

Goiztiria oldartu baino lehen bide bazterrean gelditu gara. Julia gidatzeaz nekaturik omen dago eta bere heroina dosia beharrezko zaio aurrera egiteko. Gainera, Houstonerako bidegurutzea nahiko gertu dago. Gure alboan, neoi gasa beirazko hodietan trabatuko kartel bat duen eraikina ageri da, motel bat, errepideetako bizilagunen lo insomniodunen gordeleku. Juliak, ordea, nahiago du auto barrenean hartu atseden, atzeko eserlekuetan, eta zaldia bere zainetan sartu duelarik soseguaren urmaeletan ari da igerian. Bere begi ilunek ezerezerantz egiten dute so, eta azala zurbildu egin zaio, portzelanazko andrakila baten hauskortasunez. Ezpainek lehortutako lore baten petaloak dirudite, eta bular biribilek gora eta behera egiten diote soinekoaren barnean, arnasaren konpas berberaz. Eskuarekin besoetako azala ferekatu diot, eta lepoa birarazi du pixka bat, bion soak topa daitezen. Hotz du larrua leihoaren zirrikitutik sartzen den egunsentiko airearengatik, eta bere gorputza eserlekuen osotasunean etzanarazi dut, gerritik sostengatuz. Horizontalean ipinita, kristalezko begirada batekin behatzen nauelarik, bere anatomia arakatu dut imajinazioaz baliatuz, puzzle bat izango balitz bezala gorputzaren piezak sortu eta elkartu nahian, nire grinen jolas. Zaldiak irudimen hori ostu

izan balitz bezala, asmamenetaz nazkatu eta soinekoa eranzteari ekin diot, hatz puntekin zoko guztiak leunki ukitzen ditudan bitartean. Ezpainekin dastatu nahi izan dut bere larruazal epela eta hasperen bareak musuekin amatatu dizkiot, mihiak lizunkeriaren zurrunbiloan sartzen diren bitartean. Biluzik gaudela, bion arteko igurzketan galdurik, titiburuen gogortasuna eta tapizeriaren talko usaina nabarituz, txotxongilo bihurtu gara estasiaren jabe. Gure hatsez mozkortuz autoaren egurats konprimatzailean. Larrutan egin dugu lizuntasunaren esklabotzat, intzirien erreberberazioan galduz gorpuen sakontasunean. Begirada leihotik harantz bideratzean, ilargia agertu zait berriro, mendien artean ezkutatu nahian gaua agortu zaiolako. Janis, berriz ere zure argitasuna nire kontzientzia hutsaren aurrean, berriz ere zure distira nire begi-ninietan zehar barneratuz zure jabe izateko. Leihoaren aurka isuri dut hazia, leihoaren aurka suizidatu dira zure zuritasunarekin bat egin nahi zuten itxaropen guztiak, zure ezohiko gainalderanzko autoa hartu nahi zuten autostopista guztiak. Haien artean iragan da zure biribiltasun galkorra ahituta dauden begietaraino. Hustuta.

Kanpora irten naiz, auto barneko opresioak zorabiatu bainau. Asfaltoaren gainean, farolak proiektatutako argiak nire silueta marrazten du, lurrari itsatsitako mamu bat bilakatuz. Irratiaren interferentziak etenda, Janisen ahotsa airea zeharkatzen duen uhin bilakatu da, ohiko zakartasunez jo dituelarik nire sentipenak. *I need a man to love*. Gizon bat zure gorputza taxutzeko, zure pozoi gozoarekin liluratzeko.

"Ba al dakik astronauta amerikarrak ilargira iritsi direla?" Sandraren hitz geldoak musikaren gainetik gailentzen saiatzen dira.

“Ez esan, Sandra! Ziur al hago?”

“Ez al haiz enteratu orain arte? Telebista guztietan agertu duk.”

“Tira, badirudi zenbait Ulisesek lortzen duela beren Itakara iristea.”

Erori naiz bere distiraren zuritasunaren tranpan, akabatu naute utopiaren izpi inausleek bere esentziarekin horditu nahian. Zomorro inozo baten antzera.

# Defuntu bat betikoz da

Miren Estibaliz Vivanco Ramirez
Botikazar institutua
Bilbo

Hainbeste maite zenuen pertsona hori hil zaizula? Pertsona hori zurekin batera egoten jarrai dezan nahi zenukeela? Ba, arazorik ez! Horrela bada,ez kezkatu: utzi haren errautsak René Andrée espezialistaren esku!

Ez nion batere penarik hartzen armairua irekitzen nuen bakoitzean bere arropak esekita ikusteari, ez eta nostalgia apurrik sentitu ordenadore ziztrin haren paretik pasatzerakoan. Hainbeste ordu eman zituen simulazio jokoari etengabe ekiten, zeharo biziaturik...

Hitz batez, Leopold Bloom, nire senarra izan zenaren heriotzak benetan hunkitu ez ninduelakoan nengoen, arrastiri madarikatu hartan bere gurasoek egin zidaten bisitak iritziz aldarazi ninduen arte.

– Opari bat ekarri dizugu, Molly maitea! –esan zidan Leopolden amak nire begiradarekin bat eginez, oinazeak zenbateraino bereganatzen ninduen aztertu nahian edo.

– Mila esker! –arrapostu nion guztiz nahastuta, nire senarra hil eta egun gutxira norbait opariekin agertzea zertara zetorren nire buruari galdetzen nion bitartean.

Bloom andereak harribitxi-gordailu bat luzatu zidanean, haren begiei distira berezia zeriela eta ezin izan zuela malko batek masailatik irristatzea ekidin nabaritu nuen. Kaxatxoa ireki ahala tripetan zurrunbilo batek egin zidan ihes: bertan, hilkutxan dagoen defuntu bat izango balitz legez, urre zurizko eraztun bat zegoen etzanik, urdin ospel koloreko diamante erraldoi batek koroatuta. Hankabesoetako ileak tentetzen sentitu nituen bi letra zizelkaturik zituela kargutu nintzenean: *L B*, nire senarra izan zenaren inizialak, hain zuzen ere.

– Poldy gurearen oroigarri bat zurekin eraman dezazula gura izan dugu –gaineratu zuen Bloom jaunak–. Molly, erreparatu al diozu diamantearen koloreari?

– Bai, nola ez! Urdin tonu zoragarria dauka –garrantzi handirik eman gabe erantzun nion, baina Bloom jaunak bere horretan jarraitzen zuen.

– Ba al dakizu gizakiok gorputzean Boroa daukagula eta diamanteen urdintasuna mineral honen kantitatearekin lotuta dagoela? –aditzera eman zidan misterioski.

– Isil zaitez, atorrante halakoa! –senarraren hitzak lazki moztu zituen Bloom andereak, zehar-begiratu susmagarria jaurtitzen ziolarik– Honekin esan nahi duguna da zuretzat beren beregi lortutako kolorea dela, munduan soila: Poldyren begirada urdin zoragarriaren modukoa.

Ez datorke gaizki gogoratzea nire senarra izan zenaren begirada ez zitzaidala inoiz zoragarria iruditu, ganduak dituen sugegorriarena bezain nazkagarria baizik. Edonola ere, nahigabeei gaina hartuta eta tipula malkoak isuriz, eraztuna atzamarrean sartu nuen. Baten batek pentsa lezake Bloom jaun-andereen bisita kontsolamendu gisa hartu nuela hein

batean; hala ere, Leopolden gurasoek nire etxebizitza utzi bezain pronto, eraztuna atzamarretik ateratzen saiatu nintzen nahas-mahas eta arrapaladan. Baina alferrik! Bitxi hark nire hatzean pega-pega eginda jarraitu zuen, senarraren heriotzaren kulpa-sentimenduak nire kontzientzian bezalaxe.

Supituki, eskuko telefonoak jo zuen. Aparatuaren beste aldean Stephen zegoen, lan egiten nuen "Daedalus" arte-galeriaren jabea.

– Kaixo maitea, zer moduz?

– Etsita nabil, Stephen, barrutik kaka eginda –erantzun nion erdi marmarka.

– Poliziak berriro deitu dizu ala? –galdetu zuen Stephenek kezkati.

– Ez, ez da hori. Leopolden gurasoek ustekabeko oroigarri bat ekarri didate, eta horren erruz burua galtzen ari naiz.

– Ez da ba hartarainokoa izango! –erantsi zuen ni lasaitzeko asmoz– Ongi baderitzozu, gera gaitezke afaltzeko. Biok-biotara egongo garen jatetxe xarmangarri bat ezagutzen dut; hor izango dugu kezkatzen zaituen horri buruz hitz egiteko aukera.

– Ongi da, Stephen.

Jatetxera joan aurretik, eraztuna kentzeko hamaika saio gauzatu nituen ostera eta ostera: eskuak xaboiarekin igurtzi, olioztatu, gantzutu.... Arrantzara larrera joatea bezalakoak izan ziren, ordea, zirgilo kakagurante hura atzamarretik erauzteko ahalegin guztiak. Bazirudien nire atzamarra zenbat eta gehiago hanpatu, eraztuna gero eta txikiagoa bihurtzen zela. Arte hartan, mila milioi biderrez madari-

katu nuen Stephen eta bioi Leopold sekulorum sekulotan satorren tartera bidaltzea bururatu zitzaigun zoritxarrezko eguna: ekainaren 16a, hain justu. Edonola ere, zertan engaina? Stephenekin larru-tratuan ibiltzen hasi nintzenetik, oztopoa besterik ez zen senarra. Bestalde, dena debalde aterako ez zitzaidalako susmo txarra nuen. Gaitzerdi eraztuna ezkerreko hatz luzean sartuta nuela! Horrela, gutxienez, eskua poltsikoan gordeta afaldu ahal izango nuke.

Luze gabe etxetik atera nintzen. Gogoan atxiki behar da kaleko jendeari deigarri geratzen nintzaiola, uda gorrian egonda ere, larruzko berokia aukeratzea besterik ez nuelako izan eskuari babesgunea bilatu nahian. Tarteka-marteka, ezkerreko eskuan eztenkada itzelak sentitzen nituen, baina ez nintzen eraztuna begiratzera ere ausartu. Dena den, Stephenen irudi sendoa jatetxeko sarreran begiztatu ahala, hobeto sentitu nintzen.

– Zertan dira gauzak orain, laztana? Ziri-mara ibili naiz arratsalde osoan zehar, nola egongo ote zinen nire buruari behin eta berriz galdetuz –esan zidan Stephenek goxo-goxo.

– Ez nahi bezain ondo –erantzun nion lasaitasun itxuratiz–. Stephen, sinesten al duzu arimen migrazioan?

Jantokiaren mahaian esku bakar eserita nintzela eta nire aurrean nituen ahogozagarriei men egin barik, Stepheni kontatzen hasi nintzaion buruan jiraka nerabilena. Sinetsita nengoen senarrak bizirik jarraitzen zuela eta bere gogoa objektu bat izatera igaro zela nolabait, nireganako mendekua hartzeko asmoz.

Stephen aho zabalik geratu zen harriduraren harriduraz.

– Zuk begitazioa egiten duzu, burutik eginda zaude! –hots egin zuen sinesgaitz– Zertaz ari zara?

Une hartan, artegatasunak janda, eraztunaren nondik norakoak kontatu nizkion, erantzi nuenetik nire barnean arraroa zen zerbait gertatzen ari zela, momentu oro norbait zelata egiten egongo balitzait bezala, diamante oztin horrek Leopolden begirada gogorarazten zidala eta oraindik txarragoa zena: eginahal guztiaz saiatuta ere, eraztun osti hura kentzeko formarik ez zegoela. Orain-orainean gogorturik sentitzen nuen eskua atera nuen patrikatik arnasari eutsiz, eta, erabakitasunez, mahai gainean jarri nuen. Sekula ahantziko ez dudan momentua izan zen hura. Nire ubelduriko eskuan eraztunak

inoiz baino gehiago egiten zuen dir-dir; hala ere, diamantearen koloreak ez zuen gehiago Leopolden begien urdina islatzen, baizik eta bere odolaren gorri biziarena!

Esate hutsak izutu egiten nau, baina kolore nardagarri hura ikusita, erraiak nahastu zitzaizkidan eta segituan konortea galdu nuen. Neure senera itzulitakoan etxeko ohean nengoen etzanda eta mesanotxean Stephenek utzitako ohar bat zegoen, plastikozko hodiska baten alboan:

“Laztana, denbora nahikotxo eman duzu ospitaleko larrialdietan korderik gabe. Esan barik doa “hainbeste maite zintuen eraztuna” kutxan sarturik dagoela, dagoeneko txikituta eta guztiz indarge. Pena hartu diot alde egin behar izanari, baina Milaneko bezero garrantzitsu batekin adosturiko hitz-ordua daukat. Esnatu bezain laster, deitu, mesedez. Stephen.”

Stephenen oharpena irakurrita, telefonoz deitzeko indarrik ez nuela erabaki nuen. Nire atsekabeen zioa zen eraztu-

naren apurrak gordetzen zituen hodiska begietsi nuen zirkinik egin barik. Hala ere, ez nuen estalkia irekitzeko adore nahikorik batu. Nahiago nuen diamanteak gorria izaten jarraitzen ote zuen ez jakitea. Errealitatea astunegia egiten zitzaidan. Begiak itxi nituen, egunak eman zidan guztia ahaztu nahian edo. Luze egon nintzen horrela, ordenadoretik zetorren eta ezagunegia egiten zitzaidan melodia sorgindu batek lozorrotik atera ninduen arte. Leopold liluratzea lortzen zuen simulazio-jokoa irekita zegoen... Urrats geldoz hurreratu nintzen pantailara. Izuaren fereka izoztua sentitu nuen bizkarrean Leopoldek sortutako mundu birtualean sartu nintzenean. Ustekabean, senarraren hitzak etorri zitzaizkidan gogora: “giza harreman guztiak agertzen dira mundu birtual honetan: biolentzia, gorrotoa, baita infideltasuna ere!” Gizajoak ez zezakeen inondik inora imajinatu zenbaterainoko zantzu txarra izango zen.

Listu kolpea nabaritu nuen eztarrian hark sortutako etxebizitza birtuala ikusi nuenean. Deigarria gertatu zitzaidan etxearen zoko-moko bakoitza gurearen modukoa izatea; nik aukeratutako tonu arrosa afrusa berdina logela nagusiko paretetan; bainu-gelako baldosetan Egeo itsasoaren olatuak islatzen zituen friso bera; eta oraindik harrigarriagoa zena: egongelako tapiz pertsiarrean botata, belusezko kuxin more hura, zeina, biao egiten ari zela, Leopold itotzeko erabili nuen. Goitik behera amildurik nengoen, baina oraindik izu laborririk handiena faltatzen zitzaidan: bere gorpuaren ikustaldia. Ondo baino hobeto nekien nik horren eszenatokia. Izerdi-uharretan eta dardaraz ahitutako eskuekin, etxebizitza birtualeko igerilekurantz gidatu nuen sagua. Instant hartan geldi lotu nintzen: hor zegoen Poldy, nik utzi nuen modu berdintsuan, igerilekuaren ur-lo gardenen gainean. Orain-orainean ezin izan nion nire buruari

eutsi eta kolpe batez lurrera bota nuen ordenadorea. Ondoren, nahigabeei gaina hartuta, plastikozko hodiskaren barnean zeuden eraztunaren zati apurrak komunetik bota eta bonbari tira egin nion, beldurrez dar-dar.

Gutxien ustean, telefonoak jo zuen. Tarrapataka abiatu nintzen hura hartzera Stephen izango zelakoan. Hain nuen beharrezkoa bere ahotsa entzutea momentu hartan... Baina urrutizkinaren bestaldean, hilobiaz haraindiko mintzoa heldu zitzaidan:

– Ai Molly, Molly, Molly! Ene bihotzeko Molly! Nitaz libratzeko heriotzarekin aski zela pentsatzen zenuen. Inozo halakoa! Ez al zenekien, diamanteak bezalaxe, defuntu bat betikoz dela?

> Hileta-ospakizunen enpresaburu alemaniar batek izugarrizko arrakasta jaso du hainbat hildakoren gorpuzkiak diamante bihurtzean.

# Nik bainila dut gustuko

Cristian Bedoya Valencia
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Gauez dena ilun agertzen zaigu gure begien aurrean. Kaleek beraien distira galtzen dute, etxeek gizakiak eraikitako mendi zorrotzak dirudite, eta itsasoak berriz sentimendu sakonenak gogora ekartzen dizkigun laku erraldoi baten antza du, hortxe, bare-bare sarritan, ilargiak ispilutzat duen bitartean, eta besteetan, aldiz, garrazturik balego bezala, norbait edo zerbait akuilatzen ari balitzaio moduan. Negu sasoian sentsazio hauek guztiak indartu egiten dira, norberak bere etxea du abaro eta luebaki, herriek beraien normala den bizitasuna galtzen dute eta guztiaren gainetik, isiltasuna bilakatzen da jaun eta jabe. Ederra da benetan.

Ezer egiteke ez dagoen egun horietakoa da gaurkoa; hotza kanpoan, epel barruan... Bainila usaindun argizaria pizten dut euri tantek leihoko kristalean hots monotonoak jaurtitzen dituen bitartean. Bertatik urrunerarte iristen den ikusmirari so nago. Pentsatzea ahalbidetzen duten momentu hauek gustuko ditut oso, mundu rutinario honetatik at banengo bezala, beste mundu estrainu batean murgildurik. Enparantza inguruko etxeek karratu formako argi makalak dituzte hormetan, pintaturik egongo baliran, jendea

negua ematen dagoen seinale. Eskaleak ere bertan dirau, atariko harmailan eserita, urre koloreko platertxoa aurrean duelarik bere katutxoa bizikiro laztantzen. Hura ere bere munduan bizi da, daukan guztia soinean, etxetzat kartoi hutsak dituelarik. Ezagutzen ez badut ere, beti izan diot onirizte berezi bat, betidanik ezagutuko banu bezala. Egia esan urteak daramatza bertora etortzen, eta askotan pentsatu izan dut zeren esperantza izango ote duen emakume horrek, zeintzuk izango diren bere ametsak edo ea familiarik duen ala ez. Ikusi egin nau, konplizitate begirada batez keinua bota dit eta begiak berriz platertxora garraiatu ditu. Bitxia izan da benetan, begi sakon haiek definitzen zuten zer bakarra sufrimendua zen, sufrimendu latza. Hala ere, ez naiz erruki. Igarotako urteek sendo izaten irakatsi didate, neuregan sinisten eta pertsona hotza izaten; elurra bezain hotza, izotza bezain zorrotza.

Carla dut izen, Carla Donati. Aita italiarra dut, nirea aurrera eramateko indarra ematen didan pertsona garrantzitsuenetarikoa. Baina logela honetan nagoenean triste sentitzen naiz, ondoan inor ez malkoak nonbaiten lehortu ahal izateko, ondoan inor ez kontuak kontatzeko. Baina gogorra izan beharra daukat. Argi daukadan zerbait da hori, nahiz eta egun batzutan depresioak jota egon edota botaka hasteko gogoz egon. Gogorra izan beharra daukat.

1998ko abenduaren 9an New York-eko onkologia sailean ginen. Medikuen begirada hori, poliedrikoa oso, boomerang antzeko zerbait da, begirada begietatik ia irten ez eta berriro atzera joaten da, behin eta berriz, gelditu gabe, norbera ez ukitzeko, norbera ez sentitzeko. Haiek bertan daude, eserita, paperak eta frogak aztertzen eta beraien begien mugimendu tangente horretan nabaria duzu ez dizu-

tela begiratu nahi, gauzak gaizki doazela. Aurrera jarraitzekotan aro latza zetorkidan, banekien nik hori inolako medikuen beharrik gabe ere. Baina nik ez nuen bertan gelditu nahi, labur bizi behar banuen ere, etxean izan zedila. Aukera gutxi nituen eta horrek nolabait barrenak jaten zizkidan, aurrerapausua galarazi.

Bertan eman nituen zazpi hilabete, 33.solairuko logela hirotu hartan. Behintzat nire bainilazko argizaria neukan bertan ere, eta oheko eskuineko alderdian Rockefeller Center-era ematen zuen leiho zabal bat. Inoiz ikusi dudanik eta zuhaitzik erraldoiena dago bertan, milaka argiz apaindurik. Hura zen gauetako nire konpainia bakarra, hura eta beheko izotz pistan patinatzen aritzen ziren umeen zaratak. Ni bitartean itxaroten nengoen, ez nekien zeri, heriotzari beharbada. Zer da bada benetan heriotza? Ez al da jaiotzearen kontrako ekintza? Horrelako galderak egiten nizkion neure buruari, indartzeko edo, zetorkidanari aurpegia emateko edo... Norbera bular gabe ikustea ez da batere erraza, emakume batek ondotxo daki hori. Nik badakit, beste askok bezala. Kalbario hau pasaturik dena bukatuko zela zirudien baina gaitzak beste bide bat hartu eta hori gutxi balitz, zabaldu egin zen. Bizimodua lehen bezala jarraitzeko esperantza izan nuen berriz ere baina dena joan zen pikutara. “La vida es un toma y daca” esaten zidan ospitaleko mediku mexikar batek, sano jatorra bera. Arrazoia zeukan bai, hark bazekien zer esaten zuen. Bakarrik sentitzen banintzen ere, aita zen euskarri moral eta fisikoa ematen zidan pertsona bakarra. Bera zen ondoan neukan pertsona soila, ama auto istripuz hil baitzen orain dela bederatzi urte. Aitak eta biok pasabideetan barrena paseatzen genuenean Ray Davis-en kantua abesten genuen bata arrosadun emakumeak ikusten genituen bitartean,

“Dedicated follower of fashion”. Oso gustuko genuen Ray Davis, aita bere miresle sutsua nuen eta beharbada berak kutsaturik, neu ere bai.

*He’s a dedicated follower of fashion.*
*Oh yes, he is. Oh yes, he is.*

Nire borroka bukatu zen, izan ere eteteko momentua iritsi zitzaidalakoan nengoen eta nire herrian egon behar nuela pentsatzen nuen. Hemen ere kimioterapia hartzen dut, sits eginda uzten nau baina beste erremediorik ez daukadala diostate medikuek. Ez naiz emakume sentitzen. Gaur goizean konpresen iragarki bat ikusi dut telebistan eta gaizki sentitu naiz, hilerokorik etortzen ez zaidalako, emakume sentitzen ez naizelako. Negarrez hasi naiz eta ezin izan dut pausatu, hain izan da surrealista. Bestalde, nire errealitatea beste bat da, hiltzen ari naizela uste dut eta hogeita zazpi urte besterik ez ditut.

Ilerantsi honek nire egoera ezkutatzen du era batera edo bestera, baina, nor engainatu nahian nabil ni? Inork ez du gaixo baten ondoan egon nahi, nahiz eta denek kontrakoa esan. Jendea hipokrita hutsa da, hitzez enbalatzen dute dena. Goibela da benetan daukagun gizartea gero!! Ilea kendu eta ispilura begira jartzen dut aurpegia, munstro bilakatuta nagoela dirudi. Begiek urte batzuk arinago zuten bizkortasuna eta alaitasuna galdu dute jadanik. Aurpegiko adierazkortasunak ere alde egin du, nonbait. Ez naiz lehengoa.

Etxeetako argiak itzaltzen ari dira gutxinaka-gutxinaka. Denbora aurrera doa eta argizaria ere ia-ia agortu da logelan usain gozo bat utzirik. Leihoa ireki eta zigarro bat pizten dut haize hotzak aurpegia biziki laztantzen didan bitartean. Gogoko dut hotza, bizirik nagoela sentiarazten dit.

Hegazean hasiko nintzateke, oraintxe bertan, eta urrunera joan, inork ezagutuko ez nauen toki hartara.

*I don´t know why. I don´t know how*
*If I can fly, can I fly now?*
*Are my wings strong enough to bear*
*The winds out there?*
*Hey, I don´t know*

Leihoaren markoaren gainean finkaturik nagoen bitartean neska talde bat pasatzen da enparantzaren aurretik, bainilazko izozki bana daukate, poztarazten nauen zapore eta usain bakarra. Pozik daude, arazoetatik libre nolabait, eta indartsu, batez ere indartsu. Beraien hizketak eta algarak entzuten ditut, amodioak direla eta ez direla, zein moñoñoa den bata, zein harroa bestea... Minutu batez gazte sentitu izan naiz berriz ere, hamasei urte izango banitu bezala, gaztarora itzuli izan banintz bezala. Enparantza zeharkatu eta kalean gora doaz moda denden aurrean geldiune pausatuak emanez. Nik berriz, zigarroa erre eta kalera erortzen utzi dut. Bainila izozkia jatera noa. Kanela pixka bat bota eta neureak egin du. Drogarik atseginena da izan niretzat. Ez dut kontrolik, zertarako? Laster banoa eta, egin ditzadan orain gero egin ezingo ditudan gehiegikeria denak.

Katiluarekin ohe gainean eseri eta orain dela hiruzpalau egun aitak ekarri zidan aldizkaria gainbegiratzen dihardut; bost egunetan argaltzeko milaka metodo, aurpegirako ez dakit nik zenbat krema –exfoliante–, inoiz lortu ezinezko gorpuzdun gizon-emakumeak dirutza balio duten lurrinak iragartzen... Nik neuk ez dut bada guzti horren beharrik. Egia esan ez dut inorentzat galant egoteko ametsik ezta gogorik ere. Atzo goizean amona etorri zitzaidan bisi-

tan. Itxura zaindu behar nuela, aurpegia alaitu, kalera irten. Baina nik logelan sartuta ondo nengoela erantzun nion, ez nuela beste ezeren falta, baina bai, banuen, badaukat: kantzerraren presondegitik aske egoteko falta. Hiru arrosa txuri ekarri zizkidan. Ez dut lorez askorik ulertzen baina haiek ederrak ziren. Handiak, barne argi berezi batekin. Ohe aurrean jarri zizkidan eta paisaia ikusteko leiho bat ireki izan balit bezalako eragina zuten. <<Hauek ez dira arrosak, harribitxiak dira>> esan nion.

Gogoko ditut gogoko amonaren ustekabeko bisitatxo hauek, beti hitz gozoekin lagundurik, beti irribarre izartsuz. Gogoko ditut baita berarekin egindako solasaldiak. Ez da makala kontuak kontatzerakoan!! Baina beharbada gehien atsegin dudana bere usain erromantikoa da, zimurrez josiriko eskuez aurpegian laztantzen nauenean eta ispilu aurrean eserita ezpainak pintatzen dituenean, oso kontu handiz. Bere ahotan, emakumeak etxean egonda ere dotore egon behar du, norbera norberarentzako. Gogoan dut oraindik gaztea nintzenekoan hiriburura joaten ginenean, Donostiara. Bere jantzirik eta apainenak eramaten zituen beti, takoi zorrozdun zapata lirainak soinean zituelarik. Garai haietan ere pertxenta hutsa zen amona, zentzu onean baina. La Concha-tik osteratxo bat eman, bertako karruselean ibili eta alde zaharrean pintxo eta edari batera gonbidatzen ninduen. Gero, orduak ematen genituen barren bateko terrazan eguzkia hartzen. Hezurrentzako ona zela zioen eta nik hari jarraituz eguzkia hartzen nengoeneko itxurak egiten nituen, niri ez baitzait eguzkia inoiz gustatu. Amonarekin egotearren egiten nuen, nonbait.

Handik hona euri adinon egin du bai, baina orain nire amets bakarra aita, amona eta hirurok Parisera joatea izango litzateke *“la ville de l’amour”*. Betidanik kaskan

izan dudan zerbait da eta ez nuke bidaia hori egin gabe joaterik nahi. “Quartier latin” edota “Montmartre” auzoak ikusteko daukadan amorrua izugarria da eta ez dezagun Eiffelgo dorreari buruz hitz egin. “Champes Elysèes” famatuko “la Paix” kafean edari bana hartuko genuke bainilazko izozki banarekin eta Paris zeinen polita den hitz egingo genuke, eta ni pozik sentituko nintzateke nire ametsa betetzen ari dela ikusiko nuelako. Orduan bai baketan hil ahal izango nintzateke, egin beharreko guztiak eginda izango nituelako, besterik ez. Baina hala eta guztiz ere, ez dakit posible izango ote den, izan ere nire egoera nabarmenki larritzen doala diostate adituek baina beharrez gero, indarrak edonondik aterako ditut nik, baita harripeetatik ere, baldin eta Parisera joateko bada.

Gogoeta guzti honen ondoren, begiak ireki eta argizariak makalki argitzen duen logela ilunean ikusi dut neure burua berriz ere, orain dela ordubete bezala, ez dut tokitik zirkinik ere egin. Bi negar malko gazi erortzen ari zaizkit begietatik, ez dakit zeren kontura. Txolin osoa naiz, hutsalarengatik ere negar. Hau da hau marka!!

Goizero marrazki bizidunak ikusten ditut telebistan. Etxeko hormak hain dira ergelak ondokoaren plastiko eta poltsen hotsak ere entzuten diren. Logelaren alde batetik bestera ibiltzen da, gauzak bilatzen, tiraderen sartu-irtenak ere abiatzen dira. Batzuetan gelditu eta korrokada ozen bat botatzen du. Bakartasun sakon honen naufragoak garela dirudi, bera eta ni, bakarrik. Hormaz horma. Baina ez dit batere axola, nolabait isolamendu eta konpainiaren arteko oreka hobezina da.

Horrela doa joan nire denbora, pentsamendu ilunetan murgildurik, aparteko beste mundu batean, igerian, beran-

durarte. Izan ere gogorra egiten zait biharamunean ezin izango dudala begirik ireki pentsatzea, ezin izango dudala arnasarik hartu. Beldurtu egiten nau edozein momentutan bihotza gelditzearen ideiak, horrela bada, ez dut hirurak edo laurak arte loak hartzen. Ni ere enparantzako eskalearen antzera, lo egin gabe bizi naiz kasik. Beraz gogoraturik, leihora hurbildu, belusezko gortina alde batera bota eta ohiko lekuan ez dagoela ikusten dut. Hura ere betiko toki monotonoaz aspertuta egongo zen, beharbada.

Zerbaitek asaldatzen nau. Etxeko txirrina da, ordu hauetan... Harriturik geratzen naiz nor ote den pentsatzen. Sarrerara abiatu eta atea kontuz irekitzen dut badaezpada ere. Buru makur eta ile kizkurdun emakume bat agertzen zait aurrean, enparantzako eskalea da, argi dago. Gabon esan eta erantzunik ez bere aldetik. Eskutik daraman poltsan eskua sartu eta zerbait bilatzen ari dela ikusten dut. Arrosa txuri bat da, amonak oparitu zizkidanak bezalakoa, <<hartuizu>> diost. Nik hartu eta sartzera gonbidatzen dut, baina berak ezetz, eskertzekoa dela baina. Orduan, jertsearen eta alkandoraren botoiak eransten hasten da, argaltasunez, kalean denbora asko eman duen emakume ahul baten seinale.

Ikusten ari naizena sinestezina da, bular aldean jadanik sendatutako bi orbain luzanga ikusten dizkiot. Bihotzak ia-ia lekutik ere irtengo dit. Hamaikatxo ikusteko jaioak garela esaten zidan amonak, eta arrazoi osoa du bai, arrazoi osoa.

– Erruki zaitut.

– Baita nik zu ere.

# Zorte txarreko habil Martintxo!

Amaia Quintana Ordorika
Gernika institutua
Gernika-Lumo

– Martiiin! Altxa hadi hortik eta hoa aitari laguntzera! Joxemiel goizean goiz jaikita ari duk lanean, eta, honezkero, mokaduren bat egiteko gogotan izango duk.

(...)

– Martiiiiiiiiiiin! Behin esanda nahikoa ez baduk, makilarekin joango nauk laster. Haren hizketaldia konprenierrazagoa egingo zaik noski-eta! Benga! jantzi itzak Anttonen abarkak. Anaia Bilbon duk soldadu joanda, eta harenak libre zeudek. Hireak, ostera, oraindik sutondotik zintzilik zeuzkeat, tarteren bat hartzean emango zieat puntadatxoren bat.

*Martin, Martin, Martin... aitonaren ohoretan izendatu omen ninduten honela. Hori esan zidan, behintzat, behinola, amak. Berak nahiago omen zuen Jesus, Simon, Joxe, Joxe Mari, Joxe Angel edo… antzekoren bat. Erlijio kutsuko izenez bataiatu nahi omen ninduen; hartara, jaiotzatik bertatik Jauna babesle izango nuelako edo. Gaur, ordea, hura haurdunaldiko apetaren bat zela eta dagoeneko izena gustatzen hasia zaiolakoan nago: goizean goizetik hasten da, behintzat, Martin gora eta Martin behera.*

*Zera! "Jantzi itzak Anttonen abarkak. Anaia Bilbon duk soldadu joanda (…)" Ai, ama! Ez dakit, ba, ondo nondik nora joan zen alproja hori; beno, nondik joan zen bai, behintzat. Bake ederra ematen du.*

*Egia esan, ez naiz dirudien bezain bihotz gabea, eta egunez halako falta txikitxoren bat ere sumatzen dut; batez ere, gaur bezala, beheko bizilagun hauei azpiak ateratzera neronek bakarrik joan behar izaten dudanean. Baina gauean… ederra duk bakardadea nork berak bilatzen duenean, zera! Jakina da inori ere ez zaigula gustuko aldamenekoa laassai hankak zabal-zabal eginda dagoela eta gu lo hartu ezinik egotea, edo aingeruren batekin hodei artean zilipurdika gabiltzanean aldamenetik anaia Motako astoak baino zurrunga handiagoak eginez sentitzea... Baina orain, ohe guztia niretzako dut, eta goxo-goxo egon ohi naiz: zorioneko intimidadea. Arindu ederra hartu du beheko asto txuri honek, eta ni... hemen! hemen nago ni Quijote handia, Sancho Panza-ren laguntzarik gabe.*

Eta salto batean ohetik jaiki eta ohe aldameneko aulkitik galtzak hartu ditu, benetan presaka dabilenaren tankeran; ez du nahi amak piura hartan ikusterik**.**

*Taaarrraaaaaaat! Kaka zaharra!, okerreko zulotik sartu diat hanka. Izan ere, beti presaka.* Berriz ere galtzak erantzi eta arretaz aztertu ditu, hainbeste betatxu eta zulo txikiren artean azken nobedadea igarri asmoz. Bi eskuekin galtzei heldu eta ezkerreko begia itxi ondoren eskubikoarekin txokorik ezkutuenak aztertu ditu. Lan nekeza zaie bere bi begi berde urduriei, baina bi hankalekuen oihalak lotzen dituen joskurari begiratzean... *Redios! Hirugarrengo hankari ere tokitxoren bat eskaini berri zioat nire janzkeran.*

*Hau estilo propioa duk! Versachen ere honelakorik..., eta gainera, praktikotasunaren ikuspegitik ere ez zegok batere gaizki!* Eta ganora handiegirik gabeko irribarre arin bat ezpainetan duela atera da gelatik.

Sukaldera iristean, *Bahuen garaia motel!* batekin agurtu du amak, eta hitz gehiagorik gabe, katilukada bat esne, hiru bat eguneko ogi gogortu zati bat eta etxean eginiko gazta atera dizkio mahai gainera.

Martin *ele* itxurako besaulki luze baten izkinan eseri da, ohikoa duen legez zurezko mahai zuriaren hanka hankartean duela. Hura da berak lau seme, bi alaba, gurasoak eta aiton-amonek osatzen duten familia hartan duen postua. Eta, orain, bera bakarrik gosaritan dagoen hartan ere –benetan arraroa–, ez da bere inperioaren jabetzaz ohartzen, eta erresumako lekurik marjinalean eserita jarraitzen du: ia aulkitik kanpo eta atetik oso-oso gertu.

– Azkarragoak ere ezagutu dizkiat, Martin! Har ezak esnea zurrutada batean, eta jango dituk ogia eta gazta ikuilura bidean. Gaur martxoko azken bigarren igandea duk, San Jose eguna, eta behiak gobernatu eta Miren eta Isabelek etxekolanak egin bezain laster hamabietako mezara joan behar diagu denok batera. Eguerdian etxeratzean, berriz, artoa aletzeari ekin behar zioagu, ni ere zazpigarren hilabetean sartua nagok eta oso erraz nekatzen zaizkidak gerriak beti postura berean, baina zuen gazteon laguntzarekin eta amonaren ahaleginekin berehalako batean gaituk sanjosetara joateko prest. Arratsaldean sega apustua zegok Eizmendiko Juan eta Galardiñeko Pedroren artean. Gainera, gaurko egunez lan egitea Jaungoikoari muzin egitea duk, eta arratsalderako lan guztiak aurreratuta behar ditek egon. Herri kirolak bukatu ondoren, berriz ere ganaduari

jaten eman, azpiak atera, eta libre zarete nahi duzuena egiteko. Entzuna diat Aristerrazun erromeriaren bat badela Laja eta Maiz-ekin edo.

*Bai ama, gero, libre izango gara nahi duguna egiteko edo zergatik ez, gaur ere libre baina ahal duguna egiteko. Hau da, betikoa: ezer ere ez. Baina nork jakin, gaurkoa berezia izan zitekek; azken batez, amonak karamelu poltsa hura oparitu zidanean ere ez nian halakorik espero. Eta akaso… gaur hire mutilagun egin nintekeen, Mari Angeles! Hik badakin maite haudanala edo jakin behar hunake, edo agian ez. Egia esan nik sekula ez dinat halakorik aitortu. Baina bai, gaurkoan bai, gaur etxera lagunduko dinat eta guztia esango dinat, edo adierazi bai gutxienez…*

Martin amak katilu ondoan utzi dion ogi zatiari begira dago, baina ez du ezer ikusten. Momentu batez zoriontsu da: barnean halako kalanbre polit batzuk sentitzen ditu, eta arnasa sakonago hartu eta birikak puztu beharrean aurkitzen da, pilatu zaion zoriontasunak toki zabalagoa eskatuko balio bezala. Indartsu aurkitzen du bere burua; eta irribarre bat marraztu da bere ezpainetan… Zoriona, poza, maitasuna, irrika…

*Putakumea! Alde egin ezak hortik alu horrek, edo ikusiko duk! Tabernaberriko besamotzari barre eragiteko hautsen kaxaren bat lapurtu, eta etxe aurreko gerezi arbolari lotuta, pixkanaka-pixkanaka egingo dizkiat hirekikoak. Orain putz bat, gero bestea, barreari utzi baino lehen ondorengoa... Edonor erotzeko modukoa izango duk, eta halakoetan ohi duten modura barkatzeko erregutuko zidatek begi errukarri horiek! Hi ez haizela nire une samur horietaz jabetzen eta… Betikoa. Bizidunen mailaketa*

*horretan zakur izaerak emandako zenbait askatasunez baliatzen haiz hire hanka-sartzeak justifikatzeko. Baina gaurkoan ez duk barkamenik lortuko. Nire moda berriaren inaugurazio egunean halako aperturatik muturra sartzea ere... eta gainera halako burutapen gozoak nerabilzkienean! Egia esateko, momentu batean zera pentsarazi didak... baina zer ari nauk !!!?? zakur bat duk, zakur malapartatu bat, eta nire Mari Angeles...*

*Nire parte nobleenetatik zakurraren lerdeak kendu, eta eskaileretan behera abiatu naiz: ikuilurantz. Majera aurreko atea zabaldu, eta berehala hasi naiz lanean hango sabel goseti haiek asetu nahian. Ikuilaitzurrarekin belarra aska ingurura gerturatu, ondoren sartu sardea belarrez osaturiko meta txikiari eta On egin, andereño! eta iluntzera arte jatetxea itxita geratzen da.*

*Orain praka garbiak jantzi eta Don Gregorioren aholkuak entzutera! Gure amonak dioenez Elizako ateak zeharkatzen ez dituenak ez du Zerurako giltzarik aurkitzen, eta nik gaur gauean Aingeru batengana hurbildu nahi dut. Lau kredo, hiru Ave Maria eta Gure Aita bat ere errezatuko dizkinat, eta guztiak hiretzako izango ditun. Ondoren, San Pedrori baimena eskatu eta hireganaino joango naun, eta maite hautela ere esango dinat, eta besarkatu egingo haut, eta hik ere nik adina desiratzen naunala esango didan...*

Korrika batean etxeraino joan, ukitu propioko galtzak bazterrean utzi, eta hiru hanka eta hiru laurdeneko aulkitik geratzen ziren bakarrak jantzi ondoren, sukaldera abiatu da.

Ama armairu txuriko lehen kajoian gordetzen zuen ispilu zaharra atera, eta arraskaren aurrean geratu da, Martin

zutik, burua arraska aldera makurtuta duela. Ondoren, amak errekako urez beterik zegoen marmitatik katilukada bat ur hartu, eta burua busti dio, Martinek ia mekanikoki aitaren orrazi txikiaz ile beltzaran kiribildua atzeranzka orrazten duen bitartean. Beno, ilearen zati bat, zeren beste zati bat bera baino egoskorragoa suertatu da, eta ezin izan du menderatu.

*Eta orain bai, orain prest nagon hi hartzeko. Beno, geroxeago izan beharko din, orain mezatara joan behar dinat eta gaurkoan Don Gregorioren esanak zuzen hartu nahi dizkinat. Beraz, burmuineko zatirik gogoangarrienean giltzapetuko haut, eta ez dizkidan gauean lapurtzen dizkidan ilusio horiek lapurtuko, ez didan behin eta berriz kilima txikiak eginez bihotza zulatuko... Momentu batez bada ere, itsu bihurtuko naun eta ez haut ikusi ere egingo, eta behar izanez gero, gor ere bihurtuko naun eta ez dinat hire ahots eztiaren mingostasunik sentituko. Baina, hala ere, berdin izango zion, honek ere ez zidan nire atsekabea arinduko; azken batez, itsua, gorra... bainaun; hire begietatik ikusten dinat, hire belarrietatik entzun eta hire gorputzetik sentitu. Nireak... zentzurik gabeko zentzumenak ditun hi gabe. Baina ez, gaurkoan Don Gregoriori eskainiko zizkionat momentu batez nire arreta guztia. Zintzo-zintzo entzungo dizkinat haren esanak.*

Don Gregorio herriko apaiza da. Nahiko txikia, eta soinean eraman ohi duen sotana luzeak oraindik eta txikiago egiten dio. Burusoila da, eta buruko hiruzpalau ileak albo batera orrazteko joera dauka. Serioa eta ideologia gogorrekoa, bere sermoietan herriko gazteei sexu kontuez halako errespetua –beldurra gehienetan– sartzeko abilezia aparta duena.

*Hamabi. Hamabi kanpaikada. Eliza gainezka dago: Alkate Zaharranekoak, Xaustarrak, Poltsaz eta bere familia, Jose Manuel petrikiloa, Arkupetako neska zaharra (garai batean Don Gregorio apaizarekin nolabait lotzen zutena)... eta guretik bederatzi, edo bederatzi eta erdi, amak sabelean daramana kontuan hartzen badugu. Ni izkina-izkinan eseri naiz, etxeko mahaian bezala; eskuinaldean, amak Fermin txikia besotan duela.*

Agerian da Don Gregorio gustura dagoela San Jose egun honetan jendearen aldetik izan duen harrerarekin. *Ez zegok gaizki, e, apaiz jauna? Herria daukak hire esanetara, baita nire Mari Angeles ere. Nik ostera, esanetan izatearekin konformatu behar. Hara hor mundu aldrebes honen injustizietako bat.*

Eta Biblia zaharra atera, eta bi begiak betaurreko gainetik herriarengana zuzenduz sentimendu eta indar osoz ekin dio iganderoko mezari. Bere komentarioetan oso gogorra izateko fama du, batez ere gaztetxoenei zuzentzerako orduan, eta gaur ere ipini dio bere zigilu pertsonala San Jose honetako pasarteari:

– Gaur San Jose eguna dugu, herriko patroia, eta festa hauek kristau zintzo eta garbien modura igarotzeko deia luzatzen dizuet hemen aldare gainetik. Bestalde, gogorarazten dizuet hurrengo astean sartzen garela Garizuman eta orduan ezin izango dela festarik egin, ezta haragirik jan ere. A! Eta hamar mandamenduei dagokienez, bada, egunero –baina, batez ere, egun berezi hauetan– aparteko garrantzia daukan bat: seigarren mandamendua. Eta, beraz, ez da haragikeriarik egin behar, edo bestela orain hogeiren bat urte Maria Etxebarriari gertatu zitzaiona gertatuko zaizue, neskatxoak: ergeldu, inuzentetu, tenteldu egingo za-

rete –esan zuen, atzamarrez herriko xelebreenetako bat seinalatuz.

*Baina ez al dio, bada, Jaungoikoak barkatzen jakin behar dela? Eta beraz, zer eskubiderekin seinala dezake honek Maria gizarajoa herri guztiaren aurrean? Kalamidadea. Haragikeriarik egin eta jatea debekatua.... Nik ez diat behintzat aparteko atzera-pausurik: gure etxean haragia nekez izaten duk, eta neskatan, berriz, ez diagu egiten! Niri ez zidak seigarren mandamendu horrek enbarazu handiegirik egiten. Guretzat ia egunero izaten duk, alde horretatik, Ostiral Santu.*

Eta Elizako ateak irekitzearekin batera, etxerantz abiatu da Martin. Behin hara iristean, aldiz, zuzenean ikuilura, martxoko eguzki ahularen argira lehen erdizka utzitako lanak amaitzera. Nahikoa eguraldi freskoa egiten du, baina lanak azkar bukatu nahiak edo Aristerrazura joateko desirak sortzen dion urduritasuna dela medio, laster kendu du gainean zeraman jertse astuna. Eta eginbeharrak bukatzea bestetan baino gutxiago kostatu bazaio ere, ez da, inondik inora, dantzalekura iritsi den lehena izan.

Jende multzo ikaragarria zegoen ordurako tranpaila zaharrean. Tabernako mahai batean neska gazte koadrila bat. *Bai, begi horiek, adats beltzaran hori... ezagutzen dizkiat nik. Eta soinean daraman... Stop! Jertsea. Jertse hori ez duk berea, eta bi trago gehiagorekin egon banintz, belarrimotx horren jertsea dela apostu egingo nikek. Jode! Ondo zorte txarreko habil Martintxo!*

– Basokada bat ur, Prantxiska.

– Zer, Martin, sanjosetako ohiturei muzin egiten, ala? —gazte kuadrilla bat gerturatuko zaio, adarra jotzeko as-

moz–. Gaurko egunez sagardoa eta opilak tokatzen zaizkik, motel! Halaxe ziok tradizioak.

*Utz nazazue bakean, aluak! Tradizioa, tradizioa... gaur gehien axola zaidana momentu honetan tradizioarekin haustea duk, nik neure bizitzarako egun berri bat bilatzen diat, eta hori, eta hori bakarrik, bihurtuko nikek tradizio! Ulertzen al duzue? –*eta inguratu zaizkion herritarrei mespretxuzko begirada bat eginez, bere Mari Angeles-en atzean ipini da, neskaren mugimendu guztiak kontrolatzeko angelu egokiena hartuz–. *Kristo! eta barka beza, Jauna, berorrek; baina... ostras! Hori duk, hori, neska puska!*

Bat-batean komun aldetik *belarrimotxa* neskarengana gerturatu da, eta jertsea eta hitz batzuk elkartrukatu dituzte. Solasaldi luzeegia. *"MITIERRATIK"* etorriak *Gracias, señorita* esan diola ulertu uste du Martinek, eta Mari Angelesek… barre txiki bat opari; ondoren, bere neska-kuadrillarengana itzuli da, hauekin batera korroan sartu eta trikitixa bat dantzatzeari ekiteko. *Beraz, bi hauen artean ez zegok ezer ere. Oraindik garaiz habil, Martin: Tempus est ore! (DENBORA-URREA)*

"OLE MORENA!" *Aparta haiz benetan. Ez zegon eguzkiaren azpian hi bezalakorik. Eta nik ere neskaren jokaerak animatuta-edo, bere alboan dantzatzeari ekin diot, eta denborarekin agarratu bat eskainiko al zidan galdetzeko bezainbeste balore ere atera dut. Eta berak baietz, Don Gregorio, berak baietz! Ez dut hiru Ave Mariak errezatzeko inolako eragozpenik; baina, egia esan, bekatuaren erdia bakarrik dagokit niri. Nik ez dut ezertara behartu, nahiz eta bereak ere nik aitortzeko prest nagoen. Baina utz ditzadan kontu horiek biharko, bihar egingo di-*

*tut Jaungoikoarekiko bakeak, orain bihotzarekikoak egitearekin konformatzen naiz eta.*

Ia konturatu ere egin gabe etorri zaizkie iluntzeko hamaikak. Pareta zaharretik zintzilik dagoen erlojuak bere orduroko egin beharrari ekin dio eta Mari Angelesek berak etxera joateko ordua duela adierazi dio Martini, batera eta bestera begiratzen duen bitartean.

*Hau niretzat galera duk, ezpairik gabe: belarrimotxaren bila ibiliko duk. Zerri halakoa! Inguru hauetako mobyletta xahar bakarra duk berea, eta hor ibiltzen duk motoko giltzak patrikatik kanpora dituela zein gonadun engainatuko.(...) Baina zer zeukeat nik eskaintzeko?*

*Gaur ere jai zeukeat! eta nik ere bi gurpileko neskalaguna bilatu arte itxaron beharko diat bi hankeko emea alboratzeko. Izan ere, nork maite zezakek ondasun bezala bi galtza, aitonak herentzian utzitako abarka parea, eta anaiarekin erdibana duen ohea besterik ez duen bat?*

Eta Martin dantzan dabilen jendetzaren aldamenean geratuko da, azkeneko trikitixa bukatu duen korroaren leku berean eta pentsamendu berberekin.

*Hau duk komeria! Gure ama umeak egin eta egin, eta gu, ostera, neskarik dastatu ere egin ezinik. Hogeita hamasei urterekin bi alaba eta lau semeren ama duk, eta berriz ere zilbor-handituta zebilek. Gutxienez, denok aurrera ateratzeko lain izango balitek! Baina ez. Beren irrika geuk ordaindu behar, gainera: arreba zaharrena neskame, bestea etxeko lanak egiten, Joxe Antonio morroi... hau ez duk bizimodua. Besterik ezean, maiorazko egin izan banindukeek... Baina nondik, maizterrak bagara?*

Honela dagoela, Mari Angeles hurbildu zaio. Burua makurtuago du eta lehen baino lotsatuago ere dirudi. Begiak halako diz-diz urduri batean nabaritu dizkio Martinek, eta neskak begiz emandako aukerari uko egin gabe, azken dantza bat eskatu dio. Mari Angelesek instant batean luzatu dizkio bi eskuak, eta baita gerria bera ere musika aurrera zihoan heinean. Martinek berehala ulertu du ateak ireki berri zaizkiola, eta etxera laguntzeko eskaria egin dio dantza amaitzearekin bat.

*Maite hau, Martin, maite hau. Kolorez aldatu berria zaik semaforo gorria, eta primera sartuta eta mantso-mantso joatea besterik ez duk orain. Ez zioat zentzu gehiegirik bilatzen, baina aholku horixe eman zidan aitak, eta horixe etorri zaidak burura ere. Izan ere, azken finean nik ez zeukeat ez auto ez traktorerik, baina aitak behin eta berriz esan ohi zidak kontuz-kontuz ibiltzeko, beroak begiak lausotzean istripu asko eta asko gertatu ohi direla hemengo sasi eta meta bazterretan eta. Zahartzaroaren kontuak, seguru! Ezin litekek bestela.*

*Hobe izango diat bai Bideberriko Txominen aholkuei jarraitzea. Hark neskak goxo-goxo tratatu behar direla esan zidan, eta ibilbide luzeetan meta edo zuhaitz ipurdiren batean deskantsatzeko gonbidapena ezinbestekoa dela neskatxaren bat konkistatzekotan.*

*Eserleku egokia bilatu dugu. Belar moztu berriaren usaina eta atzealdean berriz meta garai bat. Une batean, nire alboan Mari Angeles dudala ahaztu nahi izan dut, nire begirada eta pentsamendua txori babesgabe hartatik urrundu; eta meta aztertzeari ekin diot. Denboraren poderioz azaleko kolorea aldatua du. Goialdean daraman txapelak ere ez digu informazio gehiegirik eskaintzen, eta nik*

*bakarrik bereizi behar izan dizkiot burua eta gorputza. Bai, bai, nik bakarrik asmatu behar izan dut azkenean birraitonak arrazoi zuela, euskara eta belar onduz eginiko meta Euskal Herrian ondo sustraitutako bi gauza zirela, alegia.*

*Zer egin nezake? Haren begien belar usaina sentitzera ere iritsi naiz, eta haren ezpainak... berriro begiztatuz gero, jan egingo nituzkeela uste dut. Arriskuan hago, neskato, arriskuan. Eta nire urduritasuna nolabait arintzeko, lehen luze-luze eginda nituen hankak kuzkurtu ditut, ustekabean neskak bere belaunetaraino emeki zabaldua zuen gona hura bihurrituz. Redios! Kalamidadea! Hi beti suerteko, Martin!*

Eta, normal-normal, gertatuaz jabetu ere egin ez balitz bezala jokatzen saiatu da Martin, beti ere begirada neskarengandik hurrun mantenduz; ez du neska bere urduritasunaz jabetzerik nahi. Baina bere ahaleginak ezerezean geratu dira, zeren neskak ezin ekiditu izan du momentu batean arnasik gabe geratzea; ezustean harrapatu du mugimendu hark. Eta honek ere ez daki zer egin, eta ez da eskua gonara luzatu eta belaunak tapatzen ausartu, jakin bai, baitaki honek egoera berezi hura oraindik eta gehiago tentsatuko lukeela, eta Martinek zer esango zain geratzen da. Urduri daude biak, egon ere.

– Harritzekoa da, baina ateri dago, e? –Martinek isiltasuna zulatuz–. Urteak izango dira sanjoseak euririk gabe ezagutzen ez ditugula.

– Bai, ez da ohikoa; baina gau izartsua dugu gaurkoa.

– Bai, halaxe dugu, ba. *Gau izartsua, biharamon eguzkitsua.* Eguzki honek berehala onduko ditu orain bi egun

zabaldutako belarrak, eta nahikoa lan izango da bihar geurean: gainera, Antton soldadu joana da eta Joxemiel eta bi arrebak bakarrik gaude aitari laguntzeko moduan. Ama ere ume egiteko dago, eta…

– Ume egiteko? Zu zara, zu, astoa –eta barreari ekin dio–. Gurean animaliak bakarrik egoten dira ume egiteko, emakumeak *esperoan* egoten dira.

Martinek ere barreari eman dio. Berak ez du bereizketa horretan alde handiegirik sumatzen, baina neskarekin barre egiteak konfiantza ematen dio. Orain lasaiago dago, gauzak menpean edukiko balitu bezala, eta Mari Angelesengana gerturatu eta musu eman dio masailean. Mari Angeles gorritu egin da, baina ez du desatseginezko imintziorik egin.

*Bat eta huts, Martin. Partidua mendean duk. Lotsatia duk, baina gustuko hau! Ez zegok arazorik.* Berriro ere begiak jaso eta… belar usaina. Bistan da irrikaz jaso duela mutilak eskainitako musua, baina bi begi berdeak aztoraturik aurkitu dizkio.

– Zuek ere izango duzue, bada, lanik! Hainbeste ardi hazi, horiek jaitsi, gazta egiteko esnea fermentatu arte itxaron… Martinek normaltasun kutsu bat eman nahi dio egoerari.

– Bai, baina gurean alde horretatik nahikoa ondo konpontzen gara, anai-arreba asko gara, eta…

– Etxean entzuna dut bai gure aldean asko zaretela –eta hanka bat luzatu eta neskarengandik gertuen duen eskua belar gainean jarri du. Neskak hamalau anai-arreba direla kontatzen dio. Eta ia konturatu ere egin gabe, muin eman dio neskatxari ezpainetan, ez daki zer indarrek eraginda eskua belaunen gainean jartzen dion une berean.

Irrika. Desioa. Amaren esanak. Hotzikara… Kontzientzia. Erabat nahasirik du burua Mari Angelesek. Berak ere halako intziri eme eta sendo bat sumatzen du bere barrenean, eta mutilaren jokoa jarraitu nahi luke. Baina bera ez da bekataria, ez du infernura joan nahi: *neska garbiak, pentsamendu zikinik gabeak, amaren esanekoak, kristau zintzoak…* Gogoan ditu, oraindik, lehen bestelako garrantzirik gabe jaso dituen, baina orain barrena erretzen dioten herriko apaizaren hitzak, eta, egia esan, momentu honetan bera ez da patroi horren barnean sartzen. Baina bera ez da emagaldu bat. Ez, bera ezin liteke horrelako ezer izan. Bera neska garbia da, purua , errespetagarria; eta ez du nahi Maria Etxebarria zigortu zuen bezala, Jaungoikoak bera ere zigortzerik. *Ave Maria Purisima!* Eta eskubiko eskua aurpegira zuzenduz, aitaren egin du.

Martinek *bere* neska hain aztoratuta ikustean, eskua belaunetik kendu eta beste musu bat eman dio, oraingoa esku gainean. Ulertzen duela erakutsi nahi dio. *Ostras! Partidua estutzen ari zaidak. Berdinketa, eta berak sakea.*

– Seigarrena, Martin!

Ez luke leporik jokatuko, baina askotan entzun izan dio Mari Angelesen anaia Bernardori, neskatxaren batek etxean zenbat anai-arreba diren galdetzean, bera hamabi apostoluetatik zortzigarrena dela erantzuten. Edo oraindik eta pikardia handiagoz, zortzigarrena den aldetik edozein emakumerentzat ere izugarrizko pagotxa dela azaltzen: izan ere, familian duen zortzigarren postu horrek agerian uzten omen du gizon *biribila,* aparta dela.

Eta horrela emakume guztiekin. Bernardori ez dio axolarik ile horia, beltzarana, azal txurikoa, garaia, baxua, argala, betea edo gizena izan, eta gaur batari esaten diona

bihar besteari esango dio, benetan lehenengoa balitz bezala eta munduko naturaltasun guztiarekin.

Eta bere uste –ia ziurtasun– haren arabera, Bernardo zortzigarrena balitz, eta neskak orain esan dionaren arabera, seigarrena, horrek esan nahi du Mari Angelesek dirudien baino urte gehiago behar dituela izan.

– Kontxo, ez nuen uste zu Bernardo baino zaharragoa zinenik; zeren hura zortzigarrena duzue, ezta? –esan dio Martinek, aurreko elkarrizketaren haria gogoratuz. Eta Maria Angelesi begiratu dio erantzunaren zain.

Baina ez du erantzunik jaso. Bada zerbait arraroa. Ez du bere maitearen etsipen aurpegia ulertzen, eta banan-banan aztertu ditu berak esaniko hitzak, zerbaitek mindu ote zezakeen pentsatuz. Baina ezer arrarorik ez. Jarraian neskaren hitzak neurtu ditu, beharbada gaizki ulertuko zituelakoan: SEI-GA-RRE-NA. Seigarrena?... *Letxes! Don Gregorio.*

# Mugaz bestalde

Joseba Badiola Prieto
Pasaia-Lezo Lizeoa
Pasaia

Begiak ireki ditut azkenean. Ez nuen nahi. Gustura nengoen. Goizero-goizero bezala zaila suertatzen zait nire paradisu maitea errefusatu eta atzean uztea. Gogorra egiten da. Are gehiago esnatu eta nire ingurura begiratzen dudanean. Egunero berdin. Ametsetako mundu ederrari uko egin behar izaten diot ifernura jaitsi eta deabruen ondoan esertzeko. Ez zait beraien begirada eta irria batere gustatzen. Gorroto handia diet, haiek neureganako duten gorrotoaren adinakoa. Badirudi nire izena ere ez zaiela batere gustatzen izaki gorri, ñimiño eta higuingarri hauei. A.H. deitzen didate.

Afrikako bizimodua oso gogorra da. Zin egingo nuke edonork ezingo lukeela hemen denbora luzez bizirik iraun. Nik bai. Jaio nintzenetik daramat hemen, geldi-geldi, nire utopiaren zain. Adorea behintzat badut. Hori esaten didate neure lagun guztiek. Pertsona adoretsua naiz. Ez pentsa ni bezalako asko egongo direnik mundu honetan. Ez. Gutxi geratzen gara eta egunero kopuru hau murriztuz doala esango nuke. Gero eta gutxiago garela pentsatzeak tristatu egiten nau. Edozer jango nuke orain.

Duela 32 urte jaio nintzen Tinduf-en eta hamabi anai-arreben artean gazteena izan nintzen ni. Ama ni jaio

eta berehala hil egin zen eta aita handik urte gutxira. Entzun dudanez “hiesa” izena du nire aita preso eraman zuen gaixotasun nazkagarri eta madarikatuak. Ezin izan nituen ondo ezagutu. Hamaika urtez nire anai-arrebek zaindu behar izan ninduten nik haiek zaindu behar izan nituen bezala. Talde polita osatzen genuen. Gure etxola ahul eta txikiaren ondoan putzu txiki bat zegoela oroitzen naiz. “Urrezko putzua” esaten zion nire neba zaharrenak. Duela urte asko ulertu nuen zergatik. Nire urtebetetze egunean su-leizea ezagutu nuen lehen aldiz. Tiro hots batzuek esnatu ninduten eta ziztu bizian atera ginen guztiak etxolatik. Handik berehala alde egin behar genuela esan zidan ahots dardarati batek eta gure bizilekutik gertu zegoen mendi malkartsu batera egin genuen ihes. Bost anai-arrebek bakarrik lortu genuen urteetan zehar gure bizitoki berria izango zen mendi garai horretara iristea.

* * *

Txiki-txikitatik kirolari trebea izan naiz. Sari mordoa daukat etxean.

Iratzargailuak esnatu egin nau goizero bezala. Niri barre egiten didan sentsazioa sumatu dut, baina ezin liteke. Berri bat erosiko dudala xuxurlatu diot eta bat-batean isildu egin da. Irri egiteari utzi dio. Garaile atera naiz oraingoan. Pozik sentitzen naiz, oso gustura.

Oinak maindireen azpitik atera eta gogo handirik gabe zutitu naiz. Edozer emango nuke oraintxe bertan denborak atzera egin dezan. Hain gustura sentitzen da bat ametsetan sakon murgilduta eta errealitatetik at. Denbora benetan gauza guztiz konplexua da. Hiztegi bat beharko nuke hitz erakargarri hau bere osotasunean definitzeko. Denbora.

Entziklopedia batean bilatuko dut bere esanahia beranduago.

Eguerdi aldera deitu dit amak. Honek izugarri poztu egin nau. Laster ikusiko dut berriro. Aita eta anaiarekin ere laster izango naiz. Aste honetan agian, edo hurrengoan beharbada. Kontua da egun hau noizbait iritsiko dela. Deiak ikaragarrizko indarra eman dit; argi distiratsu bat piztu du nigan. Intuizioz jakin dut inoiz itzaliko ez den argia dela honako hau. Hori espero dut behintzat. Amaren ahotsa desagertu den unean inurri txiki bat ikusi dut zoruan zehar ziztu bizian korrika. Inurriak izaki bitxiak dira. Arraroa iruditu zait baina ez dut inurri gehiago ikusi. Normalean taldeka egiten dute lan. Berezia da guztiz nire inurri hau.

Noizbehinka etxe barruan preso sentitzen naiz. Irratia piztu egin dut biharko eguraldia zein izango den ea esaten duten entzuteko. Gaur ostirala da. Bihar nire eguna izango dela sinetsi nahi dut. Badakit zaila izango dela. Hala ere saiatu beharko dut. Hori ziur. Zazpiak aldera presondegitik atera eta parkerantz abiatu naiz pittin bat lasaitzeko asmoz. Bidean zortzi urteko hiru neska-mutil hurbildu zaizkit papera eta arkatza eskuan zutela. A.H. idatzi dut bertan gogotsu. Zirriborro bat besterik ez da izan.

Euskal hiztegi entziklopedikoa…Demokrito…Demostenes…Den Helder…

Denbora: iz. 1.Gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea; delako bitarte horren zati mugatua. 2.Garaia. 3.(batez ere Ipar.) Eguraldia. 4.Fis. Oinarrizko magnitudea, espazioko puntu berean izandako bi gertaera berdin bereiztea ahalbidetzen duena (t). 5.Hizkl. Kontzeptu nozionala, aditzak adierazten duen ekintza kro-

nologikoki noiz gertatu den azaltzen duena. 6.Hizkl. Ik. aldi. 7.(batez ere pl.) Ik. garta-denbora.

* * *

Iritsi da hilabete luze hauetan itxaron izan dudan egun miresgarria. Urduriegi nago. Nire bizitza osoan sentitu ez dudan beldurra sentitzen dut momentu hauetan. Txikia nintzenean entzundako tiroekin sentitutako ikara ere ezingo nuke beldur sarkor honekin alderatu. Ezin dut gehiago. Hotzikara batek zeharkatu dit gorputza burutik oinetaraino.

Eguzkia mendien atzean ezkutatzean abiatuko gara. Errazagoa izango da horrela. Niri behintzat horrela iruditzen zait. Bitartean zain egongo naiz zuhaitz honen atzean. Ezkutaleku bikaina da zuhaitz hau: zabala, luzea, handia, indartsua eta hosto eta belar ezberdinez inguratuta. Inork ezingo ninduke hemen aurkitu. Ezinezkoa izango litzateke. Seguru sentitzen naiz. Nire ondoan inurri ugari daudela ikusi dut. Txikiak eta beltzak dira.

Ez dakit zein ordu den. Egia esateko ez dut nire bizitza osoan zehar ordulari bakar bat ere ikusi. Denbora ez zait oso garrantzitsua iruditzen. Nire erreferentzia zerua goizero-goizero argitzen duen izar distiratsua da eta bere helmugatik gero eta hurbilago dagoela konturatu naiz gora begiratu dudan batean. Nire antzera unearen zain ezkutatuta dauden hainbat lagunen zurrumurrua iritsi zait belarrietara. Ikaratuta gaude guztiak. Ez da harritzekoa.

Zerua tamaina ezberdinetako argi distiratsuz josita azaldu zaigu eguzkiak alde egin duen momentuan bertan. Oskarbi dago. Ez dut inon hodei bakar bat ere ikusten.

Gau lasaia eta maitagarria da. Beroa egiten duen arren dardarka ari naiz etengabe. Ahots batzuk entzun eta unea iritsi dela konturatu naiz. Hortxe noa. Lehen baino urduriago nago.

Dena ilun dago eta ezertxo ere ikusten ez bada ere nire alboan dagoen mutikoaren begietan ikara nabaritu dut. Begirada benetan sarkorra du gaztetxo honek. Hamazazpi urte besterik ez ditu izango. Hori iruditzen zait niri behintzat. Malko bat jausi zait lurrera. Bat bakarrik. Ez gehiago.

Besoetan eskailera luze bat daramat. Nire eskuez eraiki nuen bart. Makila luzeak eta soka pare bat besterik ez nituen erabili. Lan bikaina egin nuen bai, eta oso harro sentitzen naiz. Begirada bat bota diot badaezpada ere. Itxura ederra du. Munduan era askotako eskailerak daudela badakit: handiak, txikiak, egurrezkoak, altzairuzkoak… Hala ere nirea guztietan politena dela esatera ausartzen naiz. Bitxia bai, baina polita ere bai. Oso sinplea. Erabilerak ere anitzak dira.

Pauso mantsoz ari naiz. Poliki-poliki. Emeki. Ez dut soinurik atera nahi. Ez zait komeni. Bat-batean ziztada mingarria sentitu dut orpoan. Arantzadun landarea zapalduko nuen segur aski, intsekturen bat agian. Ohituta nago jada. Aurrera jarraitu ahala nire bihotzaren taupadak handituz doaz eta beldurra areagotuz. Agian komenigarria izango litzateke atzera itzuliko banintz. Ez, ezin dut inola ere etsi. Ez naiz geldituko. Alboko gaztetxoari begiratu eta oraingo honetan bi malko jausi zaizkit lurrera. Ez dut gehiago burua ezkerretara biratuko. Eskuinera ere ez.

Iritsi naiz azkenean. Brastakoan gelditu gara guztiok eta isiltasuna gailendu egin da berriro ere. Hantxe dago helmuga. Lauzpabost pauso besterik ez. Oso gertu. Erraza dirudi. Ni ausartu naiz lehenengoa; izan ere pertsona ado-

retsua naiz. Segidan gainontzeko guztiek jarraitu egin didate. Eskailerak ahalik eta azkarren kokatu ditugu zeruraino iristen den burdinazko hesi madarikatuan. Gaztetxoa izan da lehena igotzen; ni atzetik. Badirudi lortu egin duela. Paradisuan dago jada umea. Ni laster. Iskanbila handia ateratzen ari garela konturatu naiz. Harrapatu egingo gaituzte horrela jarraituz gero. Ezin ditut nik bakarrik guztiak isildu.

Harrapatu egin gaituzte dagoeneko. Txakur talde baten zaunka hotsak entzun ditut lehendabizi. Tiro pare bat ondoren. Txikitako oroitzapenak etorri zaizkit burura eta horrek are gehiago beldurtu egin nau. Gutxi falta zait. Ezingo dut lortu. Tiro hots etengabeak… ziztada mingarria berriro ere… iluntasuna eta isiltasuna besterik ez… nire anaiarreba guztiak ikusten ditut urrutian. Gustura nago. Pozik. Paradisura iritsi naiz ni ere. Lasaitasuna besterik ez.

* * *

Goizeko seiak aldera jaiki naiz. Oso urduri nago eta ezin dut lorik egin. Sukaldean sartu eta laranja zukua prestatu dut. Bitamina asko dituela entzun nion behin amari. Kanpoan dena ilun dago. Katutxo beltz bat besterik ez dut ikusi kalean barrena noraezean. Berehala desagertu egin da sasi batzuen atzean. Iritsi da eguna. Gaur larunbata da.

Arratsaldeko zazpiak inguru izango ziren aldagela triste honetara iritsi nintzenean. Bi ordu dagoeneko igaro dira momentu hartatik. Ez nago guztiz ziur. Ordularia etxean ahaztu egin dut. Ez dakit zehazki non. Telebistaren gainean beharbada, edo sukaldean dudan mahaitxoaren gainean agian. Etxera iritsi ahala bilatu egingo dut. Hezetasuna da nagusi gela honetan.

Kanpoan nire izena oihukatu dute bozgorailu batetik. A.H. esan dute gogotsu. Unea iritsi dela ohartu naiz. Bihotzak bira osoa eman du nire bularraren barruan. Mina eman dit horrek. Aldagelatik atera, atea nire atzean itxi eta eskailera dotore batzuetara iritsi naiz. Bost maila besterik ez dituen arren nire atentzioa bereganatzea lortu du zurubi honek. Bitxia iruditu zait.

Gaua da baina altuera handian kokatuta dauden argi ikusgarri anitzek zelai osoa argitzen dute. Ikusgarria benetan. Hasieran guztiz itsututa gelditu naiz baina pixkanaka-pixkanaka jendetza mordoa azaltzen hasi da nire begien aurrean. Inoiz ez dut hain talde handia ikusi. Hankek dardar egin didate. Babesik gabe sentitu naiz hemen behean bakarrik, milaka pertsonen begi-ninietan harrapatuta. Ikaratuta nago.

Aurrera pauso batzuk eman ditut konfiantza gutxirekin eta eskuak erretxinaz igurtzi ditut. Kolore horikoa da erretxina. Zuria zelakoan nengoen. Makurtu eta pertika hartu ondoren dagokidan lekuan ipini naiz. Guztiak isildu egin dira bat-batean. Niri begira daude. Urrutian bi zutabeak eta makila ikus ditzaket. Oso altu daudela iruditu zait. Zerutik oso gertu. Hodeiak baino zertxobait altuxeago. Pittin bat kikildu egin naiz, izan ere nire bizitza osoan ez dut hain altuera handia gainditu. Ezinezkoa da. Gaindiezina. Begirada azkarra bota dut zelai osoan zehar: kopetilun dauden kirolari ugari, telebistako hainbat kamera, pertsona ugari alde batetik, beste hainbeste beste aldetik…eta ez da posible. Ama, aita eta anaia hantxe daude. Amona ere ondoan dagoela ohartu naiz. Banengoen ba ni laster ikusiko nituela berriro. Bihotza handitu egin zait eta distira itsugarriaz argitu egin dit gorputza. Momentu honetan oso erraza ikusten dut pertika jauziaren erronka. 1… 2… 3…hortxe

noa. Zerua bera ere gainditu dudala iruditu zait. Pertsonak inurri txikiak dirudite hemendik.

Igandea. Esnatu eta anaiak egunkaria eskaini dit begiradatxo bat bota diezaiodan. Dotore agertzen naiz argazkian, domina eta guzti. Artikulua irakurtzeari ekin diot berehala:

"*A.H. KIROLARI FAMATUA GARAILE.- Atzo, larunbata, Abraham Hassam pertika jauzilari gazteak garaipena lortu zuen 530 zentimetroko altuera gaindituz.Kirolariak…* ring… *azaldu…* ring… *digunez…* ring… *ohore…* ring… *handia…* ring… *izan da…*"

Jaiki egin naiz baina berandu. Dagoeneko telefonoa isildu egin da. Ez dakit nork deitu duen. Egunkaria lurrera erori zait eta orrialde guztiak zoruan zehar sakabanatu egin dira. Artikulu hau ez dut oraindik irakurri:

*"A.H. IZAN DA HILDAKO BAKARRA.- Atzo, larunbata, Abel Habib marokoarrak heriotza ezagutu zuen Afrikaz bestalde egiteko hesia gainditzen saiatzerakoan. Iritsi zaizkigun datuen arabera, 87 zauritu daude eta polizia hamazazpi urte dituen gazte baten bila ari da momentu hauetan."*

# Agirre Asteasukoa

Itsaso Amaia Paia Ruiz
Ander Deuna ikastola
Sopelana

*Barka dezala Joan Bautista Agirrek berari buruz esatera noan guztia.*

– Jauna zuekin...

– Eta zure espirituarekin.

– Anaia-arrebok, igandero legez Jaunaren etxean batu gara eukaristiaren ospakizuna...

Igande eguzkitsu bateko eguerdiko hamabiak dira eta kalean egon beharrean, bertan gaude herriko biztanle guztiak, elizan, bai elizkoiak eta bai ateoak, ez baitago zeregin hoberik igande goiz batean Asteasun. Baina, ez ezazue pentsa behartuta gatozenik Jaungoikoaren etxera edota asper-asper eginda egoten garelako gurean: Agirre Asteasukoa ezizenarekin ezagutuko duzuen gure herriko apaizaren predikua entzutera dator herri osoa. Bera erretore dugunetik kristautasunak gora egin du inguruotan eta elizan eserleku gehiago jarri behar izan dira. Bizkaiko hainbat herritik etortzen dira eliztarrak gurera eta noiz edo noiz Arabatik ere etorri izan dira Gipuzkoako sermoigilerik onenaren esanak entzutera. Donostiako hiritar aberats batzuek bere argazkia-

rekin egindako alkandorak, postalirudiak, posterrak eta hainbat oroigarri ezberdin ekoizteko eta merkaturatzeko asmoa adierazi dute. Bizkaiko jauntxoek, berriz, kanonizatzeko garaia heldu ez ote den uste dute. Euskal Herri osoko eta Espainiako hiri handienetako udaletxeak Elizari dirutza izugarria ordaintzeko prest izaten dira gure herriko bitxirik preziatuena ordu pare batez beraien elizako pulpituan izateko. Baina, gaztelaniaz euskaraz bezain ondo moldatuagatik, hainbestetan penintsulako eliza ospetsuenetan meza emateko luzatutako gonbidapen guztiak gutxietsi izan ditu, agian, bekatua arrotzengan ikusten duelako.

– Azkenak lehenak izango dira!

Gaurkoan ere berandu heldu naiz mezatara. Normalean ordu laurden arinago irteten naiz etxetik, baina badirenez ordu erdi eta ordu bete arinago irteten direnak ere, ezinbestean azkeneko lerroetan jarri behar izaten dut. Hemendik ez zaizkio keinuak hain ondo ikusten, baina bere hitzak lehenengo lerrotik bezain ondo entzuten dira. Tira, horrela berak ere ez dizkit axota eta paperak ikusiko.

– Eta Jaunak Adanen saihetsa hartu zuen…

Gaurko gaia emakumea da, azken boladan arrakasta gehien izan duena. Ez pentsa, ordea, Ama Birjinez edo lekaimeez hitz egiten duenik. Horiek dauden horretan uzten ditu. Ez, ez, Agirre Asteasukoari museoko emakumeei buruz hitz egitea gustatzen zaio, ikusi eta ikusi eta ezin uki daitezkeenez.

– … Jaunak ezin izan zuen Deabruaren ukitua saihetsi.

Duela bi aste herriko ardandegiko Matilde lotsaren lotsaz elizatik irtenarazi zuen. Adan eta Evarekin hasitako eguna ardoarekin bere gorputza saltzen zuen sugearekin

amaitu zen. Hura ikuskizuna! Gehien errepikatu ohi duen hitza *onestidadea* da. Onestidadea gora, onestidadea behera. Jaunartzetako elizkizun batean, ehun eta berrogeita hamar aldiz errepikatu zuela zabaldu zuen herrian ume batek.

– Jaungoikoaren bildots bedeinkatua, libra gaitzazu Gaizkiaren atzaparretatik!

Astean zehar ez da beste ezertaz hitz egiten Asteasun ez eta beste ezer saltzen: Okinak ogi bedeinkatua saltzen du, esnedunak esne bedeinkatua eta Matildek, duela bi astera arte, urarekin nahastatutako ardo bedeinkatua saltzen zuen. Turista guztiak gurera erakartzeko iman ezin hobea da. Bera gure elizako burua denetik sekulako lana dugu herrian, ez baita unerik Asteasuk kanpotarrik ez duenik. Ostatuko ugazabak ere gela gehiago jarri behar izan ditu, sarritan jende kopurua gainezkatzen delako. Guztiak odolik gabe sangratzea izaten da herri guztiaren zeregin eta afizio nagusia.

– Mutikoaren *perdizioa* eta poltsikoaren *maldizioa*!

Hala ere, ez ezazue pentsa, Agirre gure artean denetik, bera ez zegoenean baino lehenago akabatzen dugunik urtea. Sakelatik alargundutako guztien dirua ez da nahikoa izaten herriko zekenkeria gosean berdintzeko. Ondorioz, azken boladan ospetsu egin den beste moda bat barreiatu da elizaraino: jostunak, esaterako, diru kopuru interesgarri bat ordaindu zion atzo sakristauari gaur predikua emakumeen janzkerari buruz izan zedin. Eta iparraldeko mugaz bestaldekoek esaten duten moduan: *voilà!*

– Bertsoak jartzeko modukoak!

Honezkero ordu laurden bat darama emakumeen itxura maiseatzen. Orkatilak bistan uzten dituzten gonak, emakume ugatsuek ibiltzen dituzten atorrak edota ostekoa ostendu beharrean agerian uzten duten amantalak. Ziurrenik, sermoi hau entzunda, bihar goizean herriko emakume gehienak jostunarenean izango dira, alkatearen emaztea eta maitaleak barne. Eta modu berean gertatuko da hurrengo astean zapatariarekin, eta hurrengoan harakinarekin, eta hurrengoan altzarigilearekin, eta hurrengoan... eta gero munduan lehiakortasun desleialaren istorioa entzun beharra!

– Zeruan ez da halakoentzako lekurik! Ezta Lurrean ere! Asteko damua, igandeko mamua!

Oraindik gogoan daukat aitak honetaz esaten zidana: “Zure amak harrapatu izan ez banindu, dudarik gabe apaiz sartua nengokeen aspalditik. Lan egun bakarra aste osoan eta a zer nolako lana! Ni ere atsegin handiz aberastuko nintzateke igandero ostiak banatzen!”. Hura arrazoia gure aitarena! Gainera, gurean ostiak ez ezik irainak ere banatzen dituzte, eta ez futbol partidetako horiek bezain bigunak. Niri gehien atsegin zaizkidanak morroindegia aipatzen duenean agertzen dira. Putetxea beharrean bordel hitza darabil, sexu jarduna beharrean lasaikeria, koitoa gorputzaren bekatua da...eta liburu bat egiteko besteko hitz zerrenda osa lezake.

Hau guztia esanda suposatzen dut irriketan egongo zaretela Asteasura etortzeko. Joan den astean Zumarragako lehengusu-lehengusinak gonbidatu nituen elizara eta oso gustura onartu zuten gonbidapena, baita primeran pasatu ere. Uste dut hurrengo igandeko sermoia ardoari buruz izango dela, atzo Matilde bera ikusi bainuen sakristauaren

etxera bidean, zorroa zintzarriz betea zeramala. Besterik gabe, laster elkar ikusiko dugulakoan eman iezaiozue musu handi bat izeko Mariri eta besarkada samur bat osaba Andoniri. Zuen Asteasuko lehengusua,

Erauskin Agirre Laxtart

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Hegaz

Iera Uriona Perez de San Roman
Barrutialde institutua
Arratzu

Atzera azken begirada. Aurrera begiratzen duzu, gero behera. Begiak itxi eta birritan pentsatu gabe, pausu bat aurrera. Beldur zara, altuera dezente dago. Zure gorputzaren aurka hasi da airea borrokan. Hegaz ari zara, txoria bezala, txoria bezain libre. Begiak zarratzeko bultzada larri bat daukazu, ez duzu ezer gehiago jakin nahi. Baina begiak zabaldu dituzu. Beldurra zure begietan isladatzen da.

Inon entzunda izan duzu, momentu larrietan, kamera geldoan gertatzen dela guztia, eta zure bizitzan zehar gertatutako ekintza garrantzitsuenak gogoratzen dituzula segidan. Momentu hau larria da bai zuretzat, eta inon entzundako txorakeri hau, egia dela ziurtatzen duzu.

Ama negarrez ari da. Inpotentzia negarra, kolpeek eragindako negarra, sufrimendu negarra. Ama ikusterakoan, jostorratz fin eta txiki baina madarikatu batek bihotzean ziztada egiten dizula nabaritzen duzu. Nahiz eta fina eta txikia izan, jostorratzak ikaragarri min egiten dizu.

* * *

“Aita ez da gaiztoa. Amak esaten du edan egiten duelako egiten dituela gauza txarrak. Ez, aita ez da gaiztoa. Baina aitak ez du beti edaten. Baina aita ez da gaiztoa. Baina beste pertsona bati min egiten badiozu gaiztoa izatea da, eta aitak amari min egiten dio, niri ere bai. Baina ez da aitaren errua. Baina... Baina zer!

Nik ez dut ama gehiagotan negarrez ikusi nahi. Berak ez du merezi! Amak ez du ezer txarrik egin! Aita gaiztoa da! Bai! Nire aita gaiztoa da...”

Lurra gero eta hurbilago dago. Ezin atzera itzuli, ezta nahi ere. Begiak itxi dituzu. Bi negar tanta ageri dira. Amorrua. Ez duzu ezer gehiago pentsatu nahi.

Orain aske sentitzen zara.

Baina sentimenduak zure buruan ari dira bueltaka eta beste eszena bat datorkizu burura. Telebista ikusten ari zara. Ama, beti bezala, sukaldean ari da jo eta ke.

Pausuak. Tap, tap, tap, …

Giltzak elkar jotzen ari dira, baina batek bakarrik lortzen du sarrailaren zulotik sartzea.

Pausu arinak. Ama da. Zuregana dator presaka. Muxu goxo, esti eta bigun bat oparitzen dizu. Zuk irribarre egiten diozu eta berak itzuli egiten dizu.

– Ezkutatu zaitez, arin! Ez irten nik esan arte, ulertzen?

Zuk baiezkoa ematen diozu buruarekin. Beldurtuta zaude.

– Maite zaitut laztana.

Aita etxean dago jada. Zu atearen atzean zaude ezkutaturik. Belarriak eskuez tapatu eta begiak gogor itxi dituzu.

Aita zarataka hasi da. Pum! Lehenengo kolpea. Nahiz eta belarriak eskuekin tapatu guztia entzuten duzu. Ez duzu ezer entzun nahi. Eskolan ikasitako azken kanta abesten duzu. Berdin da, kolpeen soinuak hor daude. Baita jostorratz madarikatua ere. Baina zuk abesten jarraitzen duzu. Gero eta altuago, gero eta altuago, gero eta altuago...

Ez duzu ezer entzuten. Isildu egiten zara. Begi bat zabaltzen duzu. Arnasarik gabe gelditzen zara. Jostorratzak bere lana bukatu du. Zure bihotza mila zatitan dago. Ama lurrean botata dago. Bere begirada goibelak jostorratzari indar ikaragarria eman dio.

Aita arnasa hartzeko gelditu da. Izerdia kendu du kopetatik eta ekin!

Oraindik ez da gustura gelditu.

"Ez ahal du ikusten ama hil egingo duela!!"

Ostikada bat, beste bat eta beste bat... Amak jada ez du oihurik egiten. Aitak bai, ordea. Oihuak eta oihuak eta oihuak...

"Ezin dut gehiago!"

Isilunea.

Zure arnas larria besterik ez da entzuten. Zure eskua begiratzen duzu.

Begiak topera zabaldu dituzu. Aiztoa eskutik erori zaizu. Aita ere lurrera erori da.

Bere odolak zure oin biluztuak ukitzen ditu. Suak bezala erretzen dizkizu oinak.

Aitari begietara begiratzen diozu. Gero amari. Amaren begirada noraezean galdurik dago. Gero leihoa. Zabalik dago. Leiho gainean zutik jartzen zara.

Atzera azken begirada. Aurrera begiratzen duzu, gero behera. Begiak itxi eta birritan pentsatu gabe, pausu bat aurrera.

**[...]**

Azkenean behera iritsi zara. Inurriak sentitzen dituzu zure gorputzetik gora eta behera. Zure buruaren barnean kolpe bortitz batzuk ikaragarri min egiten dizute. Gorputzeko beste atalak ez dituzu ia sentitzen. Momentu honetan zuretzat ez dira existitzen. Bakarrik burua. Pom! Pom! Pom!……

AAAAAAAAAH!!! Oihu bortitz egin duzu. Baina kolpeak ez dizu zure oihurik entzuten utzi.

Orduan, bizirik zaudela gogoratzen duzu.

Gutxika-gutxika kolpeen soinua baretzen doa, baina beste kolpe batzuk nabaritzen dituzu. Oraingo hauek bularretik datoz. Zure bihotza da. Jostorratz madarikatuak ez du nahi izan zure sufrimendua bukatzea. Hor dabil oraindik ere lanean.

Jada, buruko kolpeak bukatu egin dira eta gorputzaren atalak esnatzen hasi dira. Hankak, gerria, lepoa, besoak…

Begiak zabaltzen dituzu. Odola...

Odola kantitate handian. Odolaren atzean, kalea, jendea. Ez duzu lortzen ezer argi ikustea.

Entzumena. Oihuak. Jendearen oihuen artean, soinu ezagun bat. Anbulantziaren sirena alegia. Gorriz jantzitako gazte batzuk anbulantziaren barruan sartzen zaituzte kontu handiz. Konortea duzula ikusita, kontu handiz zauriak sendatzen hasi zaizkizu. Nola zauden galdetzen dizute, baina zuk ezin duzu erantzun. Ahotsa blokeaturik daukazu.

Halako batean norbaitek eskutik heldu dizu. Begirada zure eskua helduta duenarenganantz daramazu.

Jostorratzak azkenean amaitu du bere zeregina.

Irribarre egiten duzu.

Ahotsa desblokeatzea lortu du pertsona horrek.

“AMA !!”

# Lur azpian

Jon Cadierno Gutierrez
Iparragirre institutua
Urretxu

Iratzargailuak jo zuen goizero bezala, ordu berean. Ahal izan balu, ohe pareko armairuaren kontra botako zukeen, baina zertarako? Ez al zuen behar dirua bizitzeko? Nahiz eta goizero gauza bera pentsatu, erloju zaratatsua mahai txikiaren gainean utzi zuen, lanpararen eta *Soinujolearen semea* liburuaren aurrean. Egunen batean liburu hura bukatu beharko zuela gogoratu zen. Logelatik atera eta, pijama kendu gabe, sukaldera joan zen gosaltzeko gogo handiarekin. Erloju batek zazpiak bost gutxi markatzen zituen, beste batek hamar gutxi. Bi magdalena hartu eta mahaira eraman zituen tearekin batera. Gortinak ireki zituen betiko paisaia eta egoera ikusteko. Autobideko garraio arazoak, lantegiko tximiniatik ateratako kea, bizilagunaren txakurra etxetik ihes egiten eta pixkanaka-pixkanaka auzoa nola hutsik geratzen zen gaua arte. Telebista piztu zuen ea berriren bat zegoen, baina ez, berririk gabe geratu zen goiz hartan; Irak, Bush, Ibex 35aren beheraldia, euroaren garapena, petrolioaren prezio igoera, egunero berdin. Azken magdalena zatia irentsi eta tearekin bukatu zuen. Gortinak itxi eta telebista itzalitakoan, logelara joan zen arropak janztera eta ohea egitera. Zapatak ondo lotu, aurpegia garbitu, atea ireki eta lanera. Igogailuan betiko

emakumearekin egin zuen topo, han beti bezala txakurraren bila zihoan. Andre gaixoak ez zekien zer egin txakurrak alde ez egiteko, dirudienez, animalia madarikatuak leihotik behera egiten zuen salto ordu berean, frutaren kamioia iristerakoan. Zorionez, emakumea eta bere deabrua lehenengo solairuan bizi ziren. Ez zuen ulertzen ez andrearen ez txakurraren jarrera. Batak egunero leihotik behera salto egiteagatik, eta besteak lehenengo pisuan igogailua deitzeagatik. Egunero *O* botoiari eman eta egunero lehenengo solairuan gelditu. Emakumea lehenbailehen agurtu eta kalera atera zen eguneroko trena hartzeko asmoz. Metroko geltokira iritsi zen; betiko egoera. Ehun eta zazpi eskaloi, bost minutu eta hogeita bost segundo trenaren zain, hamasei minutu eta erdi betiko eserlekuan jende berdina behatzen, eta azkenean *tin!!!*, jaisteko momentua iritsi zitzaion. Beste laurogei eskaloi igo eta hiriko enparantza nagusian zegoen. Orain bi kale ezkerretara, eskuinetara okertu eta lau minutu ibili beharko zuen Karmakros liburudendara iristeko. Giltzak atera, atea ireki eta argiak piztu zituen. Berriro ere erori zitzaion buru gainera National Geographic-eko faszikulu bat atea itxi zuenean. Erlojura begiratu zuen: zortziak hiru gutxi. Termometroak 21ºC markatzen zituen dagoeneko denda barruan. Zortziak eta hamarretan lehenengo bezeroa iritsi zen, betikoa. Egunkaria eman eta dirua jaso zuen. Ez al zuen noizbait zer edo zer ezberdina erosi behar? Hamahiru bezero eta bi txakur ordu bata arte. *Soinujolearen semea* eramango zuen goiza aspergarriagoa ez izateko.

*Tin!!* Berriz ere enparantza nagusian zegoen etxean bazkaldu eta gero. Poltsikotik hogei zentimo atera eta hiru aldiz eskerrak ematen zizkion eskaleari txapelean utzi zizkion. Betiko egoera; lau minutu ibili eta bi euro eman zizkion lote-

ria saltzaileari. Behin betirako jokatuko zuen zenbakia eskatu zion: 00001. Ziur zegoen ondorengo berrogeita hamar urtetan saritua aterako zela eta irabazitako dirua ondo aprobetxatuko zuen, adibidez, bizilagunari txakur ez hain leloa oparitzen. Arratsalde horretan hemeretzi bezero, hiru txakur, bi katu eta bost bat euli sartu ziren dendara. Oraingoan, National Geographic-eko faszikulua bi bezero eta txakur baten gainean erori zen eta hirurak haserretuta atera ziren dendatik: "beti berdin!, beti berdin!". Bernardo Atxagaren liburua eskuetan zuela hiru, bi, bat, zero kontatu eta arratsalderoko emakumea sartu zen. Ez "Kaixo" ez "Agur" esan gabe, *Diez Minutos* eman eta dirua jaso zuen. Ez al zuen inoiz *Pronto* erosi behar?

*Tin!!* Metroko geltokitik atera eta euro bat eman zion negarrez zegoen mutiko bati. Umeari pena guztiak ahaztu zitzaizkion eta gozoki dendara joan zen 300 gramo kakahuete erostera. Atariko atean lehenengo pisuko emakumea zegoen, txakurra bere hanken ondoan zuela. Txakurrak, ostegunero bezala, hanka bendatuta zeraman baina, beti bezala, ostiralean sendatuta zegoen, mirariak. Atea ireki eta lasterka igogailura igotzean erori eta ukondoa okertu zuen, baina ohituta zegoen. Aspertuta zegoen, egun guztiak erabat homogeneoak, minuturo hogeita lau ordu atzerago gertatutakoa agertzen zen bere begien aurrean. Afaltzeko gogo eza zuen eta lehenbailehen ohera sartu zen pixkatxo batez irakurtzera eta iratzargailuarekin zerbait egitera.

Iratzargailuak jo zuen goizero bezala baina lehen baino goizago. Pilak gastatu al zitzaizkion? Ez, baina bere buruak aldaketa ugari izan zituen. Goiz hartan ez zeukan erlojua apurtzeko gogorik, egun ezberdina izango zen. Ohea egin eta arropa jantzi zuen orraztu eta garbitu ondoren. Er-

loju batek sei eta erdiak markatzen zituen, besteak ere bai. Bi laranja hartu zituen eta sagar batekin batera mahai gainean utzi zituen. Ez zuen gortinarik ireki, zer demontre nahi zuen begiratu? Musika jarri zuen eta lasaitasun zoragarria aurkitu zuelarik, begiak itxi zituen momentu batez. Zazpiak hamar gutxitan aulkitik jaiki, zapatak jarri, giltzak hartu eta igogailura sartu zen. Azkenean lortu zuen traste hura lehenengo solairuan ez gelditzea emakumearen erruz. Atariko atea atzean utzitako momentuan frutaren kamioia iritsi zen; hiru, bi, bat... ia buru gainean erori zitzaion txakur kaikua. Animalia gibeletik ondo heldu eta kamioi barrura sartu zuen, behin betirako.

Ez zuen trenik hartuko, oinez iritsiko zen liburu-dendara zenbait kilometro ibili ondoren, hamasei errepide zeharkatu, hamabi eskaparatetan gelditu, bi aldiz erori eta katu baten isatsa zapaldutakoan. Trenez baino ordu erdi gehiago kostatu zitzaion atea ireki eta faszikulua buru gainean erortzea. *Soinujolearen semea* irakurtzen ari zela eguneroko gizonik azkarrena iritsi zen axota bat erosteko asmoarekin. Eta egunkaria? Axota urdina nahi zuen, ez beltza, ez gorria. Gizonak pozik zirudien, bere biloba maitearen lehen eskola eguna zelako eta, bere ustetan, boligrafo bat oparitzeak zoriontsu jarriko zuen neskato txikiaren aurpegi errugabea. Laurogei zentimoak gorde eta berriz ere eseri zen aulkitxoan. Begirada bat eman zion dendari; ondo zegoen. Baina ez zuen ulertzen hain pozik ez egotearen arrazoia, egunaren errutina aldatzea lortu zuen eta hala ere, ez zuen ezer berririk sentitzen. Hain ohituta al zegoen bere gorputza XXI. mendeko bizitzara? Bat-batean azaldu zen Karmakros liburu-dendan enparantzako eskalea. Janaria erostera joan ordez, bere dendan azaldu zen eskuetan lau euro zituela. Behatz batekin National Geographic aldizka-

ria seinalatu zuen, bazen ordua. Eskailera bat hartu eta faszikulua eman zion eskaleari. Gizon zahar eta argalaren aurpegian alaitasuna nabaritu zuen eta, gainera, ez zuen kolpe gehiagorik hartu. Atsoak egunkaria hartu eta berrogeita seigarren orrian zabaldu zuen. "Gaurko zenbaki irabazlea: 30001". Eskalea denda barruan bakarrik utzita, poltsikotik kupoia atera eta saria kobratzera abiatu zen, non egin jakin gabe. Gizona bere atzetik zetorren, aurpegi alaiarekin. Denda pareko errepidean frutaren kamioia gelditu zen eta halako batean bizilagunaren txakurrak espaloira egin zuen salto. Atsoarenganantz abiatu zen eta bere hanken inguruan etzanda geratu zen. "Hau da nik nahi dudana, gizakiaren lagunik onena nire hanketan izatea". Hain irudi ederra atzean utzi eta kupoia kobratzera joan zen pareko espaloira. Minutu batez buruari hainbat buelta eman zizkion; bere ustez, hamalau mila euro gehiagorekin ezin zuen bere bizitza erabat aldatu, egunero gauza bera egin behar izango zuen, eta diruarekin ezin zuen ohiturarik aldatu. Hala ere, dirua hartu egin zuen eta bederatzietan bizilagunak atea ireki zuenean oparitxo bat eman zion. "Hau hobeagoa da, ez da hain leloa".

# Ezabatu ezin den iragana

Mikel Mancisidor Iztueta
Larramendi ikastola
Andoain

Nirearen antzeko haurtzaroa pasatzera behartuak izan ziren haurrekin batera nengoen argazkia hartu dut. Urteen poderioz gainean pilatu zaion hautsa eskuaz kendu, eta ganbarako zoru zaharkituan eseri naiz. Bertan ageri naiz aurpegi lotsatiz, adin horretan argazki makinei nien beldurragatik ziurrenik. Oharkabean, argazkiak hutsik utzi duen tokian eguneroko zahar bat topatu dut, orrien artean, letra ez oso txukunez eta lerro okerretan, nire eskutik idatzitako garai zail haietako istorioak gordetzen dituena. Argazkiari begirada bat bota, eta hainbat oroitzapen etorri zaizkit burura; batzuk, nola ez, oso pozgarriak, baina beste gehienak, barnean saminez betetako eta kanporatu gabekoak ziren.

Sinestezina dirudien arren, gogoan ditut nire negar oihuak eta gurasoen besoetatik ez aldentzeko alferrikako saiakerak. Euri tantak haina malko isuri nituen, ekaitzaren erdian eta inolako babesik gabe, lainoz beteriko zerupean, garai haietan oso entzute oneko umezurztegi erraldoi batean, guraso deituriko pertsona haiek abandonatu ninduten zorigaiztoko egunean. Oraindik akordatzen naiz, amak kolore ajeatuko trapu zahar batean bildurik, oso txikia nintzela, aurrerantzean nire etxea izango zen toki haren ata-

rian utzi ninduenean jarri zuen aurpegi tristeaz. Berak ere malkoz beteak zituen begi urdin haiek ezin ahatz daitezke horren erraz, ez eta urteen poderioz ere. Izan ere, izugarrizko tristura islatzen zuten, ia beti pozik agertu ohi ziren begi handi haiek. Aitaz ordea ezer gutxi akordatzen naiz. Ez naiz berari buruzko xehetasun bakarra gogoratzeko gai. Berari buruz dakidana, garai bateko argazki makina zahar haiek gordetzen zituzten momentuak erakusten zituzten erretratuei ordu luzez begiratuz jakin dut.

Umezurztegi paristarrean, *Les Enfants de la France* deiturikoan, pasatu behar izan nuen haurtzaroa. Zehazki esanda lau mila bostehun eta laurogeita hamabi egun. Ez ziren egun errazak izan, ez niretzat eta ez gainontzeko haurrentzat ere. Umezurztegia baino, presondegia zirudien hark. Eguna lau hormen artean itxita pasatu beharrak, kirioak dantzan jartzen zizkidan. Gosea pasatzen genuen gehienok, eta gogor lan egin behar izaten genuen. Baina, hori guztia hutsaren hurrengoa zen, bertan gertatu zitzaizkidan gainontzeko gauzekin alderatuz gero.

Batzuetan, egun luze haiek alferrik galdutako uneak direla iruditzen zait, baina beste askotan zalantzan jartzen dut ez ote dudan borrokalaria izaten ikasi urte latz horien bidez. Nork daki! Neroni ere buruhauste itzelak ekarri dizkit auzi honek eta amorratuta saiatu ostean, ezin izan dut erantzun trinkorik topatu. Baina beste galdera bat dabilkit buruan jira eta bira mukizu hutsa nintzenetik. Zergatik? Zergatik abandonatu ninduten nire gurasoek? Egia esan, ez dut orain arte ezkutuko lurralde ezezagun batean egon diren erantzunak sekula topatzeko itxaropen handirik. Baina egunen batean harantz zuzenduko nauen maparen bat nire eskuetara iritsiko balitz, nire barneko samina erabat desagerraraziko luke, eta zoriontsu izango nintzateke.

Umezurztegian nengoen bitartean idatzitako egunerokoa esku artean dudala hainbat istorio gogora ditzaket, baina seguruenik denboraren poderioz nire burutik aldentzen joan diren beste hainbat orrialde horixka hauen artean ezkutaturik egongo dira. Zabaldu egin dut. Momentu batez, dardara bortitza sentitu dut gorputz osoan. Irakurtzen hasi, eta berehala ezagutu dut zortzi urte eskasekin nuen idazkera traketsa.

“1947ko azaroaren 6a.

Gaur atera naiz zigorren gelatik bost egun luzeen ondoren. Gerard jaunak izugarrizko astindua eman dit gosaritarako prestatu diodan kafesnea mikatzegia zegoelako. Nire onerako dela dio, baina ni ez nago horren ziur. Zergatik izan behar dugu nagusien esklabo? Ez dut ulertzen. Egunen batean hemendik atera eta hegoaldeko hondartza beroetan pasatuko ditut egunak, olatuei begira, eguzkia haien atzean nola ezkutatzen den ikusiz. Baina noiz helduko ote da egun hori?”

Gogoan dut zigorren gela, eta baita Gerard jauna ere. Umezurztegiko zuzendaria izanik, haur guztiak haren esklabotzat zituen. Gizon handia zen, bizarduna eta oso bizkorra. Baina ez zuen txantxa txikienik ere onartzen eta zeharo maltzurra zen. Ez zuen bihotzik, eta noizbait eduki izan balu, oso ezkutuan beharko zuen egun osoa haurrak jo eta jo aritzen baitzen. Baina ez zen bera bertako langile bakarra, ez horixe. Marilisse andereñoa, emakume alargundua, matematika, hizkuntza eta geografiako irakaslea genuen. Lucious jauna, berriz, hain aspergarriak zitzaizkigun historia eta literaturako ikasgaiez arduratzen zen.

Hasiera batean, benetan ezagutu aurretik, oso pertsona atseginak ziruditen hirurek. Kanpotik zetozen guztiekin oso adeitsuak izan ohi ziren, beti irribarretsu, haien hortz-haginak mundu osoari erakutsi nahiko balizkie bezala. Baina atea itxi bezain laster, udako bat-bateko ekaitzetan agertzen diren laino beltzen modura, haien bekozkoa ere erabat iluntzen zen. Baina hori ez zen okerrena. Han pasatu nituen egunik okerrenak zigorren gelakoak izan ziren.

Edozein aitzakia, zein baino zein zentzugabeagoa, nahikoa zen haur bat hara bidaltzeko; ohean txiza egiteagatik, barre egiteagatik, elkarri isilpean hitz egiteagatik... Gela erabat iluna zen, edozein ziega bezain beldurgarria. Hara sartzen nindutenean, buruari bueltaka hasi eta negarrez bukatzen nuen. Izuak barrenak mugitzen zizkidan, eta irteera gabeko tunel batean nengoela iruditu ohi zitzaidan. Han bakar-bakarrik egoteak oso urduri jartzen ninduen, eta sentitzen nuen egonezin hura oihuka hasiz baretzen nuen. Baina orduan: “zapla”! Ikaragarrizko masailekoa eman ohi zidan Gerard jaunak, ahaztezinak diren masaileko latz horiek bezalakoa.

Oroitzapen latzak dira eta ezin izan ditut urteak igarota ere neure burutik uxatu. Zigorren gelako momentu haiek ahazteko-edo orrialde batzuk aurrera egin dut nire eguneroko zaharrean zehar.

“1948ko abuztuaren 29a

Gerard jauna inoiz baino urduriago dabil. Ez dakit zer duen baina egunetik egunera gero eta zartako gehiago banatzen ditu gure artean. Gainera gaur bertan hamabost bat urteko mutil ugari eraman dituzte umezurztegitik. Triste nago, ni ere hemendik alde egiteko irrika bizian bainago.

Zorionekoak beste horiek! Gurasoak izango dituzte azkenean, gu hemen Gerard jaunaren eskuetan usteltzen garen bitartean. Baina ez dut itxaropenik galduko. Egunen batean, ustekabean, guraso perfektuak agertuko dira ni semetzat hartu nahirik, seguru baietz! Baina ez ote dut hamabost urte bete arte itxaron beharko?Ezetz espero dut!"

Gogoan dut egun hura. Amorratuta sentitzen nintzen, oraindik ere kartzela hartan sartuta nengoelako. Ez nuen ulertzen zergatik izan behar zuten batzuk horren zortedun, bera bezalako beste batzuk zoritxarreko ziren bitartean. Gainera joan zenetako bat txiki txikia nintzenetik, sekula izan ez nuen anaia nagusiaren pareko izan zen niretzat. Beti aholkuak emanez, momentu zailenetan ere hor egoten zen nire alboan. Jack izena zuen, mutil sendo eta altua zen, edonor beldurtzeko modukoa. Baina estalki horren azpian gordetzen zen mutila oso bestelakoa zen. Erabat sentibera zen eta iluntze bakoitzean gelako leihotik begira, eguzkia mendien atzean nola gordetzen zen ikustea zuen gustuko, azken printzak aurpegian gogor jotzen zioten bitartean. Horrez gain, idazle aparta zen eta literatura oso atsegin zuen. Poesia ugari idatzi zituen, zein baino zein hobeak. Baina ez zuen bere dohain hori inori erakusteko ausardia izan, niri bakarrik. Bere lan guztiak irakurtzen lagatzen zidan eta erabat txundigarriak zirela aitortu beharra dut. Besteek, ordea, maritxutzat hartuko zuketen, garai hartan beren sentimenduak adierazten zituzten gainontzeko gizon gehienekin egiten zen bezala.

Jack joan zela esan zidatenean negarrez hasi nintzen, baina neure buruari gogor egin nion eta ez nuela beste malko bakar bat ere isuriko erabaki nuen. Baina logelara igo eta bere ohea hutsik ikustean ezin izan nion negarrari eutsi. Negar batean hasi nintzen atzetik Gerard jauna hur-

bildu eta itzelezko zaplaztekoa eman zidan arte. “Gizonok ez dugu negarrik egiten!” esan eta alde egin zuen, nire masaila bero-bero utzi ondoren. Ordurako ohitua nengoen horrelakoetara, baina egun hartan barne-barnean egin zidan min zuzendari bihozgabe hark. Nire tristura amorru bilakatu zen segundo gutxitan eta ia oihuka hasi nintzaion. Baina bi aldiz pentsatu ostean, isilik geratzea hobe izango zela erabaki nuen.

“1949ko abuztuaren 29a”

Urtebete pasatu da Jack joan zenetik. Gogorra izan da azken urte hau, baina uste dut ohitzen ari naizela. Baina ez da hori kezkarazten nauena. Gau aldera, erabat lokartuta nengoela, bat-batean soinu batek esnatu nau. Leihotik begiratu dut erdi izuturik esnatu nauen hots hori zer zen argitzeko. Motor hotsa zen, “Les Enfants de la France” jartzen duen burdinazko atearen alboan geldirik eta misteriotsu zegoen kamionetaren motor hotsa. Zertan ote zebiltzan ordu hartan? Ez ziren bada lapurrak izango? Horiek izan dira burura etorri zaizkidan lehen galderak. Baina ondoren itzal ugari ikusi ditut pauso bizkor bezain baldarrean, erdi beharturik joango balira bezala ibilgailura oso astunak zirudien maleta handiekin sartuz. Erdi izuturik edo, izara zurien azpian gorde dut neure burua kanpoko arazoetatik aldenduko banindute bezala. Baina orduan, zera pentsatu dut: “Gizonek ausartak izan behar dute”. Eta berriz ere leihora hurbildu naiz. Baina bat-batean nire harridurarako Gerard jaunaren gorpuzkera dotorea nabarmendu da iluntasunaren erdian. Ez nenbilen nahastuta, ez horixe, baina berari begira nengoela, ustekabean bira eman eta ni nengoen leihorantz begira geratu da. Sustoaren sustoz atzerantz erori eta nahi gabe logelako argia piztu dut.”

Atzo bertan gertatu balitz bezala gogoratzen dut argia piztu nuen momentu hura. Izugarrizko beldur sentsazioak bereganatu ninduen, eta hala ere, argia berehala itzaltzeko gai izan nintzen. "Konturatu ote dira?" pentsatu nuen neure baitan ilusio faltsuak eginaz, erabat ziur bainengoen ohartu zirela. Artega, ohera sartu nintzen gertatutako guztia ahaztu nahian. Etzanda nengoela, motor hotsa aldentzen zela sumatu nuen eta horrek dezente lasaitu ninduen. Baina bat-batean, ia loak hartzera nindoala, logelako atea zabaldu eta Gerard jauna sartu zen, dotore, baina bere aurpegiko zimurrek erakusten zuten bezala, haserre bizian:

– Zertan zenbiltzan leihotik begira? –galdetu zidan ahots ozen eta sarkorraz.

– Motor hots batek esnatu nau, eta leihora hurbildu naiz.

– Esan! Zer ikusi duzu? –galdetu zidan urduri Gerard jaunak, nire ohera hurbiltzen zen bitartean.

Zalantzan egon nintzen egia kontatu ala ez, baina azkenean egiaren erdia baino ez kontatzea erabaki nuen:

– Kanpora begiratu bezain laster zu ikusi zaitut. Eta honantz begiratu duzunean izutu eta lurrera erori naiz.

– Momentuz sinesten dizut txikito, baina kasualitatez beste ezer ikusi baduzu, hobe izango duzu mihia txuloan sartu eta sekula ez ateratzea, entzun? –egin zidan mehatxu.

– Bai –erantzun nion ahots dardaratiz.

– Pozten naiz hori entzuteaz, baina isilik egongo zarela ziurtatzeko...

*Plast*, *plast* izugarrizko astindua eman zidan Gerard jaunak sekula eman zidan astindurik bortitzena. Ikaraga-

rrizko mina sentitu nuen gorputz osoan, baina hitz egiteko gogoa ere kendu zitzaidan eta denbora luzerako gainera.

Hurrengo egunean guztiek begirada errukitsuz so egin zidaten jantokira sartu nintzen une berean. Ubelduraz betea nuen gorputz osoa, baina ezin nuen gertatu zena esan eta gauean eskaileretan behera erori nintzela kontatu behar izan nien. Guztiek bazekiten ordea zauri eta ubeldura haien atzean Gerard jauna zegoela. Ez nintzen "eskaileretan behera" eroritako lehenengoa ezta azkena ere izango, gizon maltzur hura berehala geldiarazten ez bagenuen behintzat. Baina zer ote zerabilten esku artean? Izan ere, bart kamioneta hartan ikusi nituen itzalak hamalau urte inguruko umezurtzenak ziren, goiz hartan ez baitzen haien arrastorik. Jackekin ere berdin gertatu zen urte bete lehenago, baina zergatik eramaten zituzten ezkutuan? Eta nora?

Berriz ere, egunerokoa esku artean hartu eta orrialde batzuk pasatu ditut. Txikitako istorioak irakurtzen noan heinean, gero eta gertuago sentitzen ditut bertan pasatutako kalbarioak eta bi indar kontrajartzen dira nire barrenean. Batak irakurtzen jarraitzera bultzatzen nau, baina besteak hori guztia ahazteko esaten dit. Azkenean irakurtzen jarraitu dut, zergatik ez dakidala.

"1949ko irailaren 23a.

Ez dakit zer demontre darabilen Gerard jaunak esku artean, baina seguru nago ez dela kontu garbirik. Ez diot inori gau hartan ikusitakoaz txintik esan, baina oso kezkatuta nago, batez ere Jackengatik. Gero eta haur gehiago daramatzate, baina guztiak hamalau urtetik gorakoak. Zer-

gatik? Ez dut arrastorik ere. Gainera zuzendari jauna gero eta kezkatuago dabil, ezkutatzen duen kontu ilun hori buruan bueltaka eta bueltaka duelako seguruenik. Ideia bat otu zait, baina oso arriskutsua da. Harrapatzen banaute, Gerard jaunak bertan akabatuko nau. Bere logelan sartzeko asmoa dut. Ea bere azpijokoei buruzko zerbait topatzen dudan."

Akordatzen naiz ideia burugabe hori otu zitzaidan momentuaz. Egun hartan Jackekin akordatu nintzen, eta oheratu aurretik berak idatzitako poesia bat irakurri nuen. Bere bizia kaiola txiki batean giltzapeturik pasa zuen txori bati buruzkoa zen, bertatik ihes egin nahi baina ezin zuena. Bertako hitz eta sentimenduek erabat hunkitzen ninduten eta ezin izan nion nire sentimenduak adierazi beharrari eutsi. Negar egin nuen. Niri ere txori hari bezalako zerbait gertatzen zitzaidan eta ez nuen ihes egiteko modurik topatzen. Jackek lortu zuen alde egitea, baina seguruenik Gerard baino piztia handiago baten atzaparretara. Orduantxe otu zitzaidan ideia, eta nire plan burugabe bezain arriskutsu hura gauzatzeko beste norbaiten laguntza behar nuela erabaki nuen. Baina nor ote zen horretarako egokiena? Izen bat etorri zitzaidan burura berehala: "Pierre". Bost urte eskaseko haurra izanik, bere begirada lotsatiaz edonor, bizkorrenen artean bizkorrena izanda ere, engainatzeko gai zen, eta beraz, itzelezko laguntzailea niretzat.

– Hara Pierre, zure laguntza behar dut.

– Zer nahi duzu? –galdetu zidan ahots finez bere aurpegi biribilean nolabaiteko jakinmina islatuz.

– Lehenik eta behin ez diozula inori kontatuko agindu behar didazu.

– Ez dut txintik ere esango hala nahi baduzu, neure hitza ematen dizut.

– Ongi da.Guztia duela aste batzuk hasi zen, gauerdian motor hots batek iratzarri ninduenean.Leihora hurbildu eta... –hasi nintzaion gertaturiko guztia urratsez urrats eta xehetasun bat bera ere ahaztu gabe kontatzen–...eta hori da guztia. Beraz, Gerard jauna entretenitu beharko duzu ni bere logelara sartzen naizen bitartean. Lan erraza horretara ohituta dagoen haur batentzat, ezta?

– Bai horixe! –erantzun zidan begiaz baiezko moduan keinu bat egiten zidan bitartean.

“1949ko irailaren 30a.

Gaur arratsaldean sartuko naiz Gerarden logelan. Ez dakit zer topatuko dudan, baina ziur nago oso kontu itsusietan sartuta dagoela. Guztia prest daukagu Pierre eta biok. Lan erraza izango da bakoitzak gure lana behar bezala egiten badugu. Ea misterio hau behin betiko argitzen dugun!”

Heldu zen garaia. Gerard jaunaren logelako egurrezko ate erraldoia poliki-poliki zabaldu nuen Pierrek bere lana egiten zuen bitartean. Isil-isilik hasi nintzen bertako txoko guztiak miatzen: liburuak, tiraderak, armairua... Bat-batean, ohe azpian begiratzea otu zitzaidan, eta kutxa handi bat topatu nuen bertan. Giltzaz itxita zegoen, baina berdin zitzaidan. Izan ere, Jackek txarrantxa batzuez edozein sarraila irekitzen irakatsi zidan eta lan horri ekin nion bi bider pentsatu gabe. Gero eta gertuago sentitzen nuen misterio hura argitzeko gakoa eta kosta ala kosta kutxa hura ireki arte ez nintzela handik mugituko agindu nion neure buruari.

Saiatu eta saiatu ari nintzen eta bazirudien ezin izango nuela nahi nuena lortu. Etsitzen hasita nengoen baina orduantxe sarrailaren karranka hotsa entzun nuen. Azkenean! Kutxa ireki eta nire ustekaberako milaka eta milaka franko agertu ziren neure begien aurrean. Ezin sinetsirik nengoen. Nola zen posible? Zur eta lur nengoen. Ez nuen sekula hainbeste diru ikusi! Baina bat-batean kaxa hark ezohikoa zen zerbait bazuela ohartu nintzen. Arretaz begiratzen hasi eta ezkutuko konpartimentu bat zuela jabetu nintzen. Zer ote zegoen barruan? Diru gehiago agian? Begira hasi eta dokumentu mordoska topatu nuen. Pauso hotsak sumatu nituen eta kaxa zegoen tokian utzi, paper pila hori hartu eta armairuan ezkutatu nintzen. Zorionez ez zen inor gelara sartu eta pauso hots haiek urrundu bezain laster bertatik atera nintzen.

“1949ko urriaren 1a.

Badakigu egia osoa. Gerard jaun nazkagarri horrek hitzarmen higuingarri bat egin zuen duela bizpahiru urte Estatu Batuetako aristokrata handinahi batekin. Sinestezina dirudien arren, diru truk umezurztegiko haurrak hara bidaltzen ditu jaun horren lurretan gogor lan egin dezaten. Garai batean afrikar beltzekin egin zena errepikatzen ari dela dirudi eta ez Pierre eta ez ni ez gaude horrelako bidegabekeriarik onartzeko prest. Topatutako dokumentuak froga gisa erabiltzeko asmoa dugu polizia frantsesak Gerard jauna atxilotu dezan baina horretarako hemendik alde egin behar dugu inork ikusi gabe!”

– Nor ibili da nire gelan? –galdetu zuen sutan Gerard jaunak frogak desagertu zirela ohartu bezain laster.

Inork ez zion erantzun eta guztiok zigortzea beste erremediorik ez zitzaion geratu. Guztiok geure logelatan gil-

tzapetu gintuen jatekorik eta edatekorik gabe, baten batek berari argibideren bat eman bitartean. Haserre bizian ibili zen egun pare batez eta batek baino gehiagok, merezi ez zuen astindua jaso behar izan zuen nire erruz. Damu naiz oraindik haur haiei pasarazi nien sufrimenduaz eta min handiena sekula barkamenik eskatu ez izanak ematen dit.

Infernu haren erdian Pierrek eta biok gure ihesaldia planifikatzeari ekin genion. Gauerdian gauero hotzetik babesten gintuen izarak elkarri lotu eta leihotik alde egiteko asmoa genuen eta baita hala egin ere.

Gaueko ordu txikitan umezurztegi hartako hesien gainetik jauzi egin bezain laster, aske, libre sentitu ginen azkenean! Jacken poesiako txori hark kaiolatik atera eta lasai hegan egitean sentituko zukeen sentsazio bera eduki nuen nik behintzat. Halako zirrara eragiten zidan bizitza osoa mugatu zidaten lau hormetatik at egoteak malko batzuk isuri nituela.

Eguzkiaren lehen printzek mendien atzetik jostalari atera eta etxeetako teilatuei bizia ematen zieten bitartean hiriko kale bakartietan zehar polizia frantsesaren egoitzarantz gindoazen Pierre eta biok. Leher eginda geunden baina komisaldegia bi kale harantzago zegoela ikustean lasterka hasi nintzen horma gris eta zaharkitu haiek ikusteak indarrak berrituko balizkit bezala.

Amesgaiztoa bukatu zen! Agenteak generamatzan frogak ikustearekin batera autoa hartu eta umezurztegirantz abiatu ziren. Gu ere beraiekin batera joan ginen eta Gerard ustekabean harrapatu genuen. Oraindik gogoan dut haren amorru eta haserre aurpegia. Ezin jasan zezakeen Pierre eta ni bezalako mukizu pareak bera bezalako gizon heldu bat halako kaka nahastean sarturik harrapatzea. Baina ba-

zen kezkatzen ninduen beste kontu bat ere. Nola ote zegoen Jack? Handik aste bira Parisen zen berriz ere, bera bezala, Estatu Batuetara joan ziren guztiekin batera.

Albistea Frantzia osoko egunkarietan agertu zen eta irakurle ugari hunkitu zituen. Gainera prentsari esker bertako umezurtz guztiok guraso berriak topatu genituen.

Orain duda mudatan nabil eguneroko hau zakarretara bota edo ez. Oso oroitzapen latzak dakarzkit burura, baina iragana ezabatu ezin den zerbait da eta horri bizkarra emanez ez dut burutik kentzea lortuko. Beraz, egunerokoa eta argazkiari azken begirada eman eta, berriz ere, ganbarako kaxa pila artean utzi ditut, lehen bezala hautsez estali eta hurrengo ikusten ditudan egunean begirada bat botatzeko gogoa sartzen zaidan arte.

# Zenbakaitzaren mugagabetasuna

Amaia Agirre Gonzalez
Egape ikastola
Urnieta

Bezperako plater zikinak harraskan, kafesne arrastoa mahai gainean, ogi papurrak sukalde osoan; berriro ere korrika abiatu naiz. Binaka jaitsi ditut eskailerak, hogeita hamasei guztira, jauzi bakoitzean gosaria gora eta behera antzeman dezaket, erlojua begiratu eta hori ipintzeaz ahaztu naizela ohartu naiz. Arnasestuka geltokian, bihotz taupadek buruko mina jartzen didate. Bakarrik nago, esertokiak hutsik daude eta inguruan ere ez da inor ageri. Zortzietako autobusa hartu beharrean zortzi eta erdietakoa hartu beharko dudala esan nahi du horrek, sarritan bezala.

Sekulako haize bortitzak errepidearen alboko zuhaitzak astindu ditu, hauen adarren mugimenduek edozeini beldur hotzikarak sortzen dizkiotelarik. Zerua beltz-beltz jarri da eta eklipse baten moduan gaua dela dirudi. Txoriak isildu eta zakurrak zaunkaka hasi dira; gero, amaigabea egin zaidan isiltasun sakon baten ostean, izugarrizko indriskak sortutako txalaparta besterik ez da entzuten. Presaka sartu naiz aterpean eta denbora pasa gisa nire gaztaroko urte zoragarriak gogoratu dizkidaten pintadak irakurtzen hasi naiz. Ederki bizi nintzen garai haietan, inongo kezkarik gabe; senitartekoekin ondo moldatzen nintzen eta amodio kontu-

ren bat ere baneukan. Gurasoek kotxe istripua izan zutenetik, ordea, erantzukizun gehiegi ziren nire baitan hartu beharrekoak eta gauzak okertu egin ziren hilabete batzuen buruan behintzat. Ama han bertan hil zen, danbatekoan, eta aita oso larri eraman zuten ospitalera, baina hiru aste hilzorian igaro ondoren bakarrik zegoen emaztearengana joan zen, ni hemen ahazturik utzita.

Hilabete gogorrak pasa nituen, ia etxetik atera gabe, beti lau pareta berdinen artean ezkutaturik. Goibel, triste, baina ez hori soilik, bakartasuna zen sentitzen nuen sentipenik indartsuena. Laguntzat aurkeztu nitzakeen bakarrak oroitzapenak ziren, oroitzapen faltsuak, jadanik existitzen ez ziren eta existituko ez ziren errealitate batekoak. Ez nuen erorita nengoen zulo ilunetik atera nahi, gauero erregutzen nuen lo hartu eta hurrengo goizean ez esnatu behar izatea. Koldar hutsa nintzen, arratoi ziztrin bat bezalaxe, katu maltzurraren atzaparrak hor kanpoan itxaroten diotela dakienean. Denbora aurrera zihoan eta hainbeste hausnartzeak heldu bihurtu ninduen. Gainera preso egoteaz ere aspertu nintzen eta haize freskoa behar nuen, neure bizitza berreskuratu. Etxetik irteteko indarrak bildutakoan lan bila abiatu nintzen. Esperientzia eskasa eta ikasketak erdizka nituen, hortaz, ez zen erraza izan. Behin baino gehiagotan iritsi nintzen etxera begiak gorri-gorri, masailetatik negar tanten jarioa nabaria zelarik eta garrasi egiteko gogo izugarriekin, presio eltze bat bezain puzturik. Baina, nire gurasoen jaraunspena agortu aurretik taberna bateko sukaldean harrikoa egiteko eskaintza egin zidaten. Momentu hartan izugarrizko saria tokatu balitzait bezala nengoen, pozik, azkenean dirua lortzeko gai bainintzen.

Nire eraikin berbereko gizon handiuste bat heldu da geltokira aterki azpian babesturik. Begirada eroria dakar

eta esnatu berriko mozolo aurpegiarekin inork ez luke ezagutuko. Ikusi nauenean, ordea, topatzen garen bakoitzean bezala, harropuzkeriaz goitik behera begiratu nau, irribarre faltsu bat inauterietako mozorro horretan margotzen zaion bitartean. Begirada alderatu dut segituan eta takoi hotsa ateratzen doan emakume bat hurbiltzen ari dela ikusi dut. Nire ondoan ezarri da, bata bestearen hain gertu, non perfume garesti baten lurrina usain dezaket. Hankak gurutzatu eta altzairu bat bezala geldi geldirik dago, aurpegiko espresio galduarekin. Ziur asko, makillajea ez hondatzearren, eta ilea, laka poto erdia eman eta gero, mugi ez dakion itxarongo du horrela.

Autobusa heldu da eta hotzez dardarka nagoenez, gustura barneratu naiz goxotasun apur baten bila. Betiko eserlekuan ezartzean, betiko aulki gogor eta deserosoan, poltsikotik Chester paketea atera dut, baina egunero bezala eskuinaldean daukadan leihoan erretzea debekatuta dagoela ikustean zigarroa gorde eta erretzeari utziko diodala zin egin diot neure buruari; batez ere,zarrastelkeria galanta delako. Badakit ordea nire hitza ez dudala beteko, bizitza honetan zerbaitengatik bizi behar baita eta nik aurrera bultzatzen nauen ezer ez daukadalako.

Monotonoa da oso daramagun bizitza hau, betiko geltokiak, hamalau orotara, betiko bide, kale eta jendea. Aldaketa txiki bat egongo balitz sikiera, ia antzeman ez daitekeen horietakoa baldin bada ere, dena ezberdina litzateke. Goizean, ohetik jaikitzerakoan bizitzeko arrazoi baten bila hasten naiz, eta azkenean, filosofiako erantzunik gabeko galderetara jotzen dut: “Zergatik gaude hemen?”, “nora goaz?”, “erreala ala ametsa al da daukagun bizitza?”. Une honetatik aurrera ispiluaren aurrean jarri eta mugimendu txiki batzuk egiten ditut bertan ageri den irudia nik menpe-

ratzen dudala ziurtatzeko. Bitartean, zentzurik gabeko beste egun gogor bati hasiera ematear nagoela pentsatzen dut.

Buruhauste honek hitz bakar batez defini daitekeen konponbidea dauka: maitasuna. Patuaren desiraz berau ezagutzeko asturua izan dutenek badakite zer den goizean irribarretsu esnatu maite duten pertsona haien mundu berberean bizi delako soilik; umore onez egon, zerua buru gainean jauzteko zorian eduki arren; atsegin eta adeitsu jokatu bizitza jasanezina egin dieten haiekin ere.

*Radio Euskadi informa: las nueve menos siete minutos*. Zazpi minutu barru lanean egon beharko nuke, amantala jarrita eta eskuak plastikozko eskularruez babesturik ur beroaren azpian. Argia gorrian dago baina, autobusa geldi, honela burrunba sakonagoa ateratzen duelarik. Berdera aldatu da, jendea dabil ordea zebra bidea korrika gurutzatzen eta gu haien ikuskizunaren ikusle gara. Azkenean gidariak azeleragailua zanpatu eta bolantea irmoki eutsi du.

Nire geltokira heldu naiz behingoz. Ateak irekitzerakoan, autobus barruan ahaztu dudan hotz ikaragarriak birikak izoztuko dizkidan beldurrak zeharkatu nau. Gehiegi larritu barik, aldiz, jakaren botoiak lotzen ditudan artean presaka noa lanerantz.

Farola goibel batzuk argiztatzen dituzte kale bustiak, momentuz ateri den egunsenti honetan. Eguzkia irten nahian dabil, laino eta iluntasun tartetik, baina ezin du gauaren kontrako borroka irabazi. Errepidea gurutzatu dut, hamaika pausu, beti bezala eta ezkerrerantz jo dut, zapatak ez bustitzearren putzuak tartekatuz.

Golpez gelditu naiz hipermerkatu handi horietako baten atarian, bertan eskean egoten den arloteari ogi zati

gogor bat emateko. Irribarre bat luzatu dit, beti egin ohi duen bezala, hortzen arteko zikinkeria eta hutsuneak erakutsiz. Egun osoan zehar eskaintzen duen irribarre bakarra izan daiteke, eta hala izango da ziur asko, baina nik ez dut horregatik gutxiesten, nahiko adore baitauka gaua kalean pasa eta goizean irribarre egiten ausartzeko. Eskale horren txakurrak zortzi bat metro egin ditu nire galtzak usnatzen, gero, bere jabearengana itzultzeko bira eman baino lehen, eskua lamizkatu dit jauzi txiki bat eginez, adur soilarekin bere adiskidetasuna eskainiz.

Atzera begiratu barik jarraitu dut aurrera, pausu ezegonkor baina arinarekin. Kale kantoira iritsi naiz eta eskuinaldean *Bar Manolo* jartzen duen horma-irudia begizta dezaket.

Tabernako atartetik so egin diot inguratzen ninduenari; hiru gizon daude barraren bestaldean lanera joan aurretik patxadaz gosaltzen, asteburuko futbol jardunaldiari buruz, tristura apur batekin, iruzkinak eginez; bi emakume kontakatilu atearen ezkerraldeko mahaian ezarrita daude, xuxurla eta oihu artean auzoko azken berriak elkarri kontatzen. Batak kafesnea dastatu gabe eta izoztuta dauka, hitz egiteari utzi gabe ezinezkoa delako hura hartzea. Bestea adi-adi dago, lagunak esandakoa zuzentzeko muturra noiz sartu zain, bere menta poleoari gero eta azukre gehiago eransten dion bitartean –oraingoz bost azukre kozkor–; eskuinaldean, etxeko sofan botata balego bezala, taberna ondoko obretan dabilen langile bat dago, atsedenalditxo bat egiteko asmoz hurbildu dena. Honek jada hamaiketakoa du eskuartean eta hobe irensteko ardo tragoxka baten beharrean dagoela darabil buruan.

Ate ondoan nagoela ikusirik garrasi galanta bota dit Manolok: “Ez hadi hor parauta gelditu! Ez al haiz jabetu

berandu habilela? Sekulako ontzi ilara daukaan harraskan!" Batzuetan gogor samar jokatzen badu ere, nagusi on eta zuzena da.

Bada aste bete gutxienez sukaldea behar bezala txukundu nuenetik, hortaz, gaur, ontzi eta plater mordoaz gain, zorua, armairuetako apalak eta estalkia sakonki garbitu beharko ditut.

Hiru ordu eta hogeita zazpi minutu; oraindik lanaldi erdia ere ez dut egin. Hori bai, espartzua eta zapia honezkero begitan hartu ditut eta goseak amorratzen nago. Ogi zati bat hartzea izango da onena, nire urdaila zeharkatzen duen soinuak trumoi hotsa baitirudi.

Sukaldeko berotasun honetan segituan dauzkat galtzarbeak blai eginda, hezetasun arrastoa nabaria delarik. Aurpegiko izerdi tantak ere kopetatik erortzen konta ditzaket, egiten dizkidaten kilimengatik. Bihurriak dira oso, edozein zulotatik ezarian ihes egin nahi dute, nik, ordea, garaiz pasatuko dut alkandoraren mahuka bekokitik.

*Pi-pi, pi-pi!* Barnean daramagun erloju biologikoak eguerdiko otordua egiteko garaia dela ohartarazi dit. Hirurak puntu-puntuan dira, babarrun platerkada eta oilasko izterra patata frijituekin ziztu bizian irentsi ditut. Gero, ahal bezala tabernatik alde egin eta bazkal osteko zigarrotxoa erre dut. Izugarri gustuko dut eguneko momentu hau. Lasai zigarroa piztu, zurgatu eta ahoa zabaltzerakoan, kea aske utzi eta airean nola lausotzen den aztertzen dut.

Zeruari begira pentsakor nagoela pausu hotsa entzun dut nire gibelean. Hasieran, ez dut bira emateko ausardiarik izan baina hurbilduz doan heinean hotzikara bat sentitu dut hanketatik bururaino igoz. Mutil gazte bat da, berezita-

sunik gabekoa eta horregatik hain berezia. Albotik igaro da eta une horretantxe denbora izoztu eta betiko nire ondoan gelditzea eskatuko nioke gurarien jeinuari. Aldenduz doa, ordea, eta segundo bat lehenago sentitutako su eta loria itzaltzen doaz harekin batera. Aurpegia sikiera ikusteko esperantza galdu dudanean, buruari bira eman dio, ile beltzarana astinduz. Gure begiradek bat egin dute, eta agian segundoko milesimak besterik izan diren arren, bere begi ilunetatik bi mila distira garden antzeman ditut. Zorion ikaragarriak bete nau barnetik, jauzi egiteko gogoa dut, irribarre bat belarritik belarrira eta ez dakit zergatik. Lau litro itxaropen, sei kilo bizitzeko gogo eta biharko eguna zentimetro gutxira egoteko desira sentitu ditut, lehenengoz eta betiko.

# Neure txokotik

Haitz Lekue Arriola
Ondarroa-Lekeitio institutua
Ondarroa

*Ringgggggggg...!!*

Hemen nago betiko moduan, entxufatu berri, oraindik motorra pizteke. Eguneroko errutina; jendea ikusten dut atetik sartu eta eskaileretan gora, batak, aurrekorik ez du ikusten, besteak asko orraztu gabe datoz eta baita betiko mutil hura, oso ondo orraztuta, bere gainean hiru ordu iraungo duen olatua dakarrela… eta nola ez, bost minutu beranduago datorren maisu traketsa paperak ia jausi beharrean.

Han geratu da sarreraren erdian bere paperen bat, atzetik datorrenak konturatu gabe zapalduko duena. Imanol atezainak hartu eta bere jabearengana eramango du, ezer irakurri ezin bada ere, berrogei tailako zapata marka inprimatuta geratu baitzaio.

Goiko pisuan ate hotsak,dinbi-danba. Isiltasuna niretzat. Bakarrik geratu naiz. A! ez! nire pare-pare Imanol dago, Kontxi gaztelaniako andereñoak bidalitako ehun fotokopiak ateratzen eta gizarteko irakasle Izaskun, telefonotik hitz egiten, Donostiako planetariumeko irteera prestatzen.

Zenbat istoriorekin enteratzen naizen. Hain lagun dudan Mikelentzako azterketa paperen bat ahalko banu lortu…

Zertan ari da Imanol atezaina?

Ene…!!!! atzeko pasillotik datorren batek susto itzela eman eta txanpon handi bat sartu dit, baina ez da konturatu hirugarren botoia piztuta dagoela.Gaur bere eguneroko kafe eta esnea ezin duela hartu, esne barik bainago.

Bakarrik nago, ezkerretara begiratu eta pasillo luze bat ikusten dut inor ez dagoela, eskuinera begiratu eta lehen hezkuntzako umeen eskolaren teilatua ikus dezaket eta nire sudur zuloek jantokiko oilasko errearen usaina hartu dute.

Benga, neurera! Jolas ordua laster da eta zer daukadan eta ez daukadan adierazi behar dut betiko zaplaztekoak har ez ditzadan.

Hemen dabiltza Kepa eta Eider betiko moduan, klasetik irten eta korri-korrika nire aurretik pasatu dira eskua emanda; hauen artean dagoena ez da bi ikaskideren artean dagoen hartu-emana bezalakoa, ni paretari itsatsita nago, baina ez naiz itsua.

Andereño bat etorri da, honek kafea eskatu eta nik zerbitzatu. Bueltak hartu dituenean poztasun usaina hartu dut, a zelako irribarrea irten zaion aurrekoaren bi eurokoa han ikustean!

Igogailuarentzako obrak ezin zaratatsuagoak dira, eta hori zarata handienetako beharrak eskolaz kanpoko orduetan egiteko esana dutela.

Han datoz lau gorbatadun, haiek ezer egin ez eta meritu guztia beraiena delakoan. Nire zerbitzurik behar ba-

dute, argi daukat, ez diet ezer emango, doazela bostehun metrora dagoen kafetegira. Langileei doblea emango diet merezi dutelako, beno Iñaki peoiari ez, alper galantaren itxura baitauka, baina beste hauei urik ere ez!

Hara, hemen dator gure gaztelaniako irakaslea, zenbat joan etorri egiten dituen egunean ez dago aitaren semerik horiek kontatuko dituenik. Laster astinduko ditu gorbatadunak, bere ikasgaia ezin emanda dabilelako dagoen zaratagatik; baina hizketan hasi orduko, Iñakik, beste zereginik gabe baitago, itzelezko lizunkeriak esan dizkio Kontxiri, txorizo Pamplona zatiak tirokatuz. A zer nolako begirada bota dien bakoitzari ez peoiari bakarrik, baina mihia ahoko zuloan gordetzea erabaki eta ez du liskarrik muntatu; Kontxiren jokabide ezohikoa, hark dena birritan pentsatu gabe esan, eta gero ondo hausnartzen baitu.

– Aizu, makina hori plastikozko koilaratxoak botatzen ari da eta bitsa ere irteten zaio. –Gorbatadun batek.

– Itzali mesedez, entxufea atzeko aldean dago –Oihukatu zuen Imanolek.

Zer gertatzen da hemen? Konortea galdu ote dut? Aurreko alde guztia kutxarilaz beteta daukat eta dena bustita dago. Adurra jausten daukat, zahartzen nagoen seinalea izango da.

Imanolek lanbasa hartu eta ur guztia sikatu du, baita nire adurrak ere. Noski, baina betiko modura, koilaratxo guztiak jaso eta nire barrura sartu ditu dauden bestean, garbitu ere egin gabe. Imanol ez da molestatu ere egin.

*Ringgggggggg...!!* Atsedenaldia. Hemen datoz denak goitik behera burua apurtu beharrean. Oraingoan Iñakik, peoiak, ez du astirik izan inori lizunkeriarik esateko, bera

ere ikasleekin batera eskaileretan behera baitator baina hankaz gora.

Batzuk, DBH 4koek, egindako tortilla pintxoen bila doaz, beste batzuk nireganantz. Gaur ere izango da, berrogeita hamar zentimo sartu eta txokolatea nahi duenik. Egin beharko diote putz, bero-beroa aterako diet eta. Kontxi ere badator. Honi kamamila bat prestatuko diot, eskatzen duena eskatzen duela. Ikasle askori entzun diot zorrotzegia dela eta ea puska bat lasaitzen den. Hemen beste bi, Ana Mari eta Paula, hauek elkarrengandik urrun ezin egon, nire aurrean ere.

– Zer hartuko duzu? Txokolatea ala kafesnea? Eta besteak –Niri berdin zait zeuk nahi duzuna hartuko dugu.

Goiz osoa emango lukete horrela. Maitasuna gozoa izango da baina… begiraleentzako aspergarria.

Argia joan da. Imanol badoa argi panelera.

– “ Sekretarijo, argije jun de ! ” –Iñakik zaunka antzera.

– Huaxe da goixa, maixuak, ikasleak, makiña zahar hori…Banoaaaaa… oraintxe emango diot jeneralari.–

Jesus!!!!! berriro ere martxan jarri behar al naiz? Oso nekatuta nago eta ez daukat inori zerbitzatzeko gogo handiegirik.

Hemen ez dago inor, zer ordu ote da ba? Ene! Ia eguerdiko ordu bi eta erdiak dira eta langileak ere joan dira etxera eta ikasle-irakasleak ere bai. Imanol eta neu gaude bakarrik.

Gaurkoan Imanol atezainari opari bat egingo diot. Klink! Zzirrists! Zirrits! kafesnea.

Imanolek arraro begiratu dit zarata horiek entzutean.

– Zer gertatu ote zaio??? oraingoan ere….. Imanolek arraro begiratu nau, ostikada bat ematekotan ere egon dela uste dut, ni aberiatzea besterik ez zitzaion falta, baina irribarre gozo batez eta nire gainean eskua jarriz, gustura edan du behingoz norbaitek egin dion oparitxoa, berak askoz gehiago merezi duen arren.

“Purrupu”

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Ordulariaren orratzak eskirolak dira

Ander Ceña Setien
Aita Larramendi ikastola
Andoain

*MINUS LAU*

Gaur, kaleko putzu bakartietan
ikusi dut nire bisaia beluna islatua,
begiradaren utopia
marrazteaz nekaturik,
eta jausi egin duen
malko iheskor batek
uhinez bete ditu bat-batean
itsulapikoan gordetako
sentimendu bakartiak,
galbidera doazen mila
zatitan banatuz.
Bere kontzientziaren
pausoak jarraituz doazen
oinezkoen begiradetan ere
nabaritu dut
hauskortasun berbera,
kamutsak, antzuak dira
beren sakonerak,
ekilore landak ihartu
dira jada eta tximeletek
ez dute hegan egiten
arimaren askatasunean.
Segundo bat egin du
atzera ordulariak.

*MINUS HIRU*

Arlote bilakatu diren
zakurrek egunsentian
zaunkaka aritzen dira,
ilargiaren diosala ahitu
eta ahanzturan galtzeko,
eguzkiaren ulertezintasunetik
urrun, lanbroaren artean.
Hoditerietatik behera jautsiz
ur herdoildua bezala dabil
odola arterietako bihurguneetan,
eta estoldetan barrena amiltzean
sentipenek ihes egiten dute,
bihotzen grebaren beldurrez.
Itsaso gabeko hondartzetan
izkiriatzen dituzte azken mintzoak
betirako eroango dituzten
olatu inausleen zain,
eta igarri ezineko koloreek
ortzadar bat margotuko dute
zeruan, zuloz josítako izaran,
infiniturantz erbesteratuz.
Sentipenak mugagabetasun horrekin
horditzen dira,
grinen fereken tartean.
Segundo bat egin du
atzera ordulariak.

*MINUS BI*

Lore ustelak okupak dira
nire etxeko lorontzietan,
eta bonbilla bakanetako
argi hits eta eritua
lehian dabil pertsianetako
zirrikituetatik iraizten diren
izpi biluziekin.
Zigarroak ezjakintasunaren
antzutasunean amatatu eta
azken ke kiribiletan sabairantz
labaintzen naute geldotasunez,
neoizko argitan hiltzen diren
ulitxek egiten duten moduan.
Mutxikinak komun zulotik
zurrunbiloan barneratzen dira,
putzu septikoetan duintasuna
berreskuratuko duten itxaroten.
Gaur, buruz behera eroritako
tostadak mermeladaz zipriztindu dit
kontzientzia, ororen atzean
kasualitate subjektibo bat badago,
mutxikin soil bat naizelako,
zure ezpainen artean,
goxotasunean.
Segundo bat egin du
atzera ordulariak.

## *MINUS BAT*

Erkain garratzekin eragiten ditudan
egunkariek karminarekin
makilatzen dituzte berri txar guztiak,
eta telebistaren begi erakusleak
gure barrenen hutsala seinalatzen,
pasibotasunak menperatzen
ditu garun entropikoak.
Hitzak pareta idorretan
suizidatzen dituzte, erail,
eta ihes egitea itzultzeko beste
modu batean bilakatzen da,
egun berbera bata bestearen atzetik,
ilusioen gabeziaren gurpilean biraka.
Eta nik laket ditut
ezagutzen ez ditudan bizipenak,
ezagutzen nauten drogak,
bidaia amaiezin batera naramate
gezur ahurren trosta etengabean.
Barnean babesten ditudan irribarreak
orbain bihurtu dira denborarekin,
samina egozten dute poro bakoitzetik
eta noizbait odolustu egingo naute,
poztasunaren biktima bat gehiagotzat.
Segundo bat egin du
atzera ordulariak.

## *HUTSA*

Hosto ihartuek udazkenetan bezala,
errotuta naukaten kateak hautsi
eta eskuekin bideak eraikiko nituzke,
iparrorratzak zure soaren bila
jardungo zuelarik betikotasuna.
Baina trenak ez du
zure begietan geltokirik,
iragan egiten ditu zure aintzira gardenak,
eta leihora irten behar dut
zure malkoen kresala arnasteko.
Lasai, heriotzaren korridorean
beti egongo da toki bat guretzat,
gure izaera urratuentzat,
arrazoiaren kolpeak defendatzearren,
eta bitartean itxaron iezaiozu
patuari, etorkizunari,
nahiz eta inoiz ez jakin
bihar zer etorriko den.
Ea atzeraka egitea posible den
galdetu diot ordulariari,
edo biziraun gutxienez.
Ezetz egin dit, lotsagabe,
eta bere monotonian
ezkutatu da berriz ere.
Gaur.
Edo atzo.
Edo bihar.

# Poltsikoan aurkitutako poemak

Jon Iraola Goiburu
Sto. Tomas lizeoa
Donostia

Literatura marjinala dela bagenekien, eta euskalduna bada are marjinalagoa, baina guri bost. Egia esan, arraroa izan zen oso, auskalo nola egin genuen topo. Kontua da elkarren bila genbiltzala, noren bila genbiltzan jakin gabe. Eta hori zen garrantzitsuena.

Parisko metroan hitz egin genuen honi buruz, eta garagardo batzuk hartzeko geratu ginen. Rue de… ez naiz ongi oroitzen, baina badakit Vaugirard kaletik ez zegoela oso urrun. Tabernak Voltaire zuen izena, bai, oraintxe bertan gogoratu dut, Cabaret Voltaire, baina ez zen benetakoa. Tzara hil zen, beno, edo hilda dagoela pentsatu nahi nuke, imajinatzen bere heriotza bere beste broma horietako bat balitz, gainera guk ez genuen bere espiritu bera, eta Parisen geunden, ez mende hasierako Zurichen.

Pobreak, putak, argi lausoak, ilargia hotzez dardarka. Eta sentsazio arraro bat: estolden gertutasuna.

Buruan dudan hurrengo oroitzapena lausoegia da, baina zin egin dezaket poema batzuk errezitatu genituela, tabernan bertan, seguru, poltsikoan aurkitu ditudan papertxo zatiak bestela nondik atera dira.

Bai, ziur, lepoa jokatuko nuke.

BEGIRADA 3:35am

Ez
nauzu
inoiz
hain
eztiki
begiratu
orain
bezala
laztanki
amoroski
amultsuki
xiringaren
ziztada
zintzilik
duzunean

## POEMA BILUZIK

Poema bat jantzi nahi izan dut
ekarri dizkiot hango eta hemengo lagunak
esan diot jan itzazu hau eta bestea
handia egiteko
indartsua izateko

Baina ez
hark jaioberritan bezala
biluzik iritsi nahi du zure eskuetara
argal ahul mehe bakarti
zure jantziak
zure janaria
zure begirada
zure sexua
beretzat nahi baititu

RIDERS ON THE STORM
Mexikora ihesi doan hiltzailearen modura
autopistako stop amerikarra buruan
deskantsu bila nabil

Gasolina usaina
erretzen aritu naiz
eta ematen du bizitza guztia pasa dudala
horrela, leihatila irekita
kartoizko birikak kultibatzen

Lokatzezko bolanteari eusten diot
euria azeleratzen hasi da
eta errautsen desertuak irents nazan
eskatzen diet asfaltoko gezi urtuei
Emadazue deskantsua autopistako stop amerikar batean
deskantsu bila nabil

## DENBORA GALTZEA

Irakurtzen dituzu
hizki, zeinu eta espazio gutxiren milioika konbinazio
obsesiboki, testuetara behin eta berriro itzuliz
hilabeteak Boccaccio, Poe, Asimov eta abarrekin
Eta pentsatzen duzu
a, ze pozgarria
a, ze abangoardista
astirik ez duen munduan denbora galtzea

ON SURPRISE, ON SURPRISE
Heriotzaren deia
fotokopiatutako firmadun gutunaren antzera
haizean zabaldutako metalezko hotzaren antzera
mutuaren lehen dei telefonikoaren antzera
On surprise

Heriotzaren deia
entzun
kobrezko kable elektrikoetan dago
piztu, sakatu
argi indarraren bultzada
eta sentitu
iluntasuna iluntasuna ezereza isiltasuna
On surpise, on surprise.

HAIKU-IMAJINAZIOAREN LEIHOAK

Erekzioa.
Gogoaren indarra
Cho Oyun gora.

Pianoaren
sabela da negarren
nire umetoki.

Behelainoa
ahul irristatzen da
teilatuetan.

Gaua isilpean
pistolen xuxurlara
gerturatzen da.

Udaberriak
garrasizko loretan
egin du eztanda.

Bizkar gainean
orbelak neguko haize
ospela dakar.

Mantu zuria
da helduko, koloreak,
dena, eramanez.

# Azken geltokiaren zain

Ander Ceña Setien
Larramendi ikastola
Andoain

Inoiz ilargirik erregalatu ez digun gaua amaitzear dago gaur,
galbidearen laztasunak urkatu egingo du
eta bere erro minduetatik inausiko da,
egunsentia iluntasunaren artetik iraziz
bere estreinaldiko errainuekin epeldu gaitzan.
Gauak ameslarien bizilekuak zirela zenion askotan,
argiaren gabeziak errealitatea lausotzen zuelako,
norberak mundua bere nahien arabera eraiki zezakeelako,
ezagutzen ez genituen drogak bidai lagun bilakatu eta
fantasien mugagabetasunaren atzean ezkuta gintezkeelako.
Baina etengabeko trostan galbiderantz bideratu ginen,
eta orain, fantasia horiek eltxoak bezala
kaleetako farola bakanetan kiskali direlarik,
amoniakoz kirastutako lau horma bilakatu dira
zure munduaren muga, zure saminen ikusle.

Lainoek negarra iragarri dute gaurko egunerako
eta malkoen erretenak urmael bihurtuz
igeri egingo dugu gure ozeano goibeletan,
odol zipriztinek hainbeste desiratzen zuten
estoldetatik behera jausten garen bitartean.
Hitz mutuak kontzientziaren horma idorretan kolpatuz
askatasunari erregutzen diozu itzul dadila,
hordi gaitzala bere debekuzko lorategiaren esentziekin,
kitzika ditzala gure begi-niniak asmatu ezineko koloreekin,
baina zure soa iluntasunak harrapatu du
ahanzturaren kutxa gardenetan, bere baitan gatibu.
Jada, ez zara aldatu nahi izan zenuen mundua ikusteko gai,
aurka bihurtu zitzaizun munduak itsututa.

Nik, ordea, barneratu zaitzaket nire zentzumenetan,
izara zuriaren azpian gordetzen duzun
gorputz ihartuaren bihurguneak imajinatu,
bularren konpasekin gozotasunaren melodia intonatu,
nire musuen mapak zure azalaren leuntasunean kartografiatu.
Laket dut isilik zaudenean lasaitasunean galtzea,
zure ezpain zimelduetatik etengabe jausten diren petaloak
inoiz irekitzen ez diren tiraderetan gordetzen ditudalako,
zure hitz garratzak kotoizko muxuekin amatatzen
[dizkizudalako.
Bitartean, loaren zurrunbiloan galdu naizelarik,
beste bizitza batean, beste mundu batean amets egin dut,
baina zure ondoan jarraituz betirako.
Nahiko nuke zure erraietatik hiesak ihes egingo balu,
jipoitu gaituen zaldiak inoiz zamalkatu ez bagintu,
zure begien distira inoiz itzaliko ez balitz.
Zure intziriek igarri didate amets egiteak
ez duela zentzurik esna ez bagaude,
utopiaren haizeak eroaten dituelako infiniturantz,
etorri beharreko guztia egiteko dagoelako,
bizitza existitzen ez diren momentuez osatua dagoelako.
Guk axolagabekeriaz itxaroten diegu une horiei,
heriotzaren korridoreak beti gordeko baitu leku bat guretzat
elkarbanatutako fereka pozoitsuak defendatzearren,
gure sinismenen hipokresian murgiltzearren,
soka usteldun txotxongilo bilakatu baikara.

Aurretik igaro zaizkigun trenak etengabe galdu ditugu,
sentimenak erraustu ondoren ke kiribilak okatuz
urrunean galtzen ikusten ditugularik,
eta errepide bazterretan hartu dute atseden
aukera baten eskean aritzen ziren itxaropenik gabeko arimak.
Neuk zure bihotzerako trenaren zain agortzen ditut egunak,
zure arteria herdoilduak errail bihurtu nahian,
autostopista lizun eta bakarti bilakatuz
hutsala nagusitzen den barrenerako autopistetan,
inoiz gorde izan ez dituzun funtsen jabe.

Baina irudikeria soila den geltokian esnatzean,
dena begitazio psikoeragile bat dela jakitean
eta zure soina ohe biluzian ereina ikustean,
bidaia amaigabe hori burutzeko gogoa joaten zait,
gure bakardadean isolatzeko gogoa.
Zuk ez iezaiozu utzi ihes egiten azkeneko trenari
nire bihotzera eramango zaituelako agian,
edo betidanik amestutako paradisura,
barnean edukiko zaitudalarik, nire gomutetan,
patuak larrutan harrapatzen gaituen arte.
Ordura arte, malenkoniaren itzalarekin bat eginik,
zure hatsa lanbro artean bezala ezkutatuz,
geroa izkiriatuko dut jadanik horitu diren paperetan,
inoiz inork ahoskatutako esaldi bilakatu garelako
gure ibilbidearen egunerokoan,
iraungitzen diren momentuak bizirauten badakitelako,
azkeneko trenak ihes egin arren.
Azkeneko geltokia gurea egingo dugu, bederen.

# Nire lehen egunerokoa

Olatz Mitxelena Larreta
Zamalbide institutua
Errenteria

Urtarrilak 13, ostirala

Parkearen alde batean zegoen
argi-indarraren postera igo nintzen;
ikastolako patioan egoteaz aspertzen ari bainintzen.
Nahiago nuen
itsasontzi bateko kapitain sentitu.

Amak errieta egin zidan.

Mikeli baloia kendu
eta korrika abiatu nintzen;
futbolean jolasteaz aspertzen ari bainintzen.
Nahiago nuen
harrapaketatan ibili.

Mikelen amak errieta egin zidan.

Irakasleak isiltzeko esan zigunean,
nik ere, aulkitik altxa eta bere ahotsa imitatuz gauza bera
[errepikatu nuen;
eserita isilik egoteaz aspertzen ari bainintzen.
Nahiago nuen,
denak niri begira zeudela ikusiz, irakasle sentitu.

Irakasleak errieta egin zidan.

Egongelan gurasoak, aiton-amonak eta izeba-osabak nire
[arreba jaioberriari begira
zeudenean,

nire baloi berria hartu eta sehaskan golak sartzen hasi nintzen;
arrebari begira egoteaz aspertzen ari bainintzen.
Nahiago nuen
aitonak nire baloi berriarekin jolas zezan.

Aitak errieta egin zidan.

Urtarrilak 20, ostirala

Amak
parkearen alde batean dagoen argi-indarraren postera igo
eta katigatuta gelditu den baloia hartzeko esan dit.
Ni ez naiz igo,
errietarik egin ez ziezadan.

Amak errieta egin dit.

## ZABALDU GABEKO ATEAK

Autobusaren atea

Autobusa abiatu da geltokitik.

Zapata takoidunak eskuan hartuta
korrika heldu den neskak, arnasestuka,
gelditzeko keinua egin dio.
Gidariak ez dio jaramonik egin.

Badoa autobusa.
Neska gaztea berandu helduko da
bere lehen lanegunean.

Etxeko atea

Amak,
erosketak egitera joan behar duela eta,
bakarrik utzi du etxean Ander,
sei urteko semea.

– Gogoratu Ander: ez iezaiozu inori atea zabaldu!
– Ez, ama.

(...)

tintoon... tintoon... tintooooon... tintoon... tintoooooon...
[tintoooooonnn...

Ama giltzak etxean ahaztuta joan da.

Bizitzaren atea

Pozik dago Aintzane,
bart gaueko txortaldia dela eta.
Nahiz eta ez duen gauza askorik gogoratzen,
Amaiari deitu dio,
iganderoko konfesioa egiteko.

Badira bi hilabete
Aintzaneri hilekorik ez zaiola jaisten.
Medikuarengana joan da
abortatzearen inguruko informazio eske.

Heriotzaren atea

Hirugarrengoz,
Patxi bere buruaz beste egiten saiatu da.

Bere neskalagun ohiaren etxearen pareko
eraikinaren bosgarren pisutik behera
egin du salto.

Tetraplegia dela eta,
gurpildun aulkian gelditu da betirako.

Euskararen atea

Zortzi-bederatzi urteko neska-mutil koadrila
gabon eskean dabil.

1-a, 2-b, 3-a, 2-c, 3-b... piii, piiii, piiiii, pii, piiiiii...

– ¿Sí?
– Kaixo! Gabon kantak abestera gatoz! Zabalduko diguzu
[atea mesedez?
– Lo siento, pero no entiendo en euskeras.

Klik.

(...)

– Bai, nor da?

# Mugarriaren mugak zazpi zapi ditu

Ane Badiola Ostolaiz
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Oraina
hartuko dut oinarritzat
eta zazpi zapiz osatuko dut
geroaren mugarria.

Ezereza xede
eta agonia bidaide dudala
ekingo diot bideari,
malkorik txikiena ere
urmael bihurtuz.
Handinahikeriaren baladen borrero
hipokresiaren itsasoan
murgilduko naiz,
mesfidantzarik inuzenteena ere
bertan itoz.
Kantauri itsasoko ur hotzean
garbituko dut arima,
jagoitik estutzen nauen
afera oro
eskuaz agurtuz.
Olatuak besarkatu
eta zapi **zuria**
lotuko dut sokan;
aukeraren zapia.

Hondarraren epeltasunean
babestuz,
haizearekin egingo dut solasean
eta,
klandestinitatea
habiatzat hartuta,
ilargia izango da
gure musu eta laztan debekatuen
lekuko bakarra.
Pasiozko eztanda
lazo batez bildu
eta zapi **urdina**
erantsiko diot sokari;
askatasunaren zapia.

Egunaren lehen izpiekin batera,
herriaren altzoan
hartuko dut ostatu
eta egoskorkeria aliatu dudala,
izaeraren testigutza
eskuratuko dut.
Kaleko zirrikituetatik barrena
listua botako diot inposaketari
eta zentzu ezari
arreta berezirik ipini gabe,
zapi **berdea**
ezarriko dut sokan;
nortasunaren zapia.

“Superman”en botererik ezean,
39º C-ko mesfidantzaz
erantzungo dut
nire etsaien aurrean.
Tupust egitean
jaiki egingo naiz,
estropezu egitean,
altxa...
Diktadura sustraietatik hartu
eta putz egingo diot,
arrazoiaren erraietatik
at bidaliz;
“Agur eta ohore”.
Tortura preso hartu
eta zapi **laranja**
batuko diot sokari;
kemenaren zapia.

Eguzkiak
zerua kolore gorriz
atontzen duen unean,
arima urratu eta
euskarak urteetan zehar
egin duen gose greba
aiztoaz ebakiko dut.
Berau oinarri hartuz
sustatuko dut ekimen oro,
progresioaren erreinuaren
buru izendatuz.
Birikak ilusioz puztu
eta zapi **gorria**
lotuko dut sokan;
euskararen zapia.

Txalapartaren doinu epelaz
mozkortuko naiz
neguko ilunabar goibeletan,
doinu zaharren presentziak
eztarria urratzen didan artean.
Sorgina izango naiz
herriko akelarreetan
eta hegan egingo dut
bertso kantuekin jolasean.
Irribarrearen edabe magikoa sortu
eta iraganean galduz,
zapi **horia**
korapilatuko dut sokan;
arbasoen zapia.

Arranoa gidari hartuta,
bailara, ibai eta baso guztiak
desafiatu
eta gailurra dastatuko dut,
patua bortxatu ahal izateko
falta zaidan
azken zapiaren bila.
Behin gailurrean,
eskumuturrak gogoz estutu
eta,
izerdiaren tantek
negar malkoekin
larrua jotzen duten bitartean,
sekula entzun den
irrintzirik iraultzaileena
zabalduko dut lau haizeetara.
Irribarre egin
eta zapi **morea**
erantsiko diot sokari;
batasunaren zapia.

Eta honela,
zapi guztiak josiz,
denak batuz,
orainaren oinarriak
alde batera utzi
eta geroaren mugarria
eraikiko dut;
noizbait desagertuko den
esperantzan.

# Egon ezinaren menpe

Julene Mendiola Olazar
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Begiak irekita ote ditudan
galdetzen diot buruari,
ametsa ala egia den.
Inork deskriba ezin dezakeen
une deseroso batean murgildurik;
zarata,
begiraden oihu bortitza,
haizeak eraman beharko lukeen
malkoa preso.

Ezin dut,
ez dut nahi!
nire begiak lausotzen dituzten lau paretek
irensten naute,
egonezinaren menpe
gorrotoaren morroi
argia inoiz ikusi ez duten
malkoen borrero.

Hitzak erail dituen
begirada tristea,
inoiz desira gabeko
bakardadea...
Askatasuna lapurtzen duten
lau pareten erdian,
ilargiari xarma kentzen dioten
bi barroteei so,
haizeak eraman beharko zukeen
malkoa preso.

Inoiz neka ezin dezaketen
ilusio hotzen oihua,
zure gorputza estaltzen duen
izu bortxatzailea,
laztan baten desira eta ezina
askatasuna lapurtzen duten
lau pareten erdian
laztan baten desira eta ezina.

Zerua negarrez entzutean
eta behin eta berriz
ama lurrarekin bat egitean
barneko ur tanta ezkutuenak
begiak etengabe lausotzen ditu
haizeak eramango dituen
malkoak askatuz.

Ez da erraza
zoriontasuna jokoz kanpo duen
kate lodiari giltza aurkitzea
baina ez ezinezkoa
inork zapaldu nahi ez duen
munduari,
ametsen bitartez
zentzua ematea.

Pausu geldoen hotsak
infernuko hauspo bihurtzen dira,
giltzen dilinda maltzurrak, aldiz,
ametsen hiltzaile;
hotzikara luze eta mingarri batek inguratu nau
zurrunbilo baten erdian banengo bezala;
arnasestuka,
nire gorputza ezkutatu nahian
eztarriko ekaitza baretu nahi baina ezinean,
pausuak hurbilago sentitzen ditut
badatoz,
nigana datoz,
ni izutu nahian dabiltza
bi borrero baliran,
nigana datoz...

Amorruak barrena usteltzen dit,
ezin dut gorrotoa baretu;
...ez naiz ezer...
...ez dut ezer...
Nire malkoen tantak
sikatu dira
baita lurrean putzua egin duen
odol jarioa
herrian lau haizetara
zabaldutako haize gozoak
paretaren zirrikitutik
nire aurpegia laztantzean.

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Urte zahar / Urte berri

Maddi Murua Sarriegi
Loinazpe institutua
Beasain

Kanpai hots arranditsuez
egin zizuten ongi etorria
izarren dizdirarik islatzen ez den
argien hormigoizko herrietan.

Altxatu zituzten kopak eta isuri oparo
eztarrian behera
ustezko zorionaren hazia
eta sentitu bihotzaren bakardadean
itxurakeriak eragindako
adiskidetze hutsala.

Zu, bien bitartean, hasia zinen esnatzen,
poliki, oharkabean, lozorro gozotik
eta nagien dantza eroak
loaren aztarnak
uxatzeaz bat ekin zenion
naturaren antzaldatze harrigarriari.

Eta halako batean
neguaren hoztasunean inausitako
zuhaitz biluzien adarrak
hasi ziren kimu berriez janzten
eta zuri ere euri langar artean
ahalke agertzen ziren
eguzki izpien laguntzaz
lehertu zitzaizkizun zain guztiak eta
zaurietatik ixuri bor-borka
odol gorriaren antzera
bizitzaren izerdia
mendi, haran eta sagastiak
lore gorriz estaliz.
Igaro ziren egunak eta eguzkiak,
gailurraz jabetuz,
berotu zuen itsasoa eta
buruz beheratu galsoroak.
ondoren haize bortitz nahasiak
horiztatu zituen iratze sailak
ortziaren ertz batetik, besteratu
epeltasunaren bila zihoazen hegaztiak
eta orbel gorrizta bihurtu
zuhaitzen hosto eroriak

baina denboraren joanean eta
nekearen nekez arnasa moteltzen ari zitzaizun
goibeldu zen guztiz zerua eta elur malutek
izoztu zizuten bihotzaren azken taupada.

Kaleetako espaloiak estali ziren
haizearen kulunka gozoan
jausitako hostoen geruza okrez
eta bihotzik gabeko heriotza
ate joka ari zen...

Baina bi mila eta seiaren kimu berria
ernetzen hasia da jada
eta kanpai hots arranditsuez
egingo dizute ongi etorria
izarren dizdirarik islatzen ez den
argien burdinezko hirietan.
Eta altxatuko dituzte berriro kopak
eta isuriko oparo eztarrian behera
ustezko zorionaren hazia.

Eztanda.

# Amets zapuztuen mundua

Itziar Leturia Delfrade
Ikasberri ikastola
Azpeitia

“Olatuak bezala uneoro negarrez,
Neguko ekiaren antzera
Gaude gu tamalez;
Itxaropen gutxi eta etsipen minez.

Eta bihotzak taupadari segi beharrean
Taupaden azetik etorri ginen gu,
Orro isil bortitzetan behin eta berriz errepikatuz
“*Reichtag* gure infernu!”,
*Renania* gibelean utzi eta
Ihesleku usman gabilzkizu.

“Zuen etxean lekurik ba al daukazu?
Arren onar gaitzazu,
Poltsiko zulatuan altxor gutxi dut baina…” esatean
Atea seinaleztatzen digu.
Laster bilatuko al dugu gure paradisu ezkutuko ate mutu?
Deabru berdeen urratsak
Urrutira ditut aditu,
Ta nire barneko ibai gorriaren sorlekua
Aurki hasi da erranez gorriari “azkartu!”.
Korrika atera nahiz eta
Otsoaren uluarekin egin dut topo.

Amets zapuztuen gunean,
Maitasunik ez den tokian
Ez baitago lekurik
Ta sakirik
SS-samintzaileek hagorikatu ez dutenik.
Etzi bizirik irautea da gure helburu, baina
Nola egon bizirik, jada hil bagaituzte gu?

Maitasunak petaloetan bor-bor egiten dion bitxilorea izan
[gura nuke,
Une zoriontsu eta gozoak
Nornahiri eskaintzeko.
Duda bat dut ordea, nola maitasunaren lore
Uneoro nire sustraiak desagerrarazi nahi badituzte?

Botila geznari klandestino hau
Itsaso odoldu zaurituaren besoetan uzten dut.
Ziur bainago nire azken loa,
Inongo iratzargailuk oztopa ezineko kuluxka goxoa
Dudala nire bihotzean ate joka.
Une eta bizi hau baino hobea izango ote da?
Ni seguru bainago heriotzak jaiotzean eraman ninduela
[hegaka."

Begiek papereko hitz gardenak ezabatu bitartean,
Irakurri dut itsaso mezulariak ekarritako gutun zaharkuldua.
Zentzu guztietatik aztertu ostean

Igarri dut paper bidaiariaren isilpeko mezua; zuk
Goitik beherako zentzuan
Arraia bakoitzaren lehen letra
Behatuz gero, atzeman dezakezuna.
Ene bihotzak, itsasoari hitz eta etsipen espetxeratuen
[itsasontzia itzuli dio
*Rotuma* uharte txikitik hasi eta *Madagaskar* irla handiraino,
Amets zapuztuen mundu osoko txoko zanpatuetara
[hedatzeko asmoz edo.

ONGI ETORRI
AMETS
ZAPUZTUEN
MUNDU
BIZIDUN
BIZIGABERA

# Poema bat momentuari

Izar Azpiroz Iragorri
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Hiriko kale erdian
une, segundo... momentu batez...
Jarri zaitez, ni jarri naizen bezala,
begiak itxita, geldirik... momentuari loturik...

Aska zaitez
eman eskua haizeari,
begirada iluntasunari,
belarria inguruari...
Ez utzi ihes egiten momentuari.

Ahaztu inguruko berri-ipurdiez
eta murgildu momentuaren monotonian,
entzun momentuaren hotsak, hitzak...

Tik-tak, tik-tak...
Denboraren aurka lasterka
zapata gastatuen takoiak...
Zis-zas, zis-zas...
Haizea ebakiz
larruzko txamarren arteko urratuak...
Zum-zum, zum-zum...
Neurrigabeko abiadura,
presaz hornitutako motore luxutsuak...

Entzumenez momentuan sartutakoan
ireki begiak,
atera begirada azal azpiko iluntasunetik
eta bota eguneroko bizimoduan,
eguzkia zeruan dela,
kaleko harrizko paretak janzten dituen itzalari...

Beltza, goitik behera,
eraikin batetik atera berri den emakumeak
janzteko hartu duen aukera,
Zuria, grisa... beltza, eskuinetik ezkerrera,
abiada nahikoaz ez doazen autoen janzkera...
Zure ingurutik hasita ahal bezain urrutienera,
beltza berriz ere,
jendeak momentua gozatu ezinaz daraman jarrera...

Belarria inguruan, begirada iluntasunean...
